A. ARRINDA



# EUSKALERRIA ETA ERIOTZA

KARDABERAZ BILDUMA - 10

# EUSKALERRIA ETA ERIOTZA

KARDABERAZ BILDUMA - 10

# EUSKALERRIA ETA ERIOTZA

Iñaki - Amutxastegi
Deba 14-5-85

ANASTASIO ARRINDA ALBISU

*Autor: Anastasio Arrinda Albisu*
*Edita: Juan José Garmendia - Librería Técnica de Difusión - Tolosa*
*Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria*
*Depósito Legal: VI - 936 - 1974*
*I. S. B. N. 84-7167-023-2*

## *Eskeintza*

*Bere erantzunekin*
*nere lantxo au egiten*
*lagundu didaten guztiei,*
*biotzetik.*

## NUN-RER


| | | |
|---|---|---|
| | Ataka ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 7 |
| I. | Leize-illobiak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 11 |
| II. | Gorputz-erreak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 31 |
| III. | Trikuarriak (dolmenak) ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 35 |
| IV. | Gaurkoekin konparatzen ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 47 |
| V. | Etxe-bizitza Euskalerrietan ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 57 |
| VI. | Illetak Euskalerrian gaurko egunez ... ... ... ... ... ... ... ... | 77 |
| VII. | Azkena ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 157 |
| VIII. | Gure azterketari erri bakoitzak erantzundakoa ... ... ... ... | 161 |
| IX. | Liburuak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 287 |

# A T A K A

Eriotza beti da gizonenttzat kezkagarri gizonak burutik badu, beintzat. Eta euskaldunak, gai onetan, burutsu jokatu dute beti. Ez orduko euskaldun zaarrak bakarrik; baita, gaur egunekoak ere

Letradunak ere bai.

Euskalduna zan Miguel Unamuno, Bilbo'n jaioa eta letraduna, Salamanka'ko Ikastola Nagusiko erretore ta zuzendari izana. Bertan illa eta obiratua. Bere idaz-lan ugarietan eriotza agertzen da pentsamentu osoaren ardatz bezela (1).

Eriotzak izan du zer esanik Euskalerriko oituretan, kondairean zear.

Ildakoen gorpuak lurperatu ta obiratzean garbi asko agertzen digute beuren barru-barruko kezka.

# * #

Gai oneri buruz leen-gizonen oiturak, arkeoloji bidetik ikasiak, aztertuko ditugu; ondoren, berriz, etnoloji bidetik, bizi diranen oiturak ikusiko ditugu. Arkeoloji-bidea ildakoen bidea da.

Bide ortatik aurrera joan ezkero eriotzaren berri izango degu Kondaira-aurreko Euskalerrietan. Prehistoriraño elduko gera bide orreri jarraitzeakin ta orduko euskaldunen bizi-modua nolakoazan ere ikasiko degu: nun ta nola bizi ziran, zer jantzi ta zer jaten zuten, ze irabazi-bide, zer obiratze eta zer siniskeri...

Zergaitik esan degu Arkeolojia ildakoen bidea dala?

(1) Gran Enciclopedi'a del Mundo. Durvan., S. A. De Ediciones-Bilbao. 1964. 18-620.

Aspalditxoan il ziran gure aurrekoak, baiña oraiñ arte iraun duten urrats, arrasto eta erreus utzi zizkiguten baztarretan...

Leen euskaldunak jandako abere eta animalien ezur eta adar bada makiña bat, eurak bizi izandako koba-zuloetan...

Zaldi, zezen, artz, otso, basauntz, basurde, axari eta abarretatik ateratzen zuten eguneroko jakia eta okelea gure aurreko arbasoak. Jakia bakarrik ez, lanabesak ere bai. Adarrezko eta ezurrezko tresnak.

Ba ziran arrizko lanabesak ere; aizkora, aiztoa, atxurra, zulakaitza... Ez dira gaurkoak istrumentu oiek!

Bada besterik ere: sutautsa, lur errea, giza-gorpuzkiak eta ormeetan marrazkiak eder-ugariak...

Arri galantez egindako illobiak ere, utzi zizkiguten mendi-gallurretan: triku-arri edo jentill-arriak; dolmenak, alegia.

* * $

Gure aurreko Euskaldunen bizitza esagutzeko bide zuzen eta ziurra aitatutako arkeolojiko gauza guzti oiek dituzu. Kobeetan bizi ziran artean, lurren gañean gelditzen ziran jan-ondokiñak, ezur eta azal, leize-atetik sartzen zan autsarekin batean eta eurak oñetakoetan ekartzen zuten loiakin naastean...

Naaste oiek, bata bestearen gañean pillotuta, denboraz, pixkanaka pixkanaka, estrato asko moldatu zituzten, xerrenda asko.

Xerrenda zaarrak daude azpitik eta berrigoak gañetik, besteen gañean moldatu ziralako. Gauza bakoitza ze zerrenda edo ze estratoan dauden jain bear gauzaren zaartasu edo berritasuna esagut zeko, eta alkarren arteko zerikusiak. Kaltegarri aundia da leizeeran sartu eta atxurrean ekintzea, zerrenda guziak naasten diralako. Azterketa, jakintsuak bakarrik egiten dituzte bear bezela eta eurari utzi bearrezko lana da. Besteak kalte besterik ez dute egin leizeetan eta trikuarrietan (dolmenetan, alegia).

Aspaldiko errien berri eta beuren gora-bera asko estrato oien bidez esagutzen dizkitugu. Yakintza orreri Preistorio edo Edezti-aurrea esan oi zaio.

Edeztia berak baditu beste bide batzuek ere: papera eta idaz-

tiak. Paperetan iskribuz idatzita daude berri asko eta ortik sortzen da, batik-bat, Edeztia...

Baña, Edezti-aurreko berriak ez daude iñun idatzita, gaur eguneko idazkeran, beintzat. Alaz ere, garai artako berri lortuko degu Arkeolojiko bidetik ibilli ezkero...

# # #

Et noloji bidea ere bada zeredozer.

Bizi-diranen-bidea esan oi zaio eta bi eratakoa da bide ori.

Ona lenengo era:

Mundu zabaleko azken-bazterretan gordetako erri askotxo, Edezti-aurreko giroan bizi dira oraindik. Gizarte osoaren Kondaira eta Istoria laisterka baten antzekoa da: iturri batetik sortu eta elburu edo meta batera dijoaz gutxi gora-bera, laisterketa eten-gabeko batean, Ludiko erri guztiak. Batzuek oso bizkor dijoaz, besteak geldo; asieran bizkor ibillitakoak ere badira aspaldian gelditutakoak, lo-zorroan bezela...

Atzera geldititutako erri oietan Edezti-aurreko eta Arri-aroko gauzak daude oraindik bizirik: armak dituzte arrizkoak, edo ezurrezkoak, zurezkoak ezbadira... Oiturak ere alamoduz.

Erri atzeratu auen bizi-bidea estudiatzea eta aztertzea ez litzake bide txarra izango gure aurrekoen bizi-bidea ikasteko. Esate baterako, Edezti-aurreko Euskaldunak arrizko aizkora erabiltzen zuten, nola ez badakigu ere, esku utsez edo kirten batez. Berri ori gaur eguneko erri atzeratuetan ikasi genezake. Ta orrelako zenbait gauza.

Etnoloji-bidearen bigarren era:

Teilhard de Chardin jakintsuak dionez, oraindik orain asi omen gera Edezti-aurreko amarrak largantzen: orduko bizi-molderik ez degula era bat aldatu oraindik, alegia. Gure gizarteko jakinduria, pentsakera eta abar, erdizka bezela, Edezti-aurreko gizonengandik omen dauzkagu... Auxe berberau esaten digu Jose Miel Barandiaran'ek (2).

(2) J. M. DE BARANDIARAN, *Breve Historia del Hombre Primitivo.* Anuario de Eusko-Folklore. Vitoria, 1931. XI Pag. 4. "...el hombre prehistorico no ha desaparecido todavia: gran parte de los pueblos que actual-

Ori ala bada, gure gizarteari arretaz begiratuko bagenio, gure aurrekoen jakinduri eta bizikerari buruzko zerbait ikasiko genduke. Eta mundu guzirako balio badu bide onek, Euskalerrietarako, areago.

Zergaitik?

Gure Erria etenik izan ez dulako Edezti-aurretik onerako bide guztian. Orduko erria da.

Gauza askoetan aldatuko zan, baiña erririk ez da eten; bere aririk ez da ebagi ordutik onera. Gu ordukoen seme gera, senide artetik aldatzeke eta beuren lur-gañean bizi gera, tokirik aldatzeke... Ez da ba, arritzeko, gure artean euren kutsuak irautea,.. Batez ere, baserrietan.

* # #

Sekula izan ez dan etena eta ausia, gaurko egunez egiten ari da oso-osoa. Etena era bat sortu baiño leen, bildu ditzaigun gure artean dirauten antxiñakoen aztarnak eta arrastoak. Gero, erremediorik ez danean, negar egitea eta plantua jotzea alperrikoak izanen dira.

mente existen en el mundo, poseen culturas primitivas propias del hombre f6sil. Y un detenido estudio de la llamada civilizacion occidental os convenceria de que aun el europeo de nuestros dias ha heredado de las generaciones prehistoricas mas del *cincuenta por ciento* de su haber cultural".

# I

# LEIZE - ILLOBIAK

I

# LEIZE-ILLOBIAK

Arkeoloji bideetatik aurrera joanda, gizonaren aztarnak oso antxiñakoak arkitu oi dira Pirenee-mendietan: Auñamendi'an.

Edezti-aurretik bizi zan gizona mendi inguru auetan.

Baña, euskalduna, noiztik bizi da emen?

Kristautasuna sortu aurretik millaka urteetan eta erri onen ezaugarririk arrigarriena auxe da: beti bat iraundula sustrai, mami eta muñetan.

Beste aldetik, berriz, Euskalerria erri bakarra da. Seniderik ez duna, esagunik, beintzat.

Ugarte edo isla baten antzera dago erri askoren erdian bera bakarrik, guzti oiekin artu-eman ugariak izan arren. Ez da eurakin naastu. Bere ingurutik artutako gauzak ere Euskalerriak bere erara artzen ditu odol eta aragi biurtuaz, anima bereizirik galdu gabe.

Mintzairari gertatutakoa gertatu zaio, gutxi gora-bera-Erriari ere: Euskerak erdera guztietatik itzak artu arren, bere izakerarik, bere joserarik, bere animarik ez du galdu.

Beste errietatik ikasiak, milla modutako gauzak billatuko dituzu Euskalerrian; ez du orregaitik, ordea, oraingoz bere bereiztasunik galdu. Jan eta edaten ditugunak, gure aragi eta odol biurtzen dizkitugu; asko jan arren ez degu orregaitik gure nortasuna eta gure izenik galtzen... Berdintsu gertatu oi zaio Euskalerria'ri urteetan zear, jakintsuen pasmorako (3).

(3) RODNEY GALOP *LOS Vascos.* (Version española del original ingles). 2." Edicion. Madrid. 1955. Pag. 10. ",,-D6nde radica la fascinacion de los Vascos? Tal vez Camile Jullian ha facilitado la mejor respuesta a esta pregunta: —Cada epoca desaparecida —escribe— parece haber legado a la civi-

Ez genduan guk txapelik asmatuko, baña gure-gurea egiñ bai; pelotan, ere, gure aurretik egingo zuten beste mundu zabaleko erri zaarrek; guk, ordea, gure erara jokatu degu pelotan eta geure bizimoldetan sartu ditugu bai txapela eta bai pelota, biak "euskaldun" biurtu artean...

Mendiak lagun eutsi diogu gure izate zaarrari, Auñamendiko inguruetan bait bait daude errotuta gure sustraiak, Edezti-aurreko Arora eltzen diran sustraiak. Prehistoria orren berri jakitzeko ere ez da bide okerra gure Erria aztertzea, guregan irauten bait du Europa'zaarreko sustraktum eta azpi-azpiko oiñarri zabalak.

# * #

Gizarteko Pre-historia gau oso luzea (zeñek daki zanbat millaka urteko gau luzea) gertatu zan. Edezti-aurreko gau orren egunsentiaren argi nabarrean agertzen zaizkigu leen-gizonaren urratsak. Edezti-aurreko Aro orren tarteak oso dira luze eta lausotsu. Lurrak aldaketa izugarriak izan zitun bitarte aietan, berotik otzera eta otzetik berora. Izotzarekin batera zetozten otzetan oitutako animaliak, eta alde egiten zuten giro beroa bear zuten abere eta zugaitzek.

Burruka latzak iragon zituan leen-gizonak eguraldi-aldaketekin eta animalien oiturekin. Burrukan ekin bear bere inguruko guziekin, bizirik iraungo bazun. Burruka ortatik sortu zitzaion gizonari bere soiñ tinko-zimela eta argitu begi-belarriak. Burruka luze ikaragarri oien ondorenean, gizonaren adimena gertatu da indar guzien jaun eta jabe abere, zugaitz, mendi, erreka eta itasoa berbera menperatuaz...

Baña, bitartean zenbat neke, zenbat burruka...!

Ortzak eta atzaparrak ditu bigun gizonak animaliekin konparatzeko eta neurtzeko; baña, buruan argia du animaliek ez beste eta argi orren bitartez menperatu ditu animalien indar zakar-itsuak.

Nola lortu zuan gizonak bere garaipena?

liracion vasca por Io menos una costumbre imposible de desarraigar". "...son los Vascos infinitamente preciosos... como un museo viviente de la historia humana donde puede uno estudiar todo lo que ha quedado de una Europa mas antigua, desaparecida de todas partes, mas demorandose aun en este tranquilo rinc6n de los Pirineos".

Adimenak erakutsi zion bere eskuetako argaltzasuna zugaitzetik etendako adar batekin indartzeen, edo ta lur-gañeko arriekin arrika egiten... Oiek dituzu leen-gizonaren leen-armak, izadiak eta naturalezak eskeiñitako eran artuak, besterik gabe. Gerorago ikasi zuan tresna oiek lantzen, bai egurra eta bai arria. Baita animalien ezur eta adarrak zorrozten ere arma eta tresna berriak lortzeko...

Baña, Edezti-aurreko egunik aundiena gizonak sua ateratzen eta zaintzen ikasi zuan eguna da. Etxea animali eta otzaren erauntsietatik gordetzeko, janariak obetzeko, metal-burniak sortarazteko eta abarretako, suak eman zion indarra eta almena gizonari. Gizonaren Edezti osoan ez du alako egunik argitu gizonak atomiko-indarra lortu duen arteko guztian. Teilhard de Chardin'ek arrazoi, oraintxe ari gerala Prehistoriatik ateratzen esaten duanean: Edezti-aurreko kaietik, une onetan, ari da irtetzen Gizadiaren ontzia, itxas aundietan murgiltzeko.

Animali eta gizonaren arteko burruka artan gizona atera zan garaille eta leize-zuloak bere etxe-bizitzarako izan ziran. Txabolak ere egingo zituzten kobeetatik at; aien arrastorik, ordea gaurdaiño eldu ez bada, ez da arritzeko, material ustelkorrakin egiñak bait ziran da...

Urte asko pasata gero ikasi zuan gizonak arria lantzen. Artarako arri bereizia arkitu zuan, sukarria, alegia (pedernala). Arri-landuen Aro deitzen zaio gizona arria lantzen asi zan garai arreri (Paleolitiko). Arri-landuen Aroak urteak ditu oso luze. Esi-garbi gabeko denbora ura bi aldetan erdibitzenda: Arri-landuen Aro Zaarra eta Geroztikoa.

Kobeetako estratoak edo zerrendak bata bestearen gaiñean egin zirala badakigu; aspikoa zaarragoa dala ere bai... Aro Zarretakoak aspirago daude, eta Geroztiko Arokoak gaiñerago, berriagoak diralako.

Noiztik Auñamendietako gizonari "euskaldun" izena jarri genezakioke? Geroztiko Arri-landuen Arotik ziur asko.

Euskalerria'ren kultur bereizia, biotz-muiñean etenik gabea, esplikatzerik ez dago, erri au, urteetan zear, bat iraun ez badu gaurdaiño. Leen euskalduna ill edo emendik alde egin balu, Euskalerriaren kulturan eten aundi bat legoke, oso-osoko etena Afri-landuen Arotik onera. Gure kultur bereiziaren aria, ordea, zuzen-zuzen dijoa egun illun aietaraiño. Oraingo euskaldunek orduko Euskalerriaren senide bagerala esateko eskubide guztiak ditugu (4).

(4) J. M. DE BARANDIARAN, *El bombre primitivo en el Pais Vasco.* Donos-

Eta antxiñako Euskalerri zaar ura nundik etorri ote zan?

Iñundik etorritakoa danik ez daigu; arrezkero emen irautzen duela, ori bai badakigu. Beste iñundik etorri ote zanik, ez da ori iñolaz agertzen eta Yakintzak ez du gaurko egunez zalantzarik ortaz.

# * *

Europa'ko Sartaldean edo Mendebalean ba zan Arri-landuen Aro Zarrean Cro-Magnon deritzan erria (Homo Sapien Fossilis), etorri berria, eta bertako aurrekoen errietatik oso apartekoa ta ezberdiña; oraingo europatarren antzekoa Afrika Ifaraldetik edo Asia Erditik eldua. Zer ikusirik ote du Euskalerriak Cro-Magno'nekin? Leikiena da.

Deba erriko Urtiaga leizean, 1936'an kalabera-ezurrak aurkitu zituzten Jose Miel Barandiaran'ek eta bere lagunek. Cro-Magnon antzekoak eta euskaldun antzekoak dituzu buru-ezur oiek. Guztiak Arri-landuen Geroztiko Arokoak. Ortik gauza bat agertzen da garbi: euskalduna zaarra dala gure mendietan: ordukoa, alegia. Bigarren agertzendana, berriz, uste bat bezela besterik ez da agertzen: euskalduna Cro-Magnon'etik sortua ote dan susmoa alegia (5).

tia, 1934. Pgs. 9-12. "La afirmacion de que un mismo pueblo ha perdurado en el territorio vasco desde el Paleolitico Superior hasta hoy se halla apoyada en un hecho comprobado por la Arqueologia, es decir, en Ia singularidad no interrumpida de la cultura del paiis desde aquelIos lejanos tiempos hasta los albores de la historia. Y este fenomeno solo es explicable suponiendo la continuidad o persistencia de un mismo grupo etnico en el pais...".

(5) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Prehistdrko en el Pais Vasco*-Ekin. Buenos Aires, 1953. Pg- 79. "Un craneo que descubrimos en el nivel magdaleniense de Urtiaga, pero que puede no ser contemporaneo de este tramo, sino algo posterior, ofrece caracteres cromañoides asociados a otros que mas tarde hallamos en las construcciones de los dolmenes eneoliticos de nuestro pais y en Ios vascos historicos. Podemos pues, suponer, mientras no se demuestre lo contrario, que en la zona pirenaica occidental vivia una raza emparentada con la de Cro-Magnon y que en su postrera etapa, acusaba ya ciertos rasgos (fndice frontal, el vertico-transversal, el maxilo-zigomatico el arterio-parietal y el angulo basilar) que continuan en el tipo vasco hasta los tiempos actuales".

## FRANKO-KANTARI-KULTURA' KO LEIZEAK

Auñamendi inguruan bizi izan da beti euskalduna eta bere oianeta arkitu izan du babesa eta aterpea eraso eta burrukaldi guztietan.

Frantzi ta Espaiñi bitartean daude Auñamendiak eta bere egalak, egoaldetik, Espaiñi aldetik alegia, Euskalerrian zear aurrera dijoaz Asturias'ko parteraiño. Frantzi partetik, berriz, Auñamendiren aurrez-aurre, Akitania'ren beste aldetik, Dordogna'ko lurralde eta mendiak. Asturias'tik asi, Euskalerritik pasa eta Dordogna'rako bitarte orretan aztarna eta lorratza berdiñak daude. Gustiak bat egiten dute mendi eta tarte luzeak izan arren.

Koba, leize eta aitz-zuloak ugari leen-gizonentzako etxe-bizitza egokiak, zulo aietan bizi bait zan Arri-landuen Aroko gizona. Gure aurrekoak eta gure arbasoak ziran aiek.

Euskalerria ez da egun ainsbeste zabaltzen; baiña, lur zabal oien erdian dago, danen ardatz. Aldamenak eta egalak galdu zirun aspaldi, muiñik ez, ordea. Arbola zaarrari ertzeko adarrak igartu zaizkio; enborrak, sustraiak eta erdiko adarrak bizirik diraute oraindio. Eutsi bearko.

# # #

Leizeak, etxe izandakoak, Euskalerrietan dozenaka asko dira. Oien artean zenbait, etxe ezezik, illobi ere izanak ditugu. Leize-kate luzea dago Asturias'tik asi eta Dordogna'raiño. Danen artean Franko-Kantauri-Kultura osatzen dute. Oien artean aipatuenak auek dira: Altamira Santander'en. Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Urtiaga, Isturitz... Euskalerrietan. Font-De Gaume, Lascaux, Cro-Magnon... Frantzi aldetik (6).

(6) Euskalerritik Asturias'aldeko leizeak: Pindal, Balmorf, Cueto de la Mina, Las Coberizas, Lledias, Collubil, Candamo, Franca, Las Herrerias, Loja, San Antonio, San Pedro de Nova, La Paloma, Buxu, Del Castillo, Hornos de la Peña, Clotilde de Santa Isabel, Aguas de Novales, Meaza, Altamira, La

Koba auek guziak Franko-Kantauri-Kultura'koak dituzu eta jakintsuen eskuetati pasatutakoak. Kultura orren erdian dago, bere muiñ bezela, Euskalerria. Leize geiago egongo da illunpeetan, suerte on baten zai, argiratzeko. 1962'an suerte on ori izan zuten iru mutill gazteek, arrobi edo kantera baten sortutako zulo batetik sartuta, "Altxerri" kobea argira eman zutenean, bertan zeuden marrazkiekin batera. Orio inguruan dago Altxerri. 1969'an "Ekain"'ko leizean arkitu izan dira berriro marrazki eta margoak... Zenbat orreiako ote da baztarretan gure zai...!

# • •

Leize auek gure aurrekoen jauregiak ziran, eta aietatik zenbait illobi eta eliza ere bai. Bestelako etxe-bizitzak (txaboiak, nunbait) galdu ziran denak, material eta gai ustelkorrakin eginda zeudelako. Gure errietan beste orrenbeste gertatu oi da: etxeak ^rortzen dira, baiña jauregi, gaztelu, torre, eliza eta orrelakoak tente irauten dute urte geiago. Leize-zuloak, arkaitz bizian egiñak, gure gazteluak baiño iraunkorrago izan... Eta etxe-bizitzarako ez ziran txarrak,, oso egokiak, baizik: neguan beroa, udaran otza eta piztien atzaparretatik gizona gordetzeko aukerakoak atea narruz edo egurrez itxi ezkeroz... Etxe--bizitza izandako leizeak, geienak, eguteran daude eta kobearen atakan lan egiten zuten tresna eta lanabesak egiten: leizeak bait ziran leen--gizonen ola eta lantegi. Lantegia eta sukaldea alkarrekin zeuden;

Haza, del Valle, Salitre, Rascaño, Camargo, El Pendo, Santian, Cobalejo, La Pasiega, Negra, Covalanas...

Euskalerri'ko zenbait: Sotarriza, La Peña, Bortal, Lumentxa, Armiña, Bolinkoba, Balzola, Santimamiñe, Ermitia, Urtiaga, Ekain ,Altxerri, Lezetxe, Lezetxipi, Amalda, Aitzbitarte, Zuñiga, Berroberria, Isturitz, San Martin de Arberoa, Haristoi. Lexotoa, Sorgin-lez-ea, Axilondo, Lezia, Olha, llbarritz, Muliña, San Pedro de Irube, Buheben, Anelet, Mikoteau, Kaxiño, Uriogaina, Nabasia, Sasisiloaga, Etcheberriko-karbia, Torre, Alkerdi, Kobeaga, Marizulo, Las Pajucas, Aldeakueba, Gerrendijo, Txotxinkoba... Frantzi'aldekoak: Madelaine, Font-de-Gaume, Combarelles, La Mothe, Lascaux, Pech-Merle, Niaux, Labastide, Marsoulus, Montespan, Aurignac, Moustier, Tourasienne, Mas d'Azil, Cro-Magnon, Bruniquel, Pair non Pair, Cap Blanc, Espelugas, Laussel, Ruth, Chapelle, aux-Saintes, Rouffignac...

baita illobia ere... Geienetan, ura ere ,etxe-barnean zeukaten eta bildutako igaliak edo eizetako aragi ta narruak gordetzeko leku aukerakoak...

Bizitzeko egokiak izan arren, ez ziran beti etxe-bizitza bakarrik izaten; zenbait leiezetan gauza miragarriak azaldu zaizkigu, zoragarrizko marrazkiak, alegia, margoak eta erretentxoak (grabadoak) kobeetako ormeetan. Gizon aien artean bazan artista ederrik, edergintzan trebetuak...

Marrazki oietatik dakigu zer animali bizi ziran gure mendietan: mamut, elefante, leoi, artz, bizonte, basauntz, zezen, ardi, reno, basurde, axari eta abar. Txorietan, berriz, arrano, urrillo, eper, ata, bela-beltz... Arraietan, salmoia eta platusa... Arbolaren bat, sareak eta giza-eskuak. Orra zenbat gauza kobeetako paretetan.

Gauza batek arritzen gaitu eta auxe da: gizonen irudirik ez dala animalien antzera mamorro jantzita ez bada. Zergaitik, ote?

Askoetan marrazki oiek bata bestearen gaiñean eginda daude. Zergaitik ote?

Beiñ edo beste, animalien irudieri burua palta zaie. Zergaitikote?

Orrelako pintura ederrak bistan ez egotea, toki illun eta baztartuetan baizik, ori ere arritzekoa da. Zergaitik ote? Orrelako edergarriak ikusteko erreztasunik bat ere ez dago, leku zailletan eta toki gaiztoetan eginda badaude...!

Berez animali eta piztiek beuren bizitzan ibilli eta egon oi diran eratan ikusten dizkitugu leizeetako orma zaarretan.

Gauza auek orrela izateak eta guri sortarazi dizkigun galderak, buruausterik asko ekarri die jakintsueri. Zergaitik marrazkiak eta beste edergarriak leku gaitzetan eta illunetan? Zergaitik gizonen itxurarik ez da bere izatean? Zergaitik bururik ez dute? Zergaitik marrazkiak bata bestearen gaiñean? Zergaitik animaliak (arrak), beren gorputzetan, arma-arrastoak dituzte? Zergaitik asko sortzen zaizkigu edergarri oiek ikustean.

Jaintsuak saiatu dira galdera oieri bearbezelako erantzuna ematen. Ona-gutxi-gora-bera, erantzun batzuek:

Edergarriak leku illun eta toki gaitzetan daude euren aurrean leen-gizonak aztikeriek egiten zitulako.

Gizonaren irudirik ez dago mamarro jantzia ez bada, gizona azti bezela jokatzen zuelako, eta aztiaren jantzia animalien itxurako jan-

tzia da; animalien antzera jantzita egiten bait dituzte euren aztikeriak erri atzeratuen aztiak... Ori argitzeko beste arrazoi-bide bat ere bada: aztikerietan sinisten duten erriak ez diote iñori erretrato edo argazkirik ateratzen utziko, irudia nere mende badago, irudiaren jabea ere nere mende egongo dalako bere irudiakin batera sinisten bait dute. Siniskeri ori bait da aztikeriaren mami eta sustraia. Uzten dute, irudi eta bere gauzaren artean artu-eman bat eta indar bat dagoela; aztiak du indar ori bereganatzeko aalmena eta irudia menperatu ezkero, indar orren bidez menperatuko du irudi orrek agertzenduna. Euskeraz indar orrek badu bere izen bereizia, ***aiur.*** Azti izango da indar ori, adur ori, sortarazi lezakeen gizon naiz emakumea. Aal ori gabe ez litzake azti izango. Aztiak egiten zituan aztikeriak, mamorro jantzita, animalien gisan.

Animalien gorputzean zergaitik dauden arma-arrastoak (geienetan biotz-inguran) ere, aztikeriak argitzen digu: eizera irten aurretik aztiak azkona animaliari biotzean sartu ezkero itxuraz eta iduriz, animalia berbera ere gizonaren mende geldituko da. Irudia zauritzen degu, animali bizia zauritu aal izateko. Arrasto gaizto oiek animali-emeetan ez daude. Zergaitik ez? Gure gizarte Eizerako Alkarteek ere leen-gizonak egiten dutena egiten dute, arrak ill, alegia, eta emeak gorde (7).

• * #

Zauri ta arma-arrasto gabeko animalien irudiak ere ugari daude kobeetako orma zaarretan: arrak eta emeak. Zer adierazi nai ote di-

(7) **J. M. DE BARANDIARAN,** *El Hombre Prehistdrico en el Pais Vasco.* **Buenos Aires,** 1954. **Pg.** 56-58. **..."En la base de esta conducta se descubre en la creencia de que la imagen y el simbolo se hallan en conexion ineluctable con los objetos representados y que las cosas de un mismo genero** o **nivel mantienen entre si relaciones misticas, como si una energia** (INDAR), **virtual e inmanente, los englobara y los trabara; energia preternatural que puede actualizarse mediante imagenes, simbolos y actitudes ritmicas. Cualquiera puede actuar de mago; pero hay magos profesionales** (AZTI) **que tienen mas pericia que los demas en Ia eleccion de formulas, gestos e imagenes...".**

gute orrelako marrazkiak? Aztikeriarekin batera bazala beste zer edo zer ere koba oietan.

Oraiñ arte Arkeolojia utsekin ibilli gera; ikusi dezagun ondoren Etnolojiak zer dion gai oneri buruz.

Leizezuloetan espiritu eta jainko-txiki asko bizi dirala sinistendute zenbait euskaldunek, eta jainko-txiki oiek animalien antzeko dirala, zezen, zaldi, suge, basauntz, ari, eta abar. Leen-gizonak ere leize oietan gurtzen zituzten animali oiek eta arrigarria da, benetan, gure gaurko eguneko sinisteak eta Edezti-aurreko leize-marrazkiak bide berdiñetik ibiltzea...!

Zezenak, zaldiak, basauntzak... ormeetan margoztuak orain millaka urte; zezenak, zaldiak, basauntzak... euskal-buruetan sartuak siniskeri bezela gaurdaiño! Siniste auek (euskaldunen buruetan irauten dutenak) marrazkien garaikoak ote...? Ala dirudi eta baietz ematen du: garai artako erriaren semeak gera eta geureari euzten ez digu askok irabaziko. Emen Arkeolojia eta Etnolojia biak alkarri esku-emanda datoz, batak besteari lagunduz; Arkeolojiak erakusten diguna, orixe berbera argitzen digu Etnolojiak. Oraingoen sinistekerien bitartez, atera genezakegu ordukoen siniskerien kutsuak.

Ona gure artean zer siniskeri dauden:

Gauza baten eta bere irudiaren artean bada, biak alkartzen dituan indar bat. Indar ori sortarazteko imajiña, irudi, sinbolu edo kiñu ren bat bear da. Asti diranak, dakite iñork baiño obeto zer irudi, zer sinbolu edo zer keiñu aukeratu indar ori sortzeko egiazko gauzeeri buruz. Baiña, azti izan, ori edoñor izan leike.

Esate baterako, persona bat erre nai dezula, argizari-kandela egizu persona orren irudi eta su eman argizariari, besterik gabe egingo diozu kalte zure etsaiari. Berdiñ jokatu deikezuke txanpon-diruakin ere: txanpon bat okertzen degunean, txanpon orren irudia okertzen degu, eta irudi orrekin batera irudiaren jabea, edo guk jabe bezela aukeratzen degun ura.

Ortz berri bat nai dezu aoan eta orretarako ortz zaarra suari eskeiñi bear diozu onela esanaz:

"Torri zaarra
t'ekarri berrie...".

Edo beste onetara:

"Andra Marie
otzon ortz zaarra
t'ekatzan berrie...".

Ona beste esaera bat:

"Mari Tellatuko,
gona gorri dune,
otzi agiñ zarra
ekatzu berrie,..".

Sorgiñak eta espiritu gaiztoak uxatu nai dituzu? San Juan eguneko suakin bazterrak aztindu (illuna menperatu suaren bitartez eta espiritu gaiztoak ere menperatuko dituzu, illuna bait dute espiritu oiek irudi) eta onela abeztu:

"San Juan dala, San Juan;
goiko gure soruan
sorgiñ begiya galdu da;
galdu ba'da, galdu be'di;
sekulan agertu ezpaledi...! ".

Edo au.

"San Juan gaur dela;
biar dela Donienez;
etzi San Juan; biyaramonez
gure soroan lapurrik, ez;
sorgiñik b'ez.
Ba'dagoz, bere,
erre b'eitez!
San Juan,
artoak eta gariek
gorde.
Lapurrek eta sorgiñek
eta beste peste guztiek
erre!

Umiak giñala Lazkano'n, San Juan suakin soroetan barna ibiltzen giñan kantari:

"Txarrak, kanpora!
Onak, barrura! ".

Sorgiñak eta espiritu gaiztoak uxatzeko beste auek ere egiten dira Euskalerrian:

Etxeko suari garza bota.

Ikullu edo *konako* atean karda-lorea jarri. Eguzki-lora ere esan oi zaio karka-loreari.

Ollarraren kukurrukuak ere ba du ortarako indar.

Orra iru gauza *sotg'm* eta espiritu gaiztoen aurka: ollarraren kukurruku, sua (etxekoa edo Sanjuan egunekoa) eta Eguzki-lorea. Irurak bat *egiteti* dutela esango nuke nik. Ona zergaitik: Ollarraren kantuak argia datorrela dio. Suak argia dakar berarekin eta karda-lorea Eguzkiaren irudia da...

*Argia.* illunaren kontra. Illunpeetan dabiltz espiritu gaizto eta sorgiñak; onak, berriz, argiarekin batera datoz... Argiarekin bizia, illunarekin eriotza... Illuna da espiritu gaizto guztien itxura, antza eta irudia; illuna argiarekin menperatu ezkero, argiarekin menperatzen ditut illunaren irudi diran espiritu gaizto eta *sorgiñ* guztiak.

Ona aztikeriaren mamiñean sartuta.

Euskalerriko lurraldeetan leizeak asko dirala, esana daukagu. Leize oiek etxe-bizitza izan ziran eta eliza (jainko zaarren gorde-leku, aztikerietako toki, eta azkenik *illobi* ere bai).

Asteko ez naiz urrutira joango. Idazten ari naizen Deba'ko erritik *JJrtia.ga.'ko* leizera bost kilometro daude, Iziar'ko auzoan, Salbatore mendian, Franko-Kantauri-Kulturako ardatzaren erdian.

Koba-zulo orretan *1936'm* Jose Miel Barandiaran'ek buru-ezurrak eta gizonen gorpuzkiak billatu zitula esana daukagu (8).

(8) Rev. Gernika, Bayonne. 1947. I. 125 orrialdea.

Berak esaten duanez (9) Urtiaga, Isturitz eta Jentilletxeta leizeetan gorputzak beengaiñean uzten omen zituzten, lurperatu gabe.

Gauza oneri buruz argia ematen digu pigmeoen oitura batek:

"Umeak txabola barruan, eta sutokiaren aspian eortzen dituzte; eta gizonezko eta emakumezkoak, etxetik at, basoaren toki izkutu batean... Senideak txabola eta toki artatik alde egiten dute eta illabete batzuetan ez dira bertara etorriko; bitarteko, txabola bat egindo dute berria... Gerora etorri eta lurpetik gorpuzkiak ateratzen dituzte kutunak egiteko..." (10).

Euskalerriko oitura onek, leizeetan eortzeko oitura alegia, luzaroan iraun zuan Arri-landuen Arotik Brontze-Arorarte gutxienez, trikuarriak edo dolmenak agertu ziran arte eta aurrerago ere... Trikuarriak illobiak ziran gorputzak eortzeko; baiña, oitura berri onek ez zuan zaarra era bat galdu.

Leizeak ataka zuen aurretik eta barrua atakaren ondoren. Barruan, atakatik gertu, su-tokia erdi-erdian eta aldamen batean, lantegia, lanabesak edo sukarriizko tresnak egiteko argiak jotzen zuan lekuan. Leize-aoan bizi ziran eizera, arrantzara edo frutu-biltzera joan bearrik ez zutenean.

Santimamiñe, Lumentxa, Bolinkoba, Mairulegorreta, Arratandi, Jentilletxeta, Urtiaga, Ermitia, Urio eta Isturitz'eko kobeetan sutokia zulo axal batean zegoan, arriz esia eta ataritik gertu (11).

Barnean eortzen zituzten ildakoak, baiña baita leizetik kanpora ere; ez bait ziran guztiak leizeetan bizi. Aizpeetan eta babeslekuetan ere bizi oi ziran, gaurko egunez ijito eta motsailleak ikusi izan oi ditugun bezela.

# # #

Ikusi ditzagun bereiziki leize-illobi batzuek:

MARIZULO kobea Urnietan dago (Gipuzkoa'n) eta Mesolitiko az-

(9) J. M. DE BARANDIARAN, *"Cueua Urtiaga"* (Reanudaci6n: 1954). Rev. Munibe. S. S 1955. 1955 II 69-70 or.

(10) A. ARRINDA, *La Religion Prehistdrica de los Vascos* Ed. Auñamendi. San Sebastian. 1965- 57 orrialdea.

(11) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Primitivo en el Pais Vasco.* Ekin. Buenos Aires. 195. 139 orr.

ken aldera asi ziran Maruzulo'n bizi izaten... Neolitiko eta Eneolitikoan (Brontze-aroan, alegia) bizi-lekua illobi biurtu zuten.

Bigarren lur-zerrenda edo maillan gizon oso baten ezurrak ager tzen dira, arkume eta txakur banakin alkartuta. Iru arri luzanga ditu bere inguruan gizon orren eskeletoak: bat buru- aldetik eta beste biak aldamenetan... Azpiko-aldetik ez du arririk. Eskeleto oso ori baiño ezur geiago badaude gizonenak leizean; baiña, sakabanaturik eta erdi-erreak. Arkume eta txakurra ere osorik lurperatu zituzten, gizonakin batera.

Ona zertzuk zeuden gizonaren ezurrekin batera:

Sukarrizko puñal edo aizto eder-eder bat (12).

Basurdearen ort-luzetako bat, txintxilika lepotik eramatekoa.

Iru ezurrezko txintxilikario (eraztunen antzekoak).

Lanabesak.

Bi ezabatze -txintxilikario.

Lur-ontzien zati erreak ugari.

Leize orretan bizi ziranak eiztariak ziran eta eurak bertan utzitako animali-ezurretatik agertzen dana auxeda: jateko basurdeak, basauntzak, korzoak eta auntzak arrapatzen zituztela geien (13).

KOBEAGA leizea Isparter'en dago (Bizkaia'n).

Bermeo'tik Mutriku'ra bitarteko itsas-ertza leize-illobiz metea dago, iñun baiño geiago. Tarte ortako kobeen arteko bat da Kobeaga edo Sorginzulo'ko leizea. Illobi dan koba oneri Sorgin-zulo deitzeak ere badu bere zera, Etnolojia eta Arkeolojia alkarrekin dabiltzela, alegia.

Oso txikia da eta bere lurra arriz eta janari-erreusez betea dago.

Askorentzako izan da illobi.

(12) Aizto oneri buruz ona zer esaten diguten: "Piezas semejantes a esta las hay en Los Miliares y en diversas estaciones megaliticas francesas. Se le parece tambien el puñal de Can d'En Serra (Tarragona), descrito por Alberto de Castillo ("H-ª de España. Tom. I. (Dirigida por Ramon Menendez Pidal). El Neolitico, o, yendo mas lejos, uno de los que cita Marija Guimbutas como procedente de Buchholz en el Bajo Oder"). Rev. unibe. 1967. 3/4. p. 268. Laborde, J. M. de Barandiaran, Atauri, Altuna.

(13) Rev. Munibe. 1967 3/4. Pags. 261-270. Manuel Laborde, *Jos6* Miguel de Barandiaran, Tomas de Atauri y Jesus Altuna. Eta: Zenbaki ortan bertan, 291 orrialdean: Fauna de Mamiferos. Jesiis Altuna.

Emengo eortziak ez dira danak denbora berean eortziak izan. Tarteak daude

"Vaso campaniforme" garaian erabilli zuten leizea askoren illobirako. Nola eortze zituzten? Batzuek lurpean, bestak erreta. Gobaederra (Araba'ko Subijana-Morillas'en dago) leizean ere gorputzak lurperatu eta erre, biak batera egiten zituzten. Iru lur-zerrenda edo mailla daude: bekoa eta goikoan gorputzak bietara, erreta eta lurperatuta, arkitzen dira; tartekoan, berriz, erreta bakarrik. Gobaederra'n bezela gertatzen da Gerrandijo kobean (Akorda-Ibarrangelua'n) eta "Las Pajucas" leizean (lanestosa-Bizkaia'n). Arrtiandi'ko leizean, berriz, (Atauri-Araba'n) erretakoak geiago dira beste koba oietan baiño.

Brontze-Arako koba ontako buru-ezurra irurogei urteko emakume batena da eta Aralar'ko triku-arrietan eortzita dauden artzaien buru-ezurren antzekoa; baita ere gaur egunez Zarauz inguruko euskaldunen antzekoa

Emen eortzita daudenak artzaiak ziran, eta, garai aietan Euskalerriko artzaiak Teruel'eraiño joatzen bee-aldetik, eta Gazkuiña'raiño goi-partetik, Perigeux ingurura eta Garona-ibaiaren erribeeretara. Emen bertakoak izan arren, artzaiek zebiltzen batetik bestera, eta bere artu- emanetan ekarriko zituzten kanpoko berriak, tresnak eta ontziak... Oien artean "vaso companiforme" derirzan kanpai-antzeko edontzia.

Gauza asko arkitu dira, beste kobeetan bezela, gorpuzkiekin naasian, koba onetan. Ona zer batzuek: aizkora arrizkoa oso polita, berrogei txintxilikario, kutunen antzera, borobillak eta luzangak, zulodunak, lur-ontzi pusketa asko... Txintxilikario oien antzekoak arkitu izan dira Obieneta, N. (Aralar'en), Kalparmuño-barrena (Aizkorri'n), Igaratza (Aralar'en), Balenkaleku (Altzania'n), Sagastietako-lepoa (Igoin-Akola) eta abarretako trikuarrietan.

Beste gauza bat ere bada koba onetan: Bei-ezurrak. Illen-ofrendak? Baietz erantzun genezake, batez ere Gobaederra eta beste kobeetako bei-ezur aundiak ikusi ezkero. Koba oietan dudarik ez dago, illeta-eskeintzak egiten ziran (14).

(14) Rev. Munibe. 1966. 1/4. XVIII. 37-6 orrialde. Juan M.[a] Apellaniz eta Ernesto Nolte

ALDEACUEVA leizea Karranza'n dago (Bizkai'ko partean) eta errian bertan, elizatik gertu. Gorputzak bertan eortzi ondoren estalaktita edo troska-manta bat sortu zan lur-zurrenda gaiñetik eta aspikoaldetik gelditu ziran gorpuzkiak... Gerora eortzeari utzi zioten.

Lurperatutako gorpuek geien dira, erreak gutxiien.

Umeak daude emen, batez ere.

Ikatz-erreusak daude leize guztian zabalduta. Zergaitik? Ez dakigu, asmoren bat izango zutela baizik.

Gorputzekin batera arkitzen dira lurrezko baso aundi eta txiki, eta kaikua. Ezur puxketa txikiak eta txintxilikario bat.

LAS PAJUCAS, aurrekoaren ingumarietan dago (Lanestosa-Bizkaia'n).

Eortzitakoak geien-geienak gizon egiñak dira eta emakume. Alaz ere ez da umerik palta. Ez dute kalabera-ezurrik, pusketa batzuek, baizik. Ildakoen gorpuzkiak eta errekiñak arkitzen dira.

Animalien ezurrak ugariak dira: eskeintzak, nunbait. Lanabesak eta lurrezko ontzien zatiak.

Carbono-14'kin egindako azterketak erdiko lur-zerrenda edo estratoentzako 3.710 urte eman ditu. Zarragoak eta berriagoak badaude an eortzita (15).

Leize onetan (eta Getalenta, Aldeacueva, Txotxinkoba eta Gerrandijo kobeetan) mesolitiko eta eneolitiko (brontze-aroa) garaiko animalien ezurrak daude. Eizean arrapatutako animali basatien ezurrik ez da arkitzen aoa eta esku-anka besterik; baiña, etxean ezitakoenik (bei, auntz, ardi eta txakurrenik) bai; auenak bizkar-ezur aiñoko guziak daude koba barruetan, Eneolitko garaikoak badira, bestela, ez. Zer erakutzi dakarkigu zer onek? Auxe: eizean ildako animalien gorputzak ez zituztela osorik leizera ekartzen; besteak, bai (16).

(15) Rev. Munibe, 1967. XIX. 3/4. 192-193 orr. Juan M.ª Apellaniz. Lurrezko ontzi aundieri buruz ona zer saten duan 202 orrialdean: "Es evidente que las formas grandes de vasos con estas decoraciones existen en cuevas sepulcrales... En Kobeaga (Vizcaya) tenemos reconstruida una parte de un vaso mediano de factura similar a la de Las Pajucas..."

(16) Rev. Munibe. 1967. 3/4. 227-230 orr. Jesus Altuna. Ona zer dion animalien ezurreri buruz: "En el presente trabajo se da cuenta de los restos 6seos de mamiferos hallados en cinco cuevas de la provincia de Vizcaya. En algunas de estas cuevas hay niveles mesoliticos y eneoliticos. En otras solo

TXOTXINKOBA, Gizaburuaga'n dago, Bizakia'n. Eneolitiko edo brontze-arokoa. Oso estua da koba eta bizi-leku eskasa.

Emen ildakoak lurperatuta daude eta erreta ere bai. Lurperatutakoak geiago dira erreak baiño. Erre-austsik ez da topatzen iñun, ezur erreak baizik.

Eortzitaoak emakumezko eta gizonezko egiñak geien; umeak, gutxiago.

Amabost txiñtxilikario txikiak (errosario-ale zulodunak), lurrezko beste ontz^ aundia eta irugarren, oso aundia. Beste bi basoen pusketak eta buztiñazatiak erreta (su aundiren batean erreta edo) (17).

Leize batzuek aukeratu dizkitugu aztartu berri diranak eta orrelakoak asko dira, berri eta zaar, Euskalerrietan eta Franko Kantauri Kultura'ko esi-barruan. Esanda daukagu, ordea, txabolak ere izango zituztela leen-gizonak; amar milla urte, gutxiagorik ere, iraungo duten txabolarik ez da sortu oraindik, ordea. Aiek egindako txabolak galdu ziran betirako.

Zenbait izotz-aundi garaietan ez zan giro izango leizeetatik kanpora bizi izaten; baiña, giroa bigundu zanean, ez zan izango bearrezko koba-barruetan irautea, eta orduan aterako ziran beste era bateko lekuetan bizi izateko,..

Orretariko leku bat aitatzen du Carvallo jaunak (18). Berak digunez, Asturias'en (Franko-Kantauri-Kultura'ren esi barruan) Oviedo'ko aldean, La Franca erriko Noriega parrokian, Colombres auzoan aizpe bat dago, bertan, txirla-azal ugari inguruan, gizon bat eortzita.

un nivel eneolitico. Los niveles mesoliticos han dado exclusivamente restos de animales salvajes (ciervo, corzo, sarrio, cabra montes, jabali, zorro, lobo, etc) mientras que los niveles eneoliticos han proporcionado animales salvajes y domesticos. Entre estos se encuentra el ganado vacuno, la cabra, la oveja y el perro. Se observa que los animales salvajes, a excepcion del zorro, que por otra parte ha podido ir por su cuenta a los yacimientos, han dejado solamente restos de mandibulas y extremidades, mientras que los animales domesticos han proporcionado restos de todo su esqueleto, incluida la columna vertebral y las costillas".

(17) Rev. Munibe, 1967. XIX. 3/4. 217-226. Juan M.ª Apellaniz.

(18) J. CARVALLO, *Investigaciones Prehistdricas:* Santander, 1960. 129, 139-148 orr.

Aizpea eguteran dago, Cabra ibaiaren ertzean.

Gorpua 1,40 metroetan eortzi zuten eta lurperatu. Eguzkiaren sorkaldera zuan burua eta ankak sartaldera, aoz iparraldera aizpera begira. Eskubiko matrallezurrak lurpean zituan eta ezkerrekoak zerura begira; kalabera-ezurrean zuloa zeukan artez ebagita, trepanazioa egindako kalabera dirudiela.

Gorputz guzia arriz inguratua zegoan eta sepultura gaiñean agertu ziran sutautz eta lur-beltz-erreak. Sutegi azpian eortzi zuten.

GorDuzkien inguruan zeuden basauntz-iztarezur aundi bat, sukarrizko armak eta lanabesak:

..."onek agertzen digu-dio Carvallo jaunak-erri aien sinistea, ildakoek, alegia, ba zutela eriotzaren erreinoan beste bizitza bat, eta biziak ildakoekin artu-emanetan irauten zutela gero ere... Txabola edo aizpeko lurgaiñean uzten zituzten, sutegiaren erdian...".

Aralar mendiko artzai-txabolak sutegia izaten dute sarrera ondoan, kea kanpora errezago irten dezan, ez bait dute tximiñi-zulorik; eta beste orrenbeste gerta oi zan leizeetan. Etxeak egin zituztenean sukaldea egoten zan etxearen erdian ta sutegia sukaldearen erdian eta kezuloa tellatura irtetzen zuan etxearen ardatzean, Etxe eta sukalde oiek oso esagunak ziran Urraul-Goian, Erronkari, Salazar, Burgete, Lauz, Etxeleku eta abarretan. Urraul'en diraute oraindik orrelako sukalde eta sutegiak: "Brako" etxean, Adoain'en; "Romanena", Elkoaz'en; "Kordobe", Ezkaniz'en; "Sastoya" etxean, Sastoya'n. Kanpaia urre-adarrekin eta kareakin bilduak egiten dira; teillatu goitik agertzen dana, berriz, arriz edo ladrilluz.

Sukaldeak ar-losaz egiñak dira eta batzuek erdi-erdian ar-losa aundi bat izaten dute (19).

Bizi-lekuak (leizeak, txabolak, aizpeak edo geroragoko etxea ) beti edeztian-zear alkarrekin izan dira illobiekin... Etxeak, leizeak eta sutegiak illen-sepulturakin zerikusi aundiak izan dituzte.

Edezti-aurretik onuntz artu-eman oiek gureraiño iraun dute Euskalerrian.

Gai auetan, beste askoetan bezela, Arkeolojia eta Etnolojia batera datoz.

(19) Rev. Munibe. 1966. 1/. XVIII. Luis Peña Santiago-Juan San Martin. 80 eta 83 orr.

# II

# GORPUTZ - ERREAK

II

# GORPUTZ-ERREAK

Beste oitura bat ere agertu zan Euskalerrian, eortzeari buruz, eta auxe zan: Gorputzak erre ondoren, erre-autsak gorde.

Eneolitiko edo Brontze-aroan eta Burni-aroan, agertu zan oitura au.

Erretze ondorengo gordetze ori iru eratara egin oi zuten:

Zulo erdiborobilla eginten zuten lurrean, metro bat zabal eta metro-erdi bat zakon. Zulo oietan alkarrekin arkitu dira lurrezko ontzi-zatiak, ikatsa, autsa, ezur erdi-erreak, sukarrizko lanabesak, aizkora txiki eta abar... (21).

2) Gorpuzkien erre-autsak, lurrezko ontzietan, leize barruetan lurperatu (21).

3) "Baratze" tan lurperatu. Euskalerriko mendietan "cromlechs" antzeko arri-esiak daude ta "baratza" izenekin esagutzen oi dira: Jentil-baratza, Mairu-baratza... Esi orren erdian ontziak daude lurrezko, erre-autsez. Noiz beinka, autsak ontzi gabe. Gipuzkoa eta Naparroa tarteko errietan, baratza etxe-inguruko lurrak dira, etxe ondoko ortua. Baratz izena, berez, eortzi-lekua dezu; gaur, ordea, ortu esan nai du, besterik gabe. Baiña, ustea bada, oraindik ere, aur-launa (plazenta) eta aur-ezjaioa baratzetan eta etxeko istilla-barruan lurperatu bear dala.

Baratza izena ere erabiltzen da Jentil, Intxisu eta Mairu'en se-

(20) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Prehistdrico en el Pais Vasco.* Ekin. Buenos Aires. 1953- 168 orr.

(21) J. M. DE BARANDIARAN, Op. Cit. 177 orrialdean.

putura esateko. Bada Ernio mendian "Perdon-baratza", orturik ez dagoen tokian (22).

Arkeolojiak esaten digunez "baratzak" illobi edo eortzi-lekuak ziran Edesti-aurretik. Eta gaur eguneko Etnolojiak ere beste orrenbeste agertzen digu: Euskaldunen buruetan, alegia, Jentil-baratzak eta Mairu-baratzak ez dirala ortuak, jentillen sepulturak baizik.

Euskalduna kristau egin zanean, sepulturak elizetara eramango ditu lenengo, eta gero, eliza-ondora bere fede berriak ala agintzen ziolako; baiña, baratzak eta etxe-istilla-barrua (etxearen tellatupea), oiek jentil iltzen diran aurrentzat gordeko ditu, usario zaarrari jaraituaz. Gaiñera, kristau-entzat ere etxea eta sepultura (elizakoa) biak alkartuko ditu eta batu, gorputz-bidearen (anda-bidearen) medioz. Bien arteko zilla sortu arazi du. Ez da era bat galdu Edesti-aurreko etxe eta sepulturaren batasunik.

Gorpuak erretzeko oitura eta erreta eortzeko ori, ez zan Euskalerri osoan zabaldu, ertzetan baizik. Zeltikoen oitura zan.

(22) J. M. **DE BARANDIARAN,** *El Hombre Primitivo en ol Pais Vasco.* Donostia- 1934. 94 orr. Nota I.

# III

# TRIKUARRIJAK (DOLMENAK)

## III

## TRIKUARRIAK (DOLMENAK)

Paleolitikoan (naiz Zaarreko, naiz Geroztiko) ikusi ditugu leizeak sepultura biurturik, etxea eta sepultura bat egiñik, eta oitura onek guregan iraundu gaurdaiño.

Leen-gizonak, euskaldunak ere bai, ikasi zuan abereak ezitzen, nola txakur ala ardi eta beia ere. Marizulo'ko kobean (Urnieta'n) arkitu zituzten gizon oso baten ezur guzia txakur eta arkume batenakin alkarturik; beraz, eizetik bakarri ez zan bizi; bazuan artarako artzaintza ere, gizon arrek.

Artzai-aroan sartu zan Euskalerrian oitura berri bat eta auxe da: trikuarrietan gorpuak eortzeko oitura, Portugal aldetik etorria. Eneolitiko edo Brontze-arokoa da.

Colombres'o (Asturias) Arri-landuen garaiko gorpua (Carvallo'k dionez) burua eguzkiaren sorrera aldera du; oiñak, berriz, eguzkiaren sarrera aldera: sortaldetik sartaldera, alegia. Eta triku-arriak ere berdin-berdin daude.

Gutxienez bost arri zabal-aundi beai dira triku-arri bat egiteko: lau daude tente, biñaka bizki dirala eta lau zoko egiñaz (laurak berdiñak) eta bosgarren arri zabala gaiñetik, estalki bezela.

Eguzki-sorreraldeko arria motzagoa izan oi da; zirriztu bat uzten bait du leio baten antzera.

Espirituen leioa esan oi diote zulo orreri Europa'ko zenbait errietan; barruan daudenen espirituak sartu-irtenetan ibiltzeko edo; ofrendak egiteko ere izan leike leio ori, baita gorputz berriak sartzeko ere..." **(23).**

(23) J. M. DE BARANDIARAN, *Homenaje a D. Eduardo Eskarzaga.* Vitoria. 1935. 386-392 orr.

Siniste onek, gizaldietan zear, gaurko egunerarte irauten du Euskaldunen siniskerien artean; zenbaitsuk usten bait dute, bateren bat iltzen danean, espirituaren irteera errezteko, teillatuko teillak kendu edo leioak iriki bear dirala ildakoaren gelakoak.

Teillak kenduta teillatuan zuloa egitea, animari irteera errezteko, leiorik etxean ez zan garaiko oitura izango da ziurki (oraindik ere artzaien txabola leiogabeak dituzu). Baiña, etxeari leioak irikitzen ikasi zutenean, animari bidea eertzeko naikoazan leioa irikitzea. Alaz ere, oituraren bearrez, bakan batzuek teillak kentzeari jarraitzen diote (24).

Gogoan dut oraindik ere, nola, ni an bizi nintzala, Zumarraga eta Urretxua'ko neska mutillak Anzuola'ra joaten ziran,tren-bide ondoko baserri batera, bertako leioaren kristalan zegoen ildako baten erraiñua edo itxura ikustera. Iltzean, ez zioten nunbait leiorik iriki.

Zegama'n, berriz, ildakoen animak leioan egoten zirala gorputza etxetik atera —arteko guztian, esaten omen zuten (25).

Berriro Asturiasko Colombres ballarako gizonera bagatoz, buruezurrean zuloa eginda daukala, ikusiko degu. Zulo ori ill-aurretik edo ildako unean egin zioten, Carvallo jaunak dionez, ertzak aragitu gabe bait zeuden. Zertarako egin ote zioten trepanazioa?

"Jakintsu aztartzaille askoen usteetan, ori egiten zitzaion, ildako espirituari irteera errezteko" (26).

(24) JUAN THALAMAS, *Anuario Eusko-Folklore.* XI. 1931. Vitoria. 40-43 orr.: "Cuando muere una persona (en Ostabat: Baja Navarra), s61o se abre la ventana del cuarto del difunto durante breves momentos. En Lapurdi se abren todas las de la casa, pero se vuelven a cerrar inmediatamente. La costumbre de quitar unas cuantas tejas parece haber desaparecido desde hace bastante tiempo. Pero parece hallar su justificaci6n en el siguiente hecho que nos han revelado: La dueña de la casa Goitchea continuaba viviendo sin la menor esperanza, desde hacia ocho dias... Una noche, aprovechando una breve ausencia de las personas que le velaban, se levanta *y* se presenta delante de las personas que se hallaban reunidas en la cocina... El marido comprende, ayuda a su mujer a volver a la cama, sube al desvan, quita del tejado varias tejas y cuando baja encuentra a su mujer muerta...".

(25) *Anuario Eusko-Folklore.* III. 1923- Vitoria. 108 orr.

(26) JESUS CARVALLO, *Investigaciones Prehistdricas.* Santander. 1960. 140-142 orr. "Lo cual demuestra que esta practica no fue hecha con fines terapeuticos... Si a esto añadimos lo dicho anteriormente de estar enterrado debajo del mismo hogar, con orientacidn determinada, puede suponerse, con

1953 urtean Euskalerriko triku-arri esagunak 340 ziran: oietatik 131 aztertuak eta 209 gabe (27). Arrezkero urteero arkitu eta aztertzen dira trikuarriak; baiña gure lanaren elbururako danen berri eman eta jakitea ez da bearrezko.

Nun dauden triku-arri oiek?

Gure arteko artzaiak udaran ibiltzen diran gaiñetan, berberetan. Artzaiak ez dira aldatu; lengo bide zaarretik dabiltza oraiñ ere. Gaurko egunez bizi diran tokietan bizi ziran Brontze-aroan ere, Edestia asi baiño leen. Triku-arrien gaiñean jasotako txabolik bada bat baiño geiago; triku-arriak txabolak *egkeko* erabilli ere bai .

Kuartango'ko (Araba) Urpide errian dagoen trikuarria da inguru auetako triku-arririk aundiena eta gorputzik geien izan duena: bere barruan eun da egeita amar gorputz zeuden tolesteetan jarriak. Toleste bakoitzean ogeita amar gorputz. 1893'an Apraiz jaunak aztertu zuan (28).

Baiña ez ziran guztiak aiñ beteak egoten, *gvLtxi&go* ere; batzuek utzik ere bai, bertan urre-billa ari ondoren, ondatuta.

Guztiak eguzkiaren sorreratik sarrera jarriak, E-Wra.

Eguzkiarekin zer ikusirik badute, noski.

Mendi-gaillurretako ateetan, gurutze-bideetan izan oi dira triku-arriak eta oitura onetan, beste zenbaitetan bezela, Indoeuropeoen kutsua nabari da garbi. Ona beste sinikeri eta oitura bide-gurutzeeri buruzkoak:

grandes probalidades, que dicha trepanacion pdstuma obedece a fines religiosos, y que era, segun opinion de muchos investigadores, para dejar salir y entrar el espiritu del muerto, que, por continuar formando parte de la familia, seguia en *relacion* constante con ella. Y esto mismo parece que lo da a entender el hecho de que la cabeza estaba echada sobre el lado derecho, dejando, por tanto, a la vista y libre el lado izquierdo con el boquete de la trepanacion...".

(27) JESUS ELOSEGUI, *Catalogo Dolmenko del Pais Vasco.* Zaragoza. 1953-

(28) Op. cit. 237 orri.

Bide-gurutzeetan agertzen dira ildakoen animak (29).

Gorputz-bideko gurutze-bideetan errezatzen oi da, gorputza elizara daramatenean (30).

Lastaira ere bertantxe erretzen da (31). Lastaira da artoaren maluteakin egiten dan koltxoia. Valais'en (Suiza) ere ba zan oitura ori oraindik orain (32).

Ori bera egiten zan Sara'n 1931'an, auzoai ildakoaren alde otoitz egiteko eginbearra gogoratzeko (33).

Arzubie apaizak dionek, lastaira bidegurutzeetan erretzea oirura oso zaarra zan. Benabarroan lastaira erretzen duten biatartean otoitz egiten dute ildakoaren alde (34).

Udakoen alde otoitz-eginbearra aitzera ematea ez omen da lataira erretzearen arrazoia, esaten digu Bonifazio Etxegarai'k, "espiritu gaiztoak desegitea" baizik. Caro Baroja'k erantzuten dio, berriz, lastaita gurutzebideetan erretzeak beste asmo au duala: "ildakoen espirituak iruzurtu eta engañatu, beuren oera biurtu nai izango duten orduan" (35).

Oea erretzen diote eta gaiñera gurutze-bide batean, ainbeste bideekin naastu dediñ.

## TRIKU-ARRIETAN ZER ARKITZEN DAN

Eguzkiaren sorrerari begira daude triku-arriak eta egoera orrek

(29) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Primitivo en el Pais Vasco.* San Sebastian, **1934. 93** orr. Sanjuan-suak ere piztu izan oi dira kurutzeetan.

(30) *Anuario Eusko-Folklore.* **III. 1923-** Vitoria. Meñaka'n (**34** or.), Kortezubi'n (**41** or.), Aduna'n (**74** or.), Oyarzun'en (**78** eta **89** or.), Alza'n (**96** or.), Zegama'n (**110** or.), Arano'n (**123** or-).

(31) *Anuario Eusko-Folklore.* **III. 1923-** Vitoria. Bedia'n (**15** or.), Zenarruza'n (**25**), Meñaka'n (**33** or.), Morga'n (**34** or.), Kortezubi'n (**39** or-), Berriz'en (**45** or.), Deba'n (**69** or., Zegama'n (**109** eta **111** or.).

(32) MARGALIDE LEBONDIDIER, *Cires de Deuil.* Paux. **1958. 24** or.

(33) JUAN THALAMAS, *Anuario Eusko-Folklore.* **XI. 1931.** Vitoria. **46** or.

(34) JUAN THALAMAS, Op. Cit. **9** or.

(35) JULIO CARO BAROJA, *La Vida Rural en Vera de Bidasoa.* Madrid. **1944. 169-170** or.

zer-edo-zer esan nai du gizon-emakume aien siniskerieri buruz. Baiña, bada besterik ere eta ona zer:

Suaren arrasto eta autsak.

Gaiñeko arri zabalean erretenak, era ez berezkoak.

Animalien iztar-ezur eta beste ezur aundiak, lurrezko, lanabesak, kutunak eta margo-gaiak.

Trikuarrien aldamenetan (Itxusburu, Beotegi, Igartza) sutautsa eta errekiñak ugari billa izan oi dira. Sua egiteko oitura ori eta sepultura gaiñetan argia ildakoen alde eskeintzekoa, biak bizkiak dira eta Euskalerrietan gaurko egunez ere eskeintza oiek egiten dituzte. Besterik ezean, lastoa ere erre oi da.

Errekin eta sutautz oiek illeta-ondoko bazkariak ere ekartzen digute burura, dio Jose Migel Barandiaran'ek (36).

Txotxinkoba leizean, lurrezko ontzien artean buztiñ-pusketak arkitu dira oso erreak su-aundi baten ondoan erre balira bezela (37). Su aundia koba barruan egiterik ez dago; kanpoan egin bear. Illeta-bazkariak preparatzeko? Edo illak erretzeko (38). Edo biak batera?

(36) J. M. DE BARANDIARAN, *Homenaje a D. Bduardo Es.karzaga.* Vitoria 1935. 388-389 or. Eta *El Homb. Preh. en el Pais Vasco.* Ekin. Buenos Aires 1953- 158 or.

(37) JOSE M.ª APELLANIZ y ERNBSTO NOLTE. Rev. Munibe, 1967, 3/4. 224 or " ...fragmentos pertenecientes a vasos... 5 gruesos fragmentos de barro cocido probablemente por la presencia proxima de un fuerte fuego...".

(38) J. M. APELLANIZ y ERNESTO. Munibe. 1967. 3/4. 213 or. Hemos observado... rastros de carbon (Cueva de Aldeacueva-Vizcaya) en cierta abundancia. Persisten tambien los rastros de incineracion... No aparecen cenizas; sin embargo, es posible que los restos de carbon... permitan suponer que se ha desarrollado en el interior de la cueva... alguna actividad crematoria con la que pueden estar tal vez en relacion los huesos calcinados. Al parecer esta actividad se extiende a casi toda la superficie de la cueva, ya que los restos de carbon lo muestran asi. Es necesario aclarar que tampoco aparecen pruebas claras de actividad crematoria en la cueva, ya que estos restos de carb6n no se presentan localizados en una zona, sino como dispersos. Tal vez los carbones fueran como esparcidos, aventados sobre la cueva diriamos, en un rasgo o con una intencionalidad que desconocemos".

Triku-arrien gaiñeko arri zabala oparitako aldara ere izan litekean eta ala gertatu zala erakusten omen dute Olaberta (Aralar'en) eta Ezkiregi'ko (Ardaitz-Naparroa'n) trikuarrien estalkiak, erretenak bait dituzte odol-ixurtzeetako egokiak. Olaberta'koak sei ar-losa ditu eta gaiñekoa iru pusketan. Onek erretena du erditik ertzera 1,30 mt. luzean eta 9 zentimetro sakon eta zabal (39).

• * #

Zenbait triku-arrietan gorputzak kuxkurtuta, edo ta belaunak tolestuta, eta lotuta eortzi zituzten. Zergaitik? Beuren sepulturarik aterako ziran bildurrez? (40).

Andaman erriko kultura atzeratuan, gaurko egunez ere, illen gorputzak tolestu eta lotu egiten dira eta eguzki aldera begira eortzi; senideak sepulturatik urrutira alde egiten dute, ildakoaren espiritua ibiltzen bait da gertuan (41).

Oiñak ildakoari lotzeko oitura Euskalerrian ere ikusi izan degu eta aurrerago orren berri emanen degu.

• • *

Leizeetan bezela triku-arrietan ere animalien iztar-ezurrak arkitzen dira; ezur oiek, an jarri ziranean, mamiakin zeuden; ildakoak, nunbait, beuren ibillaldietako, jana eta edana bear. Tankera ortako ezurrak trikuarri askoetan billatu izan dituzte (42).

(39) JESUS ELOSEGUI, Op. Cit. 242 or. (Rev. Pirineos, n. 29, 30. Revista del Instituto de Estudios Pirenaicos. Zaragoza. 1953- "Separata" publicada por el Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais. Publicacion n.° 9)-

(40) J. M. DE BARANDIARAN, *Siete Ddlmenes en la Sierra de Ataun-Burunda.* S. S. 1920. 23 or.

(41) A. ARRINDA, *La Religidn Prehistorica de los Vascos.* Auñamendi.

(42) J. M. DE BARANDIARAN, *Homenaje a D. Eduardo Eskarzaga.* Vitoria. 1935. 288-289 or. Olaberta, Elurmenta, Albia, Luperta, Oiduegi, Ueloguena, Arratzran...

Sepultura gaiñetan argia eta ogia eskeintzea oitura oso zabaldua da Euskalerrietan eta dirau oraindik. Ogia ezezik beste janari asko ere eskeintzen zituzten oraindik-orain; ariak eta idiak elizarra eraman ere... (43).

Ofrendatako eramaten diran janen sustanzia eta barruko gizena animak jaten omen dute. Siniskeri ori guregana eldu da (44). Argia ere bearrezko omen dute ildakoak.

• • «

Triku-arrien erretenetatik,
iztar-ezur eta beste ezurretatik,
sutautz eta errekiñetatik eta
gaurko egunearte eldu diran oitura eta siniskeri zaarretatik
au atera genezake:
gure aurreko artzai euskaldun preistorikoek ere, beuren ildakoai sepultura gaiñetan, ofrenda-eskeintzak egiten zietela, alegia.

Eta au dan au begien aurrean eduki bearko degu, gure egunetako illeta oiturak aztertuko ditugunean.

Orain artekoak gutxi dirala, bada oraindik ezer trikuarrietan. Ona zer:

lurrezko ontzi pusketak,
lanabesak ugari,
kutukak etengabeko sailleetan,
mota askotako edergarriak (kutunak edo),
lur eta mea gorrixkak beuren buruak margozteko...

PAGOBAKOITZAKO TRIKU-ARRIA.

Ikus dezagun zertzuk zeuden triku-arri baten barnean:

Bi "gatzarri", 54 x 19 milimeroko aizkoratxo deundutako bat sukarrizkoa, Ortz bat ertzeetan bi erreten estuekin, artxirri bizi bat,

(43) *Anuario Eusko-Folklore.* III. 1923. Vitoria. 81, 127, 128 or.
(44) *Anuario Eusko-Folklore,* III. 1923. Vitoria. 96 or.

bi zingiñarri (zingiri-kontrakoak), lur-ontzi zatiak, bost sukarrizko azkon-mutur osto-itxurakoak eta iru sukarri landuak...

Pagubakoitza Aizkorri'n dago, Gipuzkoa'ko partean. 1917'an aztertu zuten eta emeretzi gorputz gutxienez zituan bere barnean (45).

Gai oneri buruz ona zer esaten digun Barandiaran'ek:

Triku-arrietan armak eta lanabesak sukarrizkoak (aiz kora, azkon-mutur, aistoak) edo metalezkoak (azkon-mutur, zulakaitz, eskumuturreko eta belarritako brontzezkoak) daude, bai eta kutun, txintxilikario, gatzarri, zingiñarri, ikatzarri, alabastro, jadeita, basurde eta artzen ortz, ezurrezko eta arbelezko txintxilikario, ezur eta adarrezko erastun, arrai-ezurrak ere... (46).

Oietatik geienak espiritu edo gaixoen kontrakoak dituzu.

* *

Kutunak ugari daudela triku-arrietan esana daukagu, baiña kutunak eramateko oitura zaarragoa da Euskalerrietan ori baiño, askoz zaarragoa. Gure mendietan triku-arriak agertu baiño sei milla urte aurretik ere, ba ziran gure artean zenbait kutun-mota. Ara emen batzuek: gatzarri eta zingiñarriak, zulodun muskulluak, basurde eta zaldien zulodun ortzak, txirlak zuloakin eta abar... Sukarrizko aizkoratxoa , lurgorrixkak margotzeko-gai diranak ere kutunen artean sartu litezke... (47).

Triku-arrietan billatutako zingiñarriak eta gaur-egun gure artean erabiiltzen diranak, berdiñak dira: sei alde ditu zingiñarriak oso garbiak, zeru-urdiñ kolorezkoak, eta erdian zuloa. Eusalerrietako emakumeak erabilli oi dute bularren gogortasunen kontrako bezela.

Zinçiñarrien eginkizunen antzekoak izango zituzten, beste lepotik zintzilik aramateko muskullo eta pistien ortz zulodunak ere... Umien

(45) JESUS ELOSEGUI. Op. Cit. 257 or.

(46) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Prehistorico en el' Pais Vasco.* 159 or.

(47) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Primitivo en el Pais Vasco.* 46 eta 91 or.; *Homenaje a D. Eduardo Eskarzaga.* 379, 380, 382 or. TELESFORO ARANZADI. Rev. Yakintza. S. S. 1933- 3. 231 or. JESUS CARVALLO, Op. Cit. 33-34 or.

ortz berriak ateraarazteko basurde, zaldi, eta trikuen ortzak erabilli oi dira gaurko egunez ere...

Lur eta mea ori-gorrixkak (burni-mineralak, alegia) triku-arrietan ezezik Geroztiko Paleolitiko-kobeetan ere agertzen zaizkigu, Lumentxa, Urtiaga eta Isturitze'en esate baterako. Leize oietan billatu diranak, ertzak erabilliaz leunduta dauzate... Beste munduko bizitzarekin ba omen du oitura orrek zerikuzsirik; beste mundu artan ere gorputzak bere apaintasuna bear, nunbait... (48).

Gauza auxe agertzen da emen garbi:

Paleolitikoan ikusten diran zenbait gauza, millaka urte pasata gero, triku-arrien kulturan azaltzen dirala berriro. Ori arrigarri baldin bada, arrigariago da beste au: gauza oiek berberak badirautela oraindik, gaurko egunekan galtzen ari zaigun euskal-kulturan. Millaka urte asko pasa dira bitartean, kulturak igaro dira Euskalerriaren gaiñetik inguruko guztiak; baiña, erria eta erriaren pentsa-moldeak irauten dute etengabe. Inguru guztiak aldatu dira arrezkeroz; Euskalerria, ordea, bere gunetan bat dirau, aria osorik etengabe.

Gure paleolitiko-arbasoen semeak gera.

Azalean aldaketa ugari izan badira ere, barne-muiñetan zer-edozerk segitzen du aldatzeke.

Triku-arri zaarrenari 4.500 urre ematen dizkio Bosgh-Guimpera katalandar jakintsuak (49). Ordutik aurrera, Paleolitiko garaietaraiño, badaude beste millaka urteak, eta bitarte orretan, Auñamendi'ko erria bat izanda Euskalerrietan. Euskalerri orretan baiño leen, oraiñarte esan ditugunak, itz laburretan, ona emen:

Ildakoen beste bizitza batean sinisten zuten.

Eta antxiña-antxiñako leize-erlijioa eta aztikeriak, margoz eta marrazkin kobeetako ormeetan agertzen diranak, marrazkietatik gauzetaara, itzetara eta kiñuetara aldatu ziran, gaurdaiño iraunez (50). An ez daudenak ere eldu dira guregana, aiek beziñ zaarrak.

Gorputzak eta triku-arriak eguzkiaren sorrerari begira egoteak, eskeiñitako ofrenda-eskeintzak, ildakoen gorpuei jartzen zitzaien kutun

(48) J. M. DE BARANDIARAN, *Homenaje a D. Eduardo Eskarzaga.* 380 or.

(49) JESUS ELOSEGUI, Op. Cit. ,295 or.

(50) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Prehistdrico en el Pais Vasco-*Ekin. Buenos Aires, **1953, 132** or.

eta tresnak, janariak eta edariak, triku-arrien sendotasuna, bertan eskeiñitako odol-opariak, bertako sutautsak eta errekiñak, triku-arria artzaien paraje eta txaboletan agoteak, kobeetako sutegien azpien eortzeak eta abarrek, batera artu ezkero, naikoa agertzen digute bazutela gure aurrekoak erlijio eta etxe-kulto bat, eta berori, itxuraz aldatuta bada ere, gure arteraiño eldu dala gaurkc egunerarte (51).

Esandakoa sendotzeko, sendotu bearrik balu, ona beste testigutza bat: trikuarria gizarte baten asmo eta gogoaren erantsuna da. Gizarte orrek beste eriotza ondoko bizitza batean sinisten du, eta senide guzientzat sepultura bat nai du, ilda ere alkarrekin egon al izateko.. .(52)

(51) J. M. DE BARANDIARAN, Op. Cit. 159 or.

(52) J. MALUOUER DE MOTES, *Las Comunidades Prehistdricas Alavesas y sus problemas.* Boletin de la Instituci6n Sancho el Sabio. 1-2. 1957. Vitoria. En Rev. Munibe: 3. 1958. San Sebastian: 226 eta 227 or.

# IV

# GAURKOEKIN KONPARATZEN

## IV

## GAURKOEKIN KONPARATZEN

### AIZKORA

Pagobakoitza'ko triku-arrian arrizko aizkoratzo polita arkitu zuten, eta ori aitatuta daukagu. Aiñ xuxen ere, orixe da triku-arri askoetan billatzen dan gauza bat. Oso txikia izanik lanerako, beste zer-edozertarako izan bear. Lanerako tresna ez bada, zer da? Aztikerietarako zer bat (53).

Aizkora tximisten-kontrakoa dala oso siniskeri zabaldua da Euskalerrietan gaurko egunez ere. Sukarrizko aizkorari "piedra de rayo" esan oi zaio gazteleraz "pierre de foudre" frantsesez, "strahlstein" alemanez eta "oneztarria" euskeraz. "Oñeztua tximistari esaten diote Kortzubi, Forua eta Gernika'ko ibar guzian... Oñeztarria beraz, tximistaren arria degu. Zenbaitsuk usten dute tximista bera, odeietik erortzen dan sukarrizko aizkora dala, sazpi estadio lurpean sartu ondoren, urteero beetik gora estadio bat egiten dula, lur-gaiñean azaldu arte.

Oñeztarria edo sukarrizko aizkora oñeztu eta tximisten-kontrakoa da eta podere ori arrizkoetatik burnizkoetara pasa da, aldatu da. Orregaitik, ikazkiñak beuren txabola aurrean, aizkora aoz-gora jartzen zuten, tximisten gaitzetik txabola gordetzeko.

(53) JESUS CARVALLO, *Descubrimiento de la Cueva y Pinturas de Altamira por D. Marcelino S. de Sautuola.* Santander, 1950. XXV or. "Asi las hachas neoliticas bruñidas tenian origen divino; eran enviadas por Jupiter, entre los romanos y en tiempos de Villanova se las crfa caidas del cielo con el rayo. (Todavia en Castilla y Andalucia las aprecian como tales grandemente y las guardan celosamente como un tesoro, convencidos de que mientras las tengan no caera el rayo en su casa)".

Aizkorri'ko Zabalaitz kobaren atakan, zegamatar artzai batek (54) brontzezko aizkora topatu omen zuan lurpean aoz-gora, gaurko egunez artzaiak eta nekazariak jartzen dituzten era berean.

Siniskeri auek zaarrak dirala bistan dago eta Euskalerritik at zabalduak. Ez da gai oneri buruzko idatzi zaarrik palta (55).

Ona sukarriakin zer ikusirik duan beste gertaera bat ere:

Martzoaren 15'an, urtea 1725, Calahorra'ko Gotzaitegian Inkisizioko Epaitegiak aztikeri eta siniskeri batzuek debekatzen zituan eta ona auetakoen bat: "Legenaren kontra euskerazko itzak esaten dituzte: Vasasua, Itxasua, ozanera, dukaelen, semearken, semeorobano, Juantxenago" eta burniakin bost aldiz sukarritik txispak aterata gaitzari esatzen dizkiote..." (56).

Tudela'ko menditxo batean (el Montecillo izena duena) karaitzen artetik sukarri gorriak egertzen dira. Emakumeak eta umeak oe-

('54) J. M. DE BARANDIARAN Y COLBORADORES, *El Mundo en la Mente Popular Vasca.* Zarauz. 1960. 195 eta 196 or.

(55) A. ARRINDA, op. cit. (Barandiaran aitatuz: XH'eunkiko Rennez'ko Marbode Gotzaiak onela idazten du: "Qui caste gerunt hunc a fulmine non feriuntur / Nec domus aut villa, quibus affuerit lapis ille / Sed neque navigio per flumina vel mare vectus / Turbine mergetur, nec fulmine percutietur...". (Arrizko aizkorak tximista eta arriskuetatik gordetzen ditu bai etxea eta bai itsas-ontzia). Eta Sevilla'ko San Isidoro'k dionez: "Hanc (ceraunia-arrizko aizkora) adversus fulgurum opitulari fertur, si credimus. Dicta auten Ceraunia, quoniam alibi nos inveniuntur quam in loco fulminis ictui proximo": Tximistetatik gordetzen gaitu arrizko aizkorak eta tximistak jotako lurretan bakarrik arkitzen oi dira.

(56) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, op. cit., 196 eta 197 or: Ona itz aueri buruz zer dion A. Irigarai'k Rev. Munibe, 1971, LV. 491 orrialdean: "VASASUA es la linica palabra segura, significando *herpes;* Ias derhas estan lastimosamente transcritas y trabajo les doy a los aficionados a etimologfas para su interpretacion. Es muy facil que sea otra la reparacion silabica real: -AICHASU -AOZ -ELENSEME -ARCUENSEME: palabras que hablan de *fuego de pedernal,* de *boca,* etc. Hay muchas frases magicas y brujeriles en vasco en los Iibros que tratan de supersticiones: Pierre de Lancre, Jeronimo Ayala, Juan de Luzuriaga, etc, pero se ha perdido el caudal de los tiempos en que los historiadores romanos califkaban de sagaces hechiceros » los Vascones... Quedan solo residuos, como: "In nomine Patri / Aragoako Petrika / agora agora Valenzia / Joan da gure gaitz guzia / ...". O aquella: "In nomine... Aragoako Petrika / Gaztelako Janikot / Ekidak ipordian pot / Akerra goiti! ".

rakoan eramaten dituzte berekin ames txarretatik libratzearren (57).

"Paleolitikotik asita, Europa guztian, aizkorak zer-ikusi ugariak izan ditu beti Eguzkiarekiko siniskeriekin. Tarteka Eguzkia eta Trumoia alkarren artean naasten ziralako edo, nola Grezin bezela ala Euskalerria'n ere, sukarrizko aizkorak tximistarriak zirala uzten zuten eta tximisten kontrakoak (58).

## EGUZKI-LORA EDO KARDO-LORA.

Bada gure artean fximistan kontrako beste erremedio bat ere, eguzki-lorea, alegia. Eguzki-lore do karda-lore, bi itz auekin esagutzen da Euskalerriko *mendi* gaillurretan sortzen dan lore apal au, lurrari eantzita egoten bait da. Eguziaren antza badu.

Ikulluen ateetan jartzen dira tximista eta beste *g&kz* askoren kontrako, bai Salvatierra'ko (Araba) luraldeetan (59) eta beste toki askoetan ere. Geok, geure aurtzaroan bildu izan ditugu orrelako eguzki-lorak Lazkano'ko Urbaundi mendian eta Enpaundi baserriko ikullu-ateetan ikusi ere.

## BESTE KUTUN BATZUEK.

Baziran Donostia'ko San Telmo museoan, 1962'an, beste zenbait *tximista.-konm.ko* kutun ere. Itsasoko muskulluak dira, Naparroa'ko Aginaga ballaran, Trinitate mediko egaletan arri-eginda daudenak,

(57) PEDRO ARELLANO, *Anuorio Eusko-Folklore.* III, 1923, Vitoria, 194 or.

(58) RODNEY GALLOP, *LOS VOSCOS.* Madrid, 1955,181-1,82 or.

(59) JOSE MARIA AZKARRAGA, *Anmrio Eusko-Folklore.* XV, 1955. San Sebastian, 178 or.

(60) A. ARRINDA, op. cit., 228 or.: En el estante de "Objetos de practicas y creencias populares del Pais Vasco", en el Museo de San Telmo de San Sebastian —año 1962— existe un ("Cardo Larragasta" con el mim. 3-320, donativo del pueblo de Lecaroz (Navarra) "usado en distintos puntos con diversas supersticiones y creencias"). Y ademas una "Karda Loria" (Carlina Acaulis) ( = flor del cardo) "tximista kontra" = contra el rayo. Cabeza de cardo de Aizkorri (Caserio Eribaichiki-Oñate).

eta bertan dagoen ermitara erromes dijoaztenak bildutakoak (61).

Ate-gumtzeak, Erramu Egunean bedeinkatutako ereñotzakin egiñak eta Kanddario eguneko argizari-bedeinkatu-tantoekin. Tximistak kontrakoak aiek ere (62).

Azkonar-anka eta trikuen narruakin egindako kutu a . Sorgiñen kontrakoak (63).

India-gaztañekin egindako beste bat (64).

**ZINGIÑARRI.**

Pagogaitza'ko trikuarrian bi zingiñarri arkitu zituztela esana daukagu. Aizkorri mendiko Gorostiaraan trikuaarian, beste bat eta Aralar'ko Igaratza'n beste iru, eta abar... (65).

Aipatutako San Telmo Museoan bada (1962'an) (num. 2964) "Zingiri-kontrako arriya", gaur eguneko etnografiatik bildua.

Barandiaran'ek bere Etnoloji-laboratorioan badu beste zingiñarri bat, Ataun'go Josefa Ignazia Munduate'k emana. Beronek zionez, au-

(61) A. ARRINDA. op. cit., 229 or. (num. 3.341). "Muloscoa fosiles: Rinchonella decorata (Braghiopoda batoniana...). Terebratula numismalis (Brachiopoda diasica) y otras especies. ("Fosiles recogidos por los aldeanos que acuden a la ermita de Trinidad en el monte del mismo nombre en cuyas laderas se hallan dichos fosiles y hay la creencia que quien los lleva esta preservado del rayo. Monte de la Trinidad, Valle de Aguinaga, Navarra").

(62) A. ARRINDA, op. cit., 229 or. ("Ate Gurutze": Cruz de puerta. Protectora contra rayos, tempestades, etc. Caserio Santa-Kutzi-Zar, Tolosa"). Y otros elementos mas como un laurel bendito el Dia de Ramos con gotas de cera bendita en Candelaria (donante de Fuenterrabia) (num. 2.410).

(63) A. ARRINDA, op. cit., 229 or. (num. 3-059). "Azkonar-anka, pata de teion. Amuleto..." (num. 2.410) "Piel de erizo" que se coloca en alsunos pueblos de Navarra como protectora contra la accion de las brujas". (Colegio de Lecaroz).

(64) A. ARRINDA, op. cit., 229 or. (mim. 3-060) "Castafia de Indias". Amuleto, XVIII, usado antes por el Sefiorio de Vasconia. (Donante Juan de Cortaberria-Oñate).

(65) A. ARRINDA, op. cit., 230 or. "Podemos tambien encontrar alli un "zingiñarri" donativo de D. Miguel de Urreta de Lasarte, dice la nota: (del Museo): (mim. 2.964) "zingiri kontrako arriya" Amuleto vasco contra el mal de pechos de mujeres. Procede de Ia etnografia actual.

(65) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADOUES, op. cit., 190-191. JESUS ELOSEGUI, op. cit., 229 or.

*trekoie* entzuna, zingiñarri ori arbasoetatik zetorrela eta *iamiliko* emakume guziak erabilli zutela, *izu.ga.niko* indar eta birtuteak zitulako. Badu beste bat ere Zarauz'en bildua (66).

### ARRI-IKATZA

Azabache arri-ikatza da, eta orrelako arri-ikatz zulodunak asko arkitu izan oi dira triku-arrietan. Gaurko egunez ez da arri-ikatzik erabiltzen kutun bezela; baiña, ordez egur-ikatza sartu oi da kutuuetan, beste zenbait gauzekin. Kutuna, *zotiotxo* bat da umeari lepotik ezartzeko edo gerrian *gordetzeko* da, sorgiñen begizkoen kontra. Trikuarrietako arri-ikatza egur-ikatz biurtu zaigu gaur; ikatz ori Larunbat Santuz bedeinkatutakoa bear du, Erramu egunez bedeinkatutako ereñotz edo erramukin batera, Kandelario eguneko argi zaria eta belar bereiziak. Baita *este-zilh* ere. *Oietzaz* gaiñera *Bbanjelioen itz* batzuek ere bai, noiz beinka izan oi dituzte kutunak. Guzti auek *1924'an* oitura ziran Zegama'ko errian (67).

Gauna'n (Araba), berriz, Ebanjelioko itzak bakarrik, umeak paketzeko (68).

1936'an Olaberria'n *(Gipuzkoa)* geuk ikusitako oitura zan gizonezko eta emakumezkoak elizara kutun *billa* joatea. Kutunak Ebanjelioko *itzekin* egiñak zeuden, besterik gabe. *Aizkorri* eta Aralar mendietako artzaiek Olaberri'tik eramaten zituzten ganaduentzako kutunak eta zintzarrietan gorde, ertzak zintzarriari zanpatu ondoren, kutuna galdu ez zediñ (69)-

### ZINTZARRIAK.

Kutunak zintzarrietan gordeak *ikusi* ditugu; baiña zintzarriak

(66) J. M. DE BARANDIARAN y *COLABORADOII.ES,* op. cit., 191.

(67) *JOSB A.* GORROCHATEGTJI y JOSE A. *AVLACAMA, An. Eusko-Folklore.* IV, *1924,* Vitoria, **102** or.

(68) SATURNINO P. DE ONRAITA, *An. Eusko-Folklore.* IV, *1924,* Vitoria, **137** or.: "**A** los nifios para que tengan buen genio, les ponen "kotun", el cual consiste en un *papelho* impreso que contiene parte de los cuatro evan*gelios* introducidos en un estuche de carton y tela de varios adornos...".

**(69)** *Anuorio de Eusko Folklore,* **1955,** XV, San Sebastian, **120** et **165** or.

ere badu berezo zerbaiten indarra. Gizadietan zear, Europa osoan erabilli izan oi dira txintxarriak aztikerietarako. Edezti-aurreko gizonak ere erabilli oi zituzten brontzezko "tintinabula" deritzaten txintxarriak (70).

Aizkorri eta Aralar'ko artzaiak kutunak gordetzen zituzten zintzarri eta yoaletan, gaitzetik animaliak libratzeko; indar ori berbera zuten leen-gizonen "tintinabulak" ere.

Ona bein Bizkai'ko erri batean gertatua: Bazan Muxika'n azti bat Jose Uriarte izenez eta Pepe Etxandi gaitzizenez. Bazuan azti onek ikasle bat Axangiz'en, Ruperto Aurre, Gernika inguru guztian aztikerietan ibiltzen zana. Beiñ batean, Ruperto onen bei bateri "begizkoa" egin zion bateren batek eta zintzarria puskatu begizkoaren indarrez. Berbera aztikerietan oso ikasia egon ez, eta Pepe Etxandi'ri dei egin zion laguntza-eske. Etxandi'ko beiari "begizkuena" egin ondoren, sendatu zan aberea. Gertakizun oneri buruz onela zion Ruperto'k: -Beiak zintzarria izan ez balu, ezan sendatuko.

Oitura auekatik edo asiko ziran Urkiola'ko (Bizkaia) San Antonio'ren elizan abereen zintzarriak eta yoaleak bedeinkatzen. Gerora Urkiolako zintzarriak ura bedeinkatzeko indarra ere bazuten eta ur ori ematen zaie ganadueri gaitzetik libratzeko (71).

Baiona'ko elizetako prozesio-gurutzeak zintzarriak dituzte eta Phi-

(70) J. DECHELETTE, *Manuel D'Archeologie prehistorique.* II, 1910, Paris, 304.

(71) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, op. cit., 192-193. "Parece ser que el pueblo ha ampliado la virtud de las esquilas bendecidas en Urquiola (Santuario de San Antonio), considerando bendecida tambien el agua que en ellas se introduzca. Asi, hace cuarenta años, recorrfa los caserfos de Ataun y de otros pueblos de Goierri (Guipuzcoa) un mendigo que llevaba en la mano una de esas campanillas que en cada casa hacia llenar de agua. Esta era recogida... y se daba a beber a los animales domesticos... Todos los años, por el mes de Agosto, recorren cinco vecinos de Cortezubi (Vizcaya), provistos de un esqui!6n todas las casas... Al llegar a una... la persona que se encuentre en ella ha de presentarle una jarra de agua. Ellos derraman esta en el esquilon, del cual vuelven a echarla en la jarra... tres veces... Desde entonces es esta considerada como bendita y sirve para rociar los animales de la casa y los comestibles...". Kortezubi'ko mendi batean dago Santimamiñe'ko leizea leen-gizonen marrazkiekin eta aztikeriekin. Orduko kutsurik ez da galdu, nunbait...

lippe Veyrin'ek dantzaren anketako txintxarriekin konparatzen ditu, gaitzak aiza eta aldentzeo indarra bait dute bai batek eta bai besteak (72).

Suiza'ko Dei Grigioni Kantoian, Martzoaren 21'an, Udaberriari agur egiten, ateratzen dira gazteak kalera, bei-yoale aundiak gerrietan dituztela. Beste orrenbeste gertatzen omen da Ticinio Kantoian ere Epifani egunean. Berri auek 1963'an Davos'ko eliza katolikoaren koajutore zan Oto Mauri apaizak eman zizkidan. Ituren eta Zubieta'ko Tunturroak datozkidate burura; auek ere yoaleak bizkar eta gerrian loturik dabiltza, iñauterietan, erri batetik bestera dantzan (73).

Gai oneri amaiera emateko Zuberoa'ko oitura bat ekarriko degu Otsaillan gizonezko utseen billerak izan oi dira bertan. Ganadu-buru ainbat "ebanjelio" artzen ditu bakoitzak etxerako; kutunak, alegia. Eta gaitzik iñork badu, bertako kanpai-azpian gorputz-zati eria sartu eta bitartean kanpaia astindu.Gaitza sendatzeko ez omen da erremedio oberik. Beste oitura ere badute billera aietan eta auxe da: Gizonezko bakoitzak bere etxeko ganaduen isatzetik illeak ekarri, denak pilloan jarri, su eman eta dantzan ekin suaren inguruan... (74).

## ORTZAK.

Triku-arrietan ortzak arkttu izan oi dira sarri eta oietako zenbait, zulodunak dira, lepotik zintzilik eramateko modukoak. Zalantzarik gabe ortz oiek kutunak ziran gaitzeetatik eramaillea libratzeko.

Gaur eguneko Euskalerrietan ere badiraute oien antzeko oitu-

(72) PHILIPPE VEYRIN, *Recherche sur l'art populaire basque.* Rev. Gernika (Bayonne) **1947 I- 59** or.

(73) A. ARRINDA, op. cit., 121-123 or.

(74) JUAN THALAMAS, *Anuario Eusko Folklore,* **XI, 1931,** Vitoria, 82-**83** or. "Amplio chaleco de piel de cordero... pantalon... cubierto con un camis6n blanco, gorro conico de medio metro... coronado de vistosas plumas... De la punta del capirote... cintas multicolores... amarrados... en la espalda y cintura cuatro cencerros de descomunal tamaño... armados de una especie de crin de caballo... avanzan por las calles en dos filas, produciendo, mediante movimientos de cintura y espalda, un acompasado y bronco cencerreo...".

rak. Llodio'n eta Larrabezua'n (Bizkaia), ortz berriak aterazteko, triku eta basakatuen ortzak jartzen dizkie umeeri kutuntxo batean leporik zintzilik. Bedia'n, berriz, zaldi-ortza jarri zion emakume batek bere umeari (75).

Beste oiturak ere badira gure artean, umetxoen lendabiziko ortererortzeari buruzkoak. Suari eskeintzea da bat; eta Mari Tellatukoari eskeintzea beste bat. Zer itzekin egiten dan esana daukagu aurrerago, lan onen asierako orrialdetan. Baiña, zenbait alditan, Mari izenakin "Coccinella Septempunctata" esagutu izan oi degu ere. Ona Coccinella onen izenak gureartean: Mari gona gorri, Marigorringo, Matxin gorringo, Mariñela gorri, Malo gorringo, Mariana gorri, Amona manta gorri... (76).

Umeak giñala, Lazkano'ko errian (Gipuzkoa) Coccinella eskuan artuta onela abesten genion:

Amandre gona gorri,
zeruan ze berri?
Zeruan berri onak
oraiñ eta beti.

Ormaiztegi'n, Lazkanotik zortzi kilometrora, illargiari esaten zaizkio bertsoak, onela:

Illargi amandrea.
zeruan ze berri... eta abar.

Ortzak eskeintzen zaizkie bai suari eta bai Mari Telletukoari: biak dira etxekoak, eta jainko txikiak. Baiña, oiekin naastean agertzen dira Coccinella eta Illargia... alkarren artean izenak aldatuta ere bai. Gonagorri da Coccinella eta Yonagorri da Mari Sorgiña ere. Siniskeri auek zaarrak diranez, denboraren poderioz, naastu egin dira alkarrekin... Gauza bakoitza bere maillan jartzen bada gure artean lanik asko Etnoloji gaietan bezela beste gai askoetan ere (77).

(75) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, Op. cit., 180-181.
(76) JULIO CARO BAROJA, op. cit., 184 or.
(77) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, op. cit., 182-187 or.

# V

# ETXE-BIZITZA EUSKALERRIETAN

## V

## ETXE-BIZITZA EUSKALERRIETAN

Leen-gizona Euskalerrietako leize eta aizpeetan bizi izan dala arkeolojiak milla tokietan agertzen digun gauza da. Baiña, andik kanpora ere, bizi izanik da egur eta buztiñezko txaboleetan, auen arrastorik guregaiño eldu ez bada ere.

Leizeetan sutokia kobaren erdian zegoan, atari aldera eta Euskalerriko zenbait etxeetan ere bai gaurko egunez (Naparroako Errault, Erronkari, Salazar eta beste zenbait errietan) liburu onen lenengo kapituloan esan degunez aizken lerroetan. Naparroa'n ezezik Bizkaia'n ere ba zan oitura ori (78).

Brontze-aro edo Eneolitiko garaian indoeuropeoak ere etxeak, gela bakar batekoak, sutegia zuten erdi-erdian (79)- Zulo bat zan guztia, lur-gaiñean egiña.

Ikazkiñak eta artzaiak ere izan oi dituzte beuren txaboletan, atari alderago bada ere.

• # •

Gure aurrekoak lenengo izan ziran eiztari.

Geroago, Brobtze-aroan, artzai.

Geroago, nekazari edo lur-laborari.

Mendiak ematen zizkieten abereak arrapatu; geroago aiek ezi, aietatik al zitunak. Ezin zitunak eizez arrapatu eta orra gure aurrekokoa artzai izanda ere, oraindik eizerik utzi gabe.

(78) J. M. DE BARANDIARAN, *Anuario Eusko-Folklore,* XI, 1931, 71 orr.
(79) R. GALLOP, *LOS Vascos.* Madrid, 1955,17.5 orr.

Mendiak ez ditu abereak bakarrik; baditu igaliak eta frutuak ere berez sortzen diranak. Oien biltzea ere gizonaren lana zan. Biltzeakin naikoa zuan asieratik; gerora, ordea, biltzea bakarrik ez zan naikoa eta aziak ereiten ikasi bear izan zuan jateko. Orrela asiera eman zion nekazaritzari; artzai izateari era bat utzi gabe; beeko erriberetan ez bazan, beintzat. Nekazariak ez dio artzantzari era bat laga; geienetan biak batera erabiltzen ditu: artzanta eta nekazaritza, tarteka eiztari dala.

Naaste-borraste au etxeen izenetan nabari da oraindik ere. Etxe izena erabiltzen da, baita borda izena ere.

Berez borda artzaiaren etxea da. Edo ta ardientzako txabola. Bordak bee-gañean egiñak daude eta gela bakarra da, brotz-arokoen antzera.

Geroago egin zituzten nekazaritzarako etxeak; asko, borda izanak. Orrelakoak ditugu: Itzeko-Borda, Idiarren-borda, Martin-borda, Trukeneko-borda eta abar Vera-Bidasoan (Naparroa) (80).

St. Esteban edo Dohozti Hasparren inguruan dagon erri txiki bat da. Etxeak. baserri edo borda dute izen, beuren soroen erdian daude edo bestela landa eta belardien erdian edo inguruan egon oi dira. Etxeak-dio J. M. Barandiaranek-badituzte ardientzako "bordak" eta gaur eguneko etxe asko leenago bordak ziran erri onetan. Esate baterako "Argainborda" baserriak argi asko agertzen digu leenago borda zala, borda bait da aurreragokoa baserria baiño. Ala-moduz Iruitborda, Ithurburuko-borda eta Mendiburuko-borda ere. Baiña, baserri edo etxe biurtutako bordak ere bear izaten du bere borda bereizia eta orrela Argainbordak ba du bere Argainborda'ko borda... (81).

Be-barrua bakarrik dituzten etxe-bizitzak bordak zirala eta dirala esan degu eta zer zitan borda ez ziran etxeak? Caro Baroja aitatuko det berriz ere:

Beste motako etxeak arrizkoak leen maillaraiño, lenengo bizitzaraiño, alegia, eta andik gora zurezkoak... Tipo au izango litzake baserritarren etxe-bizitza, ganbara bear bait dute etxe-bizitza gaiñean laboreak eta belarra gordetzeko... Badira ere gure artean "telletxeak" eta

(80) J. CARO BAROJA, *La Vida Rural en Vera del Bidasoa.* Madrid, 1944, 10-11 orr.

(81) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, op. cit., 20-21 orr.

"ormaetxeak". Orrek esan nai digu bazirala teilla eta ormagabeko etxeak ere. Teilla ordez, arbela, egurra, adarrak, edo zotalak zituztenak. Paretak, berriz, "ormaetxeatan" ormak ziran, arrizkoak alegia; besteetan, ordea, lurrezkoak mortero eta urre-adarrekin egiñak (82). Ez dira urte asko oraindik, Salazar ibarreko zenbait elizek (Naparroa' n) dorreko teillatua zuten zurezkoa, pago-espalez egiña. Neronek ikusiak nituan.

Arritzekoa da orain ere artzai-txabolak eguzkiaren sorrerari begira egotea, txiku-arriak zeuden bezelatsun (83) eta Dohosti'ko etxeaurreak dauden antzera. Dohostian "sola" edo "etxesola" lur-gaiñeko bizitza da eta goikoa, bakarra ura, "selauru" ("solairu" Gipuzkoa'n), belar-ondu eta beste ale guztientzako. Etxesolan, berriz, eskaratza dago sarreran eta aurrerago sukaldea, aldamenean "sotoa" etxerako ardoa gordetzeko; etxe-aurrepartetik "ganberak" edo gelak; atzepartetik "barrutia" edo ikullua ganaduentzat. Etxe berrituetan, berriz, goiko "selauruko" sortalde-partetik daude ganberak eta atze-partetik belar onduentzako toia. Etxeetako teillatuak bi alde dituzte eta biak berdiñak. Sukaldea etxeko orma-aldetik dago eta zabala da, leio batekin. "Supazterra" paret baten kontra dago. Azpitik "tola" du, burnizko-txapa alegia eta atzetik, paretaren kontra, beste bat, "sugibelekotola". Azpiko tolaren gaiñean bi burni, "suburdiñak", eta auen gaiñean, batetik bestera, "subarra" edo "Burdin-barra" erregarri dan egurrari euzteko. Erretzeko egurrak badu beste izen au ere: "itxindia". Sukaldean badira eserlekuak eta maia, denak zurezko. Baita "ohaska" edo orro-maiaketa ogia erretzeko labea (84).

Ona oraiñ esan Goyerri giputxaren baserria gutxi-gora-bera nolakoa zan eunkt onen (XX) asieran. Nere osaba Jose Mari Albisu Sarasola, lazkautarra zan. 1890 urtean jaioa eta bere aoz eta idatziz jaso ditut ondoren datoztenak:

Baserri normal batean, kanpotik sarreran, etxe-atarian, liñarria arkituko degu. Liñarri orren gañean jotzen zuten eunezko soiñekoak egiteko liñoa, eta jo ere, liño-mazoakin jotzen zuten. Aurreraxeago,

(82) J. CARO BAROJA, op. cit., 10-11 orr.
(83) JUAN ARIN, *A. de Eusko-Folklore,* XV, 1955, Vitoria, 121 orr.
(84) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, op. cit., 21-22 orr.

sarrerako atea. Atalburuan egurrezko gurutze txiki bat josita. Erramu Egunean bedeinkatutako arramuarekin egindakogurutza. Gaiñera bota Ostegun Santuz, Jaunaren ondoan egondako kandela tanto batzuek, eta Zapatu Santuz ekartzen zan ur-bedeinkatuarekin buzti. Urtero gurutze berri bat jarri bear Maiatzeko Santa Kutz egunean.

Sarrerako ate onez gaiñera badira beste bi ate ere: bata ikullu atea eta bestea mandioko atea.

Sartu gaitezen lenengo ate ortatik, ikulluko atetik. Ate-atzean akulluak eta lurrean, uztarria. Ezkerreta gero beste ate bat: sukaldeko ate. Sukaldearen parean, etxea aña luze, ikullua. Ikullu eta sukaldearen biitartean egongo dira nekazari-erremientak: sega eta sega-potoa, itaiak, lastoa mozteko epaia, laia, atxurrak, aizkora eta abar... Oien ondoan ganadu-janak.

Goian, lenbiziko solairuan gordetzen dira laboreak: gari, babarrun eta ganaduari emateko beste aleak.

Ezkerreko atetik sartuta sukaldea dagoela esana daukagu. Aurrez-aurre, orman sutokia. Zabaldu ez ditezen suak, izaten dira su-burniak, eta, barruan, eltzeari euzteko eltze su-burniak (85). Orma zaarrean auspoa suari aize emateko, talaburnia, talomantenue, talo-ola, burrutzia, sartagiak eta krisaillua. Suaren atzetik su-atzeko burnia erdian tala-burnia eukitzeko txapaldatxo baten egon oi da. Tximiñiko kanpai-ingutruan pertz-oria eta pertzotia, tupiñak, almaiza eta almaiz-eskua kandeleruekin batera. Sulkadeko paretatik duala atea etxe-kanpotik, labea, eta !abe-atakaren ondoan labe-endaia labetik ogiak ateratzeko satar-endaia labeko sorua garbitzeko.

Eskubi aldeko paretan dago orromaia; orman zintzillik iriñaulkia eta baia iriña pasatzeko orromaiaren barruan. Orrotu era gero, orromaiaren sorua garbitzeko burniari matarrazkia deitzen zaio. Beste or-

(85) ARMANDO LLANOS, Munibe, 1971, 2-3, 335-340 pags. Morillos en yacimientos alavese Edad de Hierro... Son piezas de barro cocidos para el hogar... V s. antes de Cristo...". "El hallazgo claro de *hogares centrales* en las viviendas de Oro (Murgufa) y Henayo (Este de Vitoria), nos hace inclinarnos a considerar estas piezas como las primitivas...". Morillo oiek, lurrezkoak orduan, dira gaurko gure baserrietako su-burniak. Bide batez esaten digute, orain bi milla ta bosteun urte ere etxe-bizitzak sutokia gelaren erdian zutela, kapitulu onen asieran esan degun bezela.

man dago zizallua, apaltxoekiko armario txiki bat, eta apaltxo oietan daude egurrezko kutxara eta sardetxoak, egurrezko txaliakin batera, eguerdiko egozkaria jateko. Solairutik zintzilika kaiku eta esne-pertza, baita zeziña eta urdai zati aundi bat ere. Suaren inguruan aulkiak.

Lo-gelak sukaldetik du atea. Oiak beuren azpiak sokazkoak dituzte eta gañean txurikiñezko lastaideak; goikaldean, gurutzea. Ondoan, kutxa eta kutxa-barruan, kutxatilla...

• # #

Etxeak izugarrizko garrantzia du Euskalerrian. Bere inguruko arazo eta gorabera guztiak etxearen iraupenari begira daude jarrita; geiago bait da etxea nagusi bakoitza baiño. Seme, edo alaba nagusiak, etxe osoa jasoko du, beste senide guztiak aldamenera utzita. Etxe osoa esaten degunean etxearekin batera beste guztiak artzen ditula esan nai degu: etxe-orde, borda, baratz, soro eta mendiak, eurakin dauden aberastasunak ezezik... Azkenik, sepultura ere bai.

Bai, sepultura ere etxearen zati inportantea da.

Izen-abizenak ere etxeak ematen dio euskaldunari.

Nagusi eta mayorazgo ez diran senideak beti izango dute txoko bat bai etxean eta bai sepulturan: etxeko sepulturan, alegia. Baiña, etxea eta bere izate guztiak nagusiaren izenean jarriko dira, etxeak beti osorik iraun dezan.

Zergaitik ote?

Etxea da lurra (eutzigarri eta oiñarri dan lurra) eta estalpea, eliza eta sepultura, illen eta bizien arteko lokarri. Guztien alkartasuna etxeak egiten bait du (86).

Millaka urteetan euskalduna borda eta baserrietan bizi izan da; kaleratu danean, bere kaleko etxeak beste mendiko arren izaerak galdu ditu. Kaleko etxeak, geienetan, nagusi batenak dira eta euskalduna bizi da maister. Errez aldatzen dira, ez bait da be-oietan sendi guziaren jarraipenerako aterperik billatzen. Errez erosi, errez saltzeko. Ez dira

(86) JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN, *Mitologia Vasca.* Madrid, Ed. Tauro, 1950, 55-56 orr.

ez eliza eta ez sepultura. Baserriak ez ziran, ordea, orrela eta gu baserrieri buruz ari gera lan onetan, euskal-baserrieri buruz.

Ogeitamar urtetik ona sekula gertatu ez dana ari da gertatzen euskal mendietako baserrietan, eta ona zer : uztutako zenbait etxeetan erdaldunak sartzen ari zaizkigula, muskulluaren barnean "ermitañoak" sartzen diran bezela. Etena nai dezutenok, orra etena oso osorik: kultura euskaldun batek alde egin, atzerrikoa sartzeko. Baserriak eutsi badio euskerari eta euskal gunari, euskaltasunaren muiñaren leku izanik...

Gure etsaien garaipena ortik elduko zaigu errezen eta ziurkien. Baserriak bere artan iraun duan artean, andik jetxi da kalera. etenik gabe euskal orroa, euskal legamia. Euskararen eta euskal-pentsakeraren gordelekua baserria izanda gizaldiaetan zear. Baserriak galtzean, ardo zaarraren upel zaarrak galtzen zaizkigu betirako. Ardoa aurrerantz ere izango da, ardo berria, "solera" rik ez du izanen, erdalduna ez bada. Lagunak eta ardoak, zaarrak obeak. Baserriak ere zaarrago eta euskalkutsu geiago...

Gau illunean sartzen zait gogoa
gau illunean sartuta Euskalerria...
Tunel beltzetik irterakoan
esagutuko ote degu gure Erria... ?
Basoetako euskal umeak
etxetik kanpo
sekulako...
Itzik gabeko erria
izango ote geran laister,
bildur naiz bildur.
Euskeraren gorde-leku muiñean
sitsa sartu da
erratsaldean...
Sitsak jango du euskal aria
erdalerri biurturik
Euskalerria.
Ill-kanpaiak jo ote digun,
bildur naiz bildur.

**Lei2eak** ez zuan tximiñirik etxe-bizitza zanean. Ezta Aralar, Aizkorri ta beste euskal-mendietako txabol eta bordak ere. Leen euskaldunentat leiza eta illobia batera zebiltzen. Gerora, beste oituren artean, triku-arrietan illak eortzeko oitura artu zuten, txabolen inguruan (triku-arri zaarren gaiñean eralkitako txabolarik ez da palta gure artean gaur ere)...

Gure gaurko egunetan, edeztian zear bezela, etxea (bizi-lekua) eta sepultura (eortz-lekua), biak alkarrekin bat egiñik daude Euskalerriko oituretan. Lorenza Oñederra'k, Iziar'ko Eguzkiza-baserriko alaba, eta Deba'ko kalean bizi danak (X-1972), berak 68 urte ditu, onela esaten zidan:

—"Aur-launak (plazenta) eta aur-galduak (abortuak) istilla-barruan eortzi bear omen dira...".

Istilla-barruan, etxearen babesean, tellatu-azpian lurperatu bear dirala, alegia, bataio-gabeak, jentillak, jentil-garaian egiñ oi zan bezela. Arkeolojia eta Etnolojia adoz datoz eta biak berriro alkartzen dira, bien artean millaka urte izan arren tartean.

# # #

Kristautasunak illobiak elizara eta toki bereizietara eraman bazitun ere, etxe bakoitzari illobi bereizi bat emango dio, sepultura bana etxe bakoitzari. Ori asko ez dala elizako sepulturatik etxera, biak alkar lotuko ditun lokarri bat, zill bat, eratuko du: gorputz-bidea, alegia.

Euskaldunen buruetan bat iraundute beti etxeak eta sepulturak.

Carlos IIFak 1786'an sepulturak elizetatik aterako zitun; baiña, ez zituzten urrutira eraman: elizaren babesean, eliz-ondoetan sortu zituzten eortzlekuak edo zimitirioak eta orrela diraute oraindik zenbait Euskalerriko erri txikietan. 1882'an beste lege batek erritik kanpora (kiloraetro-erdi gutxienez) bota zituan kanposantu guztiak.

Illobiak kanpora bota bazituzten ere, eliz-barruan gelditu ziran leengo sepultura zaarrak edo yarlekuak (fuesas, erderaz Naparroa'n):

etxe bakoitzarentzat bat, etxea saltzen zanean, sepultura ere saltzekotan.

Edezti-aurreko leize prehistorikoak etxe-bizitza, eliza eta sepultura, guzi ori, batera izan oi ziran. Euskalduna leizetik bordara eta bordatik baserrira pasa zanean ez zituan leizeko oiturak galdu; etxe berrira aldatu baizik. Etxea izango zaio eliz eta sepultura. Etxeak alkartuko ditu biziak eta illak alkarrein. Gizonaren egunak laburrak dira; iraupena nai. Euskaldunari iraupen-griña etxeak betetzen dio: ildakoak etxearen sua beardute gauez, etxetik ez bait dute erabat alde egiten...

Louis Colas'ek, bere Le Tombe Basque liburuan dionez, Benabarre'ko Bizkaye errixkan, askoren artean sepultura bat ikusi omen zuan izen-buru onekin:

"Icy gist GRATIANE Maistraise de Mendiburu: 1684. Icy gist Joannez Irigoin maitre de Mendiburu. 1684". Graziana Mendiburu'ko etxekoandrea eta Joannes Irigoin, Mendiburu'ko nagusia, senar-emazteak, alkarrekin zeuden 1684'tik onera. Mendiburu'oak, irureun urteen buruan, an tomba artan eortziak izan ziran, guztiak alkarrekin irautearren batean (87). Errazu'ko (Naparroa) eliza-aldamenean kalostra dago eta bertan etxe bakoitzentzako illobiak, etxearen izenakin : ez dira persona bakoitzenak, sendi guzienak baizi.

Famili bakoittzak bear zuan etxe bana eta tonba bana. Zergaitik, ori? Aurrekoak etxean gurtzen ziralako: etxea aurrekoen aldeko elizkizunak egiteko eliza zan. Famili bakoitzak eliza bana; famili bakoitzak bait ditu bere aurrekoak, bestienak ez diranak. Gureak. gure etxean gurtu bear ditugu; bakoitzak bere etxean. Orregaitik Euskalerriko baserrietan baserri bakoitza sendi bakar batentzat bear zuan izan. Gerora, oso berandu, sortu zan bi famili etxe batean izateko oitura. Leenago, bi etxeren artean lur-zatia bear zan. Gerora, orma lodikote bat ere izan oi da bi basarrien muga; baiña, orma tellatuaren gaiñetik bear zuen agertu, bi etxeak ondo bereizteko. Etxeak elizak izanik, eliza bakoitzak bere santu bereiziak zitun (etxearen aurrekoak, alegia)...(88).

(87) RODNEY GALOP, op. cit., 182 orr.

(88) BONIFACIO ECHEGARAY, *Significacidn juridica de algunos ritos funerarios del Pais Vasco.* San Sebastian, 1925, 44-46 or.

Orain, ildakoak etxetik kanpora eramanak daude, leen elizara eta andik kanpora illobietara, zimitirioetara, tonbeetara; baiña, elizan gelditzen da aurrekoen sepultura edo yarlekua; orregaitik etxe bakoitzak bear zuan tonba bat eta yarleku bat elizan bertan etxekoen aldeko elizkizunak egiteko Eta esan degun bezela, etxearenak dira bai bat eta bai bestea (89).

# • •

Etxea, illobia eta elizako sepulturak, irurak egiten dute bat, baserritarren artean beintzat, orain urte gutxirarte. Irurak dira oñordeko dan orrentzat eta extea salduko balitz irurak batera saldu bearko litzazke. Ona zer dion Bonifazio Etxegaray jaunak arazo oneri buruz:

Oiñordekotza ez zan baten onerako bakarrik, etxearen eta sendiaren onerako baizik. Ez zan oiñordekotza senide guztien artean banatzen, apaizgintza etxean beteko zuanaren alde izango ziran etxea eta illobia... "Erlijioak agintzen du (dio Ciceron erromatar ospetsuak) etxeko ondasunak eta etxeko eleizkizunak biak batera izan ditezela beti seme nagosiaren gaiñ bera bait zan etxeko apaiza. Berengaiñ zeuden etxeko eleizkizunak eta auxe zan, izan ere, bere eginbearrik estuena; etxeko ondasunak bide bat ziran eginbear au bete aal izateko...". Erromatarren antzera jokatu izan du beti euskaldunak gai onetan, eta orregaitik, etxea eta bere ondasunak artzen zituan mayorazgoak senideko guziai illetak atera bear zizkien, eskritura eta testamentuetan bereiziki esan oi dan bezela. Esan degunez etxea eta elizako sepultura bat dira eta batera saltzen dira. Sepultura ori lengoaren eredu da, bera ere illobi bait zan illobiak elizeetatik atera aurretik. Gauzak orrela dirala, ez da arritzeko Bizkai'ko Fueroak agintzen dutena (XIX. Tit. XX):

Oiñordeko ez diran etxeko seme-alabek ba dutela, alegia, eta eskubide utsez, etxeko illobian leku bereizi bat eurentzako (90). Illobian ezezik, etxean ere bai, ezkongai dirauten artean.

(89) J. M. DE BARANDIARAN, op. cit., 58-59 orr. Sara'n, esate baterako, Lezabeako Thombac, 1839, eta Harizmendi'ko Yarlekua, 1824, daude. Eta Etxearenak dira bai bat eta bai bestea.

(90) BONIFACIO DE ECHEGARAY, op. cit, 27-30 orr.

Baserritarren arteko illeta eta ondorengo bazkariak zer kalte zekarzten etxera geok ere iusi izan oi degu: illetak, onrak, bederatziurrenak, jaieroko eskeintzat, urtebetzeak eta abar; gaiñera, elizikunik ez bazkaririk edo bazkari-antzekorik gabe. Oiek danak ez zituzten apaizek asmatu. Euskaldunen oitura zaarrak ziran: oiñordekoen eginbearrik larriena eta etxeko ondasunak aurrekoen onran eginbear ziran elizkizunetako (etxe-barruan egiten ziranak, alegia, Ciceron'ek gogoratu digun bezela) ziran. Bearkizun ori euskaldun oiñordekoen biotz-muiñean iraun du nundik eta norakoa zan aaztuta. Orretariko gastuai neurria jartzeko aginduak badaude Euskalerrietako Fuerotan ere. Azken aldi auetan oitura oiek galdu dira kristau-liturjia aldatu dalako; baiña, badira erriak beste bidetik etorri zaiena. Galdera batzuek egin dizkiegu Euskalerriko (euskeraz egiten dan erriai, alegia) gauz aueri buruz eta emen erantzun batzueñ aurreratzea egoki deritzait. Illeta ondorengo bazkariak zergaitik kendu diran galderari, onela erantzuten dute: (Apaizak berak kendu dituzte)

Arizkun'en: " gastoagaitik ".

Amezketa'n: "gastu aundia zalako".

Aya-Ataun: "Asko kostatzen zalako".

Ugarte: "gasruagaitik: ondamendia zekarrelako segitzek".

Mungia: "kostosoa zalako".

Arrona: " Itxusi zitzaidalako ".

Zestua: "Alperrikako gastua zalako".

Zumaya: "gastuagatik eta gauza egokia ez zalako, familia naigabe aundian zegon unean alako bazkari bat".

Etxebarria: "liturji berria atxeki arru eta kastua kentzearren".

Erri geienetan oitura auek aldatu dira kristau-liturjiarekin batera. Egia esan, oitura oiek leengo mami zaarra galduta zeukaten, oro bat ez bada ere. Baiña, kristau-aurreko oitura izan arren, kristautasunaren tolesteetan gureraiño eldu da. Guk esagutu degu; baiña, ondoreentzako galduta dago era bat. Euskaldunari gai onetan, beste askoetan bezela, Kristautasunak lagundu dio bere pentsakerak gordetzen, bere nortasunari euzten...

Leizeetako kultura, indoeuropeoen kultura, erromatarren kultura, kristau kultura euskaldunen buru eta biotzetik pasa dira, bere aragi biurtu ditu, eta batak ez du bestea jan, osotu baizik.

Leizeetako kulturaren arrastoak (Franco-Kantauri-Kulturarena,

marrazkiena alegia) MARI sorgiñaren inguruan dabiltz. Kristautasunak ez du aztikeri eta sorginkerri onartu gezurrak diralako: imajiña menperatzea ez da gauza bera menperatzeko naikoa. Baietz esaten digu aztiak eta ala sinisten zuten gure aurrekoak; baiña, kristautasunak erakutzi zigun gauzak eta beren irudia ez dutela alkarrekin zer ikusirik. Gauza bat menperatzeko gauzari berari eldu bear diozula eta ez bere imajiñari bakarrik. Gauzari, izateko zerbaitek eragiten diola, baiña, zerbait ori ez dala gauzaren irudia. Gauzaren bat ba da, beste gauza batek eragiten diolako da; ez, ordea, gauza beraren imajiñak.

Aztikeria eta sorginkeria ukatu ondoren, Kristautasunak MARl'ren aginduak onartzen ditu eta osotzen.

Ona MARI'ren aginduak:

Gezurrik ez esan.
Lapurretarik ez.
Arrokeririk ez.
Emandako itza bete bear da.
Gizakumeari begirunea bear zaio.
Gizartean alkarri lagundu bear zaio...

Badu pekatarientzako zigorrik ere:

Gezur, lapurkeri eta arrokeriaren gaia artzen du MARI'k pekatuen zigor-gai Ukatu edo dezuna geitu badezu, egia ez dan kantidadea kenduko dizu. Orregaitik esan oi da: "Ezari emana, ezak eraman". Zuk, dituzula, ez dituzula esaten badezu, (oiek dira "Ezari" emanak) ukatutakoak MARI'k kenduko dizkizu. Zuk ez dituzula, badituzula esango bazenduke, baiezko oiek ere kenduko dizkizu. Orregaitik esan oi da Bizkaia aldean, "ezagaz" eta "baiagaz" bizi dala MARI: ezetik eta baitik.

Lapurkerietan beste orrenbeste egin oi du.

Bere menpekoak nun zebiltzeten galdetu zioten beiñ Mari'ri:

—Elgoibar'en, ezaren billa.

Eun ardi zituan artzaiak, berrogeita amar zituala esan zualako, amar ardi kendu zizkion "ezagatik"...

"Ezai emana" ez da bakarrik gezurragaitik esaten; auzoarteko beardan laguntzarik ematen ez dalako ere esan oi da...

Kristautasuna guzi auen osagarri edergarri eta gordegarri izan da. Besteak mitoloji utsak, kristau euskaldunen buruetan babesa izan dute gaurdaiño.

Neolitiko edo brontze-aroan Indoueropatarrak eldu ziran Pirinee-ingurura eta aiekin batera zenbait oitura berri eta pentsakera berri. Eusskaldunak garai artan eiztari eta artzai ziran. Beuren artaldeekin batera Frantzia'n zear joan oi ziran eta bertako erriekin artuemanetan jarri. Aietatik edo Animismoa sartu zan, aztikeririk utzi gabe, gure mendietan: Izadieraen indar guziak anima zeukaten, bakoitzak berea. Mari'ren mitolojia ez zan galdu, aberastu baizik: koba zulo barruetan Mari animalia ba zan, andik kanpora sua, illargia, ekaitza da. Lau-zaldiko burdian ikusi izan oi dute zerugoitik, bere ondoren arri-erauntsi, euri-jasa eta berealdiko ekaitzak sortaraziaz... Bi seme ditu, Atarrabi eta Mikelats; bata ona eta gaiztoa bestea, Mari berbera onaren eta gaiztoaren iturburu balitz bezela. Gaitza berak egiten ez badu ,Mikelats'ek egingo du; edo bestela, Odei'k eta Eate'k. Badute indoeuropeotarrak Odin izeneko trumoi guzien jainko txikia zeruzapaian tanborrada guztiak jotzen dituna asarre badago, Mari bere lau-zaldiko gurdian bezelatsu. Odin jermaniarra Euskalerrira etorri zanean Odei izena jarri zioten, Mari'ren serbitzuan.

Suak ere badu bere anima eta ortzak naiz gatza eskeintzen zaio gure artean: ortzak, ortz berria eskatzeko; gatza, berriz, ekaiztak eta tximistak alde eragiteko. Baiña, tarteka sua eta Mari naasian dabiltza. Suak dira San Joan egunekoak ere eta badute Eguzkiaren kultoarekin zer ikusi, eguzkiaren jabetasuna San Joan inguruan agertzen bait da. Suakin batera naasten dira San Joan goizeko intza, arbola-lizarra eta loreak. Guztiak dituzte beuren birtute bereiziak. Suakin zer-ikusia du Olentzerok (Olentzaro, Onentzaro, Orantzaro, Orontzaro, Onentzago Oranzaro, izen guzi oiekin esaguna da). Olen eta Noel bi izenak dituzte letra berdiñak; Olen-aro Noel-aro'tik ez dago oso urrutian. Biak dira Gabon garaikoak eta antz apur bat ere badute. Badu Olentzero'o moskor-fama gure artean; baiña fama ori oso berria da eta euskaldun ezjakiñak jarria gaiñera. Olentzero moskorra da bat eta Olentzero mokorra beste bat. Mokorra da arbol-enborra, Gabon Gabean sutan jartzen dana zenbait euskaldun kristauen sukaldeetan. Badu beste izenik ere: Gabon-zuzie G,abon-mukurra, Gabon-subilla. Enbor edo zuzi edo mokor orrek etxea, ikullua, abereak eta

baztar guztiak bedeinkatzen ditu eta gaitzetik libratu... Olentzaroañ asten da eguzkia goraka eta Olentzaro-mokorrak bere su beroakin eguzkiaren garaipenaren esperantza eta itxaropena degu. Kristautasuna ez du Olentzero'rik ill, bataiatu besterik:

Emen eldu gerade
berri on batekin
gure enbajadero
Olentzero'rekin.
Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
amar txerri gazte.
Sayaski ta solomo
makiña bat este,
Jesus jaio dalako
konsola zaitezte.
Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intenziuarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dala
laisterka etorri da
berri ematera.

Kristautasunean itsatsita eldu da gureraiño Olentzero; elduda beintzat. Oraingoan Kristautasunak alde egiten badigu, ez nitzake batere arrituko Olentzero eta beste milla gauza galduko balira. Oñeztarri eta tximisten inguruan dabiltzan siniskeriak ere ordukoak edo dira, indoeuropeotarren garaikoak...

Animismo orrek munduko indar guztieri anima bat ezarri ziela esana daukagu: eguzki, illargi, ibai, mendi, baso-oian, odei, itsaso, oñeztar, ortzi, iturri eta abarreri... Kristautasunak erakutsi zigun euskaldunoi indar oiek ez zirala jainko, ez aundi ta ez txiki berezko indar batzuek baizik, berezko legeak zituztenak eta lege oietan zebiltzenak. Lege oiek ez zirala utsetik sortu, ezta iñuzu baten eskuetatik ere. Bazala

oien gaiñetik beste Izaki bat, ziran guztien iturburu eta oiñarri dana. Egi oietatik sortu ziran jakintza guztiak: munduko legeak aztertzeko atea Kristautasunak iriki zitun Euskalerrietan. Eta ori, oitura zaarrak era bat galdu gabe, eta or nun eldu diran gureraiño Kristautasunaren tolesteetan.

Indoeuropeotarren ondoren erromatarrak ditugu gure artean. Aiekin batera edo etorri ziran ainbat oitura eta gauza. Kipula, porru, sartagi, ari, arto, tolare eta beste zenbait izen gauzekin batera, erromatarrekin etorriak dirudite. Izenak beintzaf berdiñak dituzte gauz oiek an eta emen. Siniskeri eta oiturak ere etorri ziran bat baiño geiago. Eta kapitulo onetan Ciceron erromatar jakintsuaren itzak gogoratu ditugu oñordekoen eginbearreri buruzkoak: senidetarteko guzientzat elizkizunak atera bearra, alegia, eta orretarako artzen zitula bai etxea eta bai etxearen ondasun guztiak.

• • *

Etxean egiten ziran eleizkizunak eleizetara pasa ziran Kristautasunarekin batera, eleizetako etxeko-sepultura edo yarleku gaiñera. Etxea eta sepultura eta beaieri zegokien elizkizunak, aldatu eta banatu zituzten bata bestetik alderatuz; baiña eten osorik ez zan gertatu etxea eta ,yarlekuaren artean. Or daukagu lekuko eta testigu ,gorputz-bidea... Berak alkartzen bait ditu sepultura eta etxea. Etxetik illobia atera zuten egun artan, sortun zan bien arteko lotura zill luze baten antzera: gorputz-bidea, alegia. Etxe bakoitzak badu elizan sepultura edo yarleku bereizi bat, etxe bakoitzak berea, eta bien arteko bide bakar bat. Ildakoak beti bide bakar batetik joan bear dute etxetik illobira. Bide eten-eziña eta bere bearkizunak sortzarazten dituna.

Orixe da erromatarren "iter ad sepulchrum" eta erromatarren garaietik onera eldu zaiguna. Eta bide oiek Elizak errespatatu egin ditu. Gaur eguneko baserritarrek galdu dituzte bide oiek aurrerapenaren erreztasunak dirala, bide.

Etxeak eta sepulturen artean eten osorik izan ez dala gorputz-bideak agertzen badute alde batetik, bestetik badira oitura zaarrak ere beste orren beste agertzen dizkigutenak. Au gertatzen da Kristautasunak bere bearkizunak esartzen ez dituanean, esate baterako, bataio

gabe il diran aurren illobiratzerakoan: aur-launak eta aur-galduak etxeko istilla azpian eortzi bear zirala esan zigun Lorenza Oñederra'k Deba'n, eta orrenbeste ere esaten digu Gallop jaunak:

—"Itchasura" deritzan istilla-barruko lurra sagaratua da. Bertan aldatzen oi da erramua eta maiz eortzen bataio gabe il diran aurtxoak (91).

Istilla-barruan edo etxe ondoko baratzeetan (baratza, ortua da) eortzen dira umetxo jentillak (bataio-gabeak, alegia) eta "baratzak" ziran Jentillen eta Mairuen (moroen) illobiak...

Oraindik bada geiago ere etxearen sagaratasunari buruz, ez bait da etxe inguruari (ez eta zimitiriori) iru bira eman bear eten gabe... Beste orrenbeste erakusten digute beste aoitura auek: Animen egunetan etxearen leioetan, kanpotik, janariak eta argiak jartzen dira. Oitura auek triku-arrien garaikoak dituzu, gutxienez (92).

Eunka asko urte ditu Kristautasunak gure artean, baiña gorde ditu gure artean zenbait etxe-sepulturaren siniskeri era-bat ondatzeke.

Etena, orain bertan gertatzen ari da sekulako.

* * #

Mitolojia darabilkigu itz-bide eta ez det liburuaren atal au bukatu nai mitoloji berria aitatu gabe.

Mitoa zer dan? Esana, izanik gabekoa; alaz ere, gizonari eragiten diona. Izena eta izana ez dira berdiñak eta ez dira, nai ta naiez, beti biak alkarrekin joaten. Esan utsak, oiek dituzu mitoak.

Gure aurrekoek mito asko zituzten eta mito oien aurka jasotzen dira ausarki (ez da orretarako askorik bear) zenbait gure arteko euskaldun. Baiña, mitoaren aurka jokatzeko, mito berriz bete gaituzte Oietako mito bereize bat, eta mitoloji berriaren oiñarrian dagoena, auxe da:

"Kristautasunak galdu du Euskalerriaren jatortasuna".

Itzak utsak.

(91) R. GALLOP, op. cit., 117 orr.

(92) J. M. DE BARANDIARAN, *Homenaje a D. Eduardo de Eskarzaga,* 391 orr.

Euskaldunen jatortasuna zer da? Zertan dago jatortasun bereize ori? Liburu onen aurreneko orrialdetan esandakoa esango dizut berriro. An oar batean dakarrena, orain oarretik at eta euskeratua esango dizut:

(Camile Jullian, euskalzale-jankitsu-atzerritarraen aoz esango dizut, esan ere, Rodney Gallop'ren liburutik artua, 10'en orrialdean:)

—Euskaldunak igaro dituzten aro eta kultura bakoitzetik, artu dute kendueziñezo oitura bat gutxienez, euren mami biurturik... Orregaitik Euskaldunak preziorik ez du antxiñako Europa'ren oiturak ikasteko, aien oitura zaar guztiak, euskaldunetan mamiturik dirautelako, oraindik bizirik Pirenee-mendi inguru guzian...

Kristautasunak, euskaldunen betiko aberastasun ori geitu du, ez bait ditu oitura zaarrak desegindu, Euskal-Mitolojiari buruzko eta Etnolojiari buruzko liburu guztiak agertzen duten erara. Eta emen, irakurtzen ari zeran onek ere, bere orrialde guztietan agetzen dizun bezela, prehistoriako oiturak eta siniskeriak ere gure artean diraute Kristautasunarekin batera, milla urte baiño geiago. .

Guri kanpotik begira dauden jakintsu oiek diotenez, euskaldunok gauza berria sortzen baiño abilidade geiago omen degu, besteenetan ikusitakoa, geure-geurea egiten.

Artu ditzagu bi gauza "euskaldun" ejenplo bezela. Ona txapela eta pelota; biak esagun-esagunak dira mundu zabalean eta biak dabiltza munduan zear "euskaldun" txartela gaieñean daramatela. Baiña, ez dira sortzetik euskaldunak. Orrek, ordea, euskaldunari ez dio keskarik ematen, kanpokoak izanda ere bere mami eta bere giar biurtuko ditu. Eta gaur, euskaldunak dira. Sortzetik euskaldunak ez ziralako gure bizikeratik kendu bear ote dizkitugu... ?

Kristautasuna ez zan sortzetik euskaldun izango; baiña urteen poderioz bere odol, bere mami eta bere giar biurtu izan du. Beste kultura guziekin gertatu zaiona gertatu zaio Kristau-kulturakin ere: bere berea egin zun "Euskaldun fededun" esaerak bazuan izaera ere garai batean. Badakigu ez dira la mundu zabalean berdin fededun eta euskaldun ez ziran fededunak ugariak bait ziran; fededun ez ziran euskaldedunak ordea, gutxi.

Euskaldun izateko fedea galdu eta kendu bear aldegu gure erraietatik, kanpotik artuta daukagulako? Ori ala bada, gure aurreko izatea osoa kendu bearko degu: akerrak, aztikeriak, animismoa, oitu-

rak, anima eta mamia; aizkenik, euskera berbera ere bai. Euskaldunen biotza, guna eta muiñak kendu eta beste zer edo zerekin bete.

Kristautasunari buruz bi joera-klase ikusten dira argi ta garbi gutxienez: aurrera begiratzen dutenak dira batzuek (itzez beintzat) eta auek euskaldun-kutsurik ere ez luteke nai, barrua osorik uztu eta urrutietako sentzu materialistaz bete. Bestea, berriz, akelarretara jo Hitler ez zan euskalduna, baiña Alfred Rosenberg maixu zuela, bide orixe berbera auskeratu zuan: Alemani zaarreko (arioak edo indoeuropeotarrak, alegia, euskaldunekin aibat artu-emanekoak) oitureta jo eta Kristausunari eraso, aginteak emanten zion indar guztiekin...

Fededun ziran euskaldun aiek, munduan zear, gizonki jokatuta, izen ona jaso zuten, batez ere Ameriketako lurralde guztietan. Kristautasunak lagundu zion eiskaldunari gizonki eta iatorki jokatzen...

# VI

# ILLETAK EUSKALERRIAN GAURKO EGUNEZ

## VI

# ILLETAK EUSKALERRIAN GAURKO EGUNEZ

Gaurko egunez egiten diran illetak esagutu nairik, 1970 urtean, Abenduaren lauan, 353 apaiz-parrokoeri galdera batzuek bialdu nizkien, euskeraz eta euskera bizirik oraindik diraun errietara. Bilbo'ra ere bialdu nituan ale batzuek.

Ona nere orduko eskutitza:

Debatik, Abenduak 4, 1970.

Lagun biotzekoa: Laguntza baten eske natorkizu. Euskalerriko oitura zaarrak oraintzen betirako galtzen ari zaizkigu. Bildu ditzagun alditugunak, era bat galdu baiño leen. Batzuek oraintsu galdu berri dira; beste batzuek gal-bidean jarrita; baiña gure esku dago oraingoz guzti oien aztarnak jasotzea... Gaur elizako zenbait oiturari mintzo nagokizu. Zure erantunak, ezezkoak edo zuk ez dakizula esatekoak balira ere, bere garrantzia badute.

Nere esker ona aurretik bekizu.

Irurogeita-amabi erantzun artu nituan: % 20. Eunetik ogei asko da, ez bait dute orrelako galdera-sailleri eunetik amarrek ere erantzuten.

Auek zirari galderak:

*Galdera-erantzunak.* Erria... Parrokia... Probintzia...

*Sepulturak:* Sepulturarik ba al da elizan? *(Bay)* ala *(Ez).*

*Bai;* Sepultura etxearena da ( ) ala familiarena ( ).

Etxearena bada: etxearekin batera saltzen al da? *(Bai) (Ez) (Ez Dakit).*

*Ez:* Leenago ba al zan? *(Bai) (Ez) (Ez Dakit).*

Etxearena? ( ) Familiarena? ( ) Zergaitik kendu ziran? Banku berriak jartzeko?. ( )

Beste arfazoirik?

SEPULTURETAN EZER EGITEN AL DA? ( )

*Bai:* Ofrendak: ogia? ( )Aragia? ( ) Argizaria? ( ) Besterik? ( ) Erresponsoak? ( ) *Bai:* Zer? noiz? Nola?... Ez: Noiztik ez?...

*Ez:* Leenago egoten al ziran? ( ) *Bai:* Ogia? Aragia? Argizaria? Besterik? Liburu zarrak ezer badakarte? ( ) Erresponsoak? ( ) Noiz kendu ziran?... Zergaitik?...

GURUTZE-BIDE edo GORPUTZ-BIDEAK :

Etxetik elizara gorputzak eramateko bideak: Ba al da eliza orretan? ( ).

*Bai:* Zer izen du?... Zer egiten da gurutze-biderik pasatzen bada: erresponsoak errezatu? ( ) Zeiñek? (...Gorputz-bidetik kanpora pasa ezkero, sortzen al da andik aurrera bertatik pasatzeko esubiderik? ( ).

ETXERO SEPULTURAK:

Bataio gabe ildako umeen sepultura: Etxe-ondoko baratzan al da? ( ) Etxeko tellatupean? ( ) Orain ez bada, leenago bai?...

SEPULTURAKO ARGIZARIA :

Argizaria oletan biltzen al da? ( ).

*Bai:* Egurraren izena: Argizariola? ( ) Bildumena? ( ) Beste izenik?...

*Ez:* Leenago bai? ( ) Zer izen?... Zergaitik kendu zituzten? Bankuak jartzeagaitik ( ) Beste arrazoirik?...

OBIRATZE-ONDORENGO BAZKARIAK :

Ba al dira? ( ) *Bai:* Zeintzuk bazkaltzen dute alkarrekin: senideak bakarrik? ( ) Beste aide edo familikoak? ( ) Bazkaririk ez dutenentzat izate al da ogia ardoakin? ( ) Zer izen du ogi ta ardo emate orrek: Karidadea? ( ) Beste ize-

nik?... Bazkaria asterakoan otoitzik egiten al da? ( ) Zeiñek?... Zer?...

*Ez* : (aurreko galdera gu ziak eta ondoren): Zergaitik kendu zituzten? Liturji berriagaitik? ( ).

ILLETA-EGUNEKO OFRENDAK :

Egiten al dira? ( )*Bai:* Zerofrenda: ogia? ( ) Aragia? ( ) Argizaria? ( ) Dirua? ( ) Besterik?... Sepultura gañetan? ( ) Zeiñik egiten du ofrenda: etxekoandreak? ( ) Etxeko aideak? ( ) Edozeiñek? ( ).

*Ez:* Leenago bai? ( ) (Baiezkoa bada erantzuna, aurreko galdera egiten dita eta ondoren): Zergaitik kendu ziran?...

SEGIZIOA:

Egiten al da? ( ) *Bai;* Zer ordenatan joaten dira? Gizonak aurretik? ( ) Emakumeak ondoren? ( ) Gizonak zer ordenetan dijoz?... Ofrendarik eramaten al da segizio aurretik? ( ) Zeiñek?... Zer? Besterik ba al da gai oneri buruz?...

BESTE OITURA BATZUEK:

**1.** Gorputzen oiñak lotutzen al dira? ( ) Nola?... Zergaitik egiten dute lotura ori... Orain lotzen ez badira, leenago bai? ( ) Nola?... Zergaitik?...
2. Nagusia ildakoan, erleeri esaten al zaie berri ori? ( ) Zer itzekin?... Orain ez bada, leenago bai?...
3. Tellatuko tellak kentzen al dira iñor etxean ildakoan? ( ) Zergaitik?... Orain ez bada leenago bai?...
4. Kuartoko leiorik irikitzen al da iñor ildakoan? ( ) Zergaitik bai?... Orain ez bada, leenago bai?...
5. Eriotza gertu dagoen seiñaleak zeintzuk dira? Zakurren intziri tristeak edo?...

*Parrokiko liburu* zaarretan gai aueri buruzko zerbait ba al da?...

ZURE OARRAK:

Zure firmekin izenpetu, mesedez, eta Parrokiko seilloa erantsi.

Ona erantzuna emandako erri edo parrokiak:

Aduna, Alkiza, Alzaga, Amezketa, Anoeta, Arama, Arizkun, Arriaran, Arrona, Asteasu, Astigarribia, Aulestia, Aya (Ataun), Aya (Zarauz), Axpe, Azkoitia, Bedarona, Bedia, Berastegi, Berriatua, Bolibar, Bolibar-Ugazua, Deba, Ea, Eibar (S. Andres), Elduayen, Elizondo, Ernialde, Errazu, Errezil, Etxebarria, Ezkioga, Ezkurra, Fika, Gatika, Gautegiz-Arteaga, Gellano, Goiaz, Huarte-arakil, Ibarrangelua, Idiazabal, Igeldo (S. S.) Irun-Behobia, Irun-Ventas, Irun (Santa Gemma), Ituren. Itxaso, Labayen, Larraul, Larrino (eta Aozaraza: bientzako erantzun bakarra), Lazkano, Leiza, Iekeitio, Meñaka, Morga, Mundaka, Mungia, Mutiloa, Oikia (Zumaya), Olaberria, Orio, Oyarzun, Tolosa, (Prantzizkotarren eliza), Tolosa (Santa Maria), Ugarte (Gip.), Usurbil, Zalla, Zenarruza, Zestua, Zizurkil, Zumaya.

Naparroa'tik 8, Gipuzkoa'tik 45 eta Bizkai'tik 19-

Liburu onen eranskin batean dijoaz erri edo parroki bakoitzaren erantzunak.

Galdera-Erantzun oietan erabilli degun ordena berbera erabilliko degu orain emen ere.

## SEPULTURA

Zer diran esana daukagu: leizeetan lendabizi, etxeetara geroago (triku-arrietara ezezik) eta, Kristautasuna dala bide, etxeetatik elizetara...

Carlos IIFak atera zituan illobiak elizeetatik; baiña, leengo sepultura zaarrak elizetan gelditu zir?n, etxe bakoitzentzako bana. "Sepultura" edo "yarledu" dute izena euskal errietan; eta euskera galdu duten errietan berriz, "fuesa" esan oi diote elizetako illobieri.

Etxea zan eliza eta etxean egiten ziranetatik, zenbait gauza sepultura edo yarlekuetan egiñ oi dira.

Euskalernetako eliza guztietan ziran sepulturak gorputzak eortzeko edo sepultura gaiñetan elizkizuna illen-alde egiteko.

Guk egindako galderai erantzundakoetatik ona zer agertzen zaigun:

72 parrokietatik Irun'go Ventas, Behobia eta Santa Gemma parrokiak (93) ez dute sekulan sepulturarik izan, irurak oso berriak diralako. Beste guztiak (Azkoitia ez beste guztietan) orain sepulturarik ez badute ere, leenago izanak dituzte. Ona Azkoitiak zer digun:

—"Lengo zarrak esaten dutenez, Parrokian, atzeko ate inguruko zoruan dauden arma-arri bat edo beste, antxiñako sepulturak omen dira; baña ez dakit ziur ori orrela danik. Antxiñatik daude sepulturak San Jose eta Aingeruguarda'ko eleiztxoetan. Berrogeitaka urte dira aurtxo bat Irizartarrak illobiratu zutela Aingeruguarda'n. Beraz, ba dira elizatxo oietan etxearen edo sendikoen sepulturak".

1971'an oraindik sepulturak dituzten erriak:

Naparroan: Ezkurra, Ituren, Labayen eta Leiza, baztartu xamarean bizi diran erriak dira; danen arteko bidea bat dute. Huarte-Arakil: onek bide zabala du Gazteiz'tik Iruña'ra. Beste iru parrokiak ez dituzte, leenago izan arren.

Gipuzkoa'n: Alkiza, Alzaga, Amezketa, Anoeta, Arama, Aya (Ataun), Aya (Zarauz), Arriaran, Bolibar-Ugazua (illariak) (Eskoriza), Ernialde, Goiaz, Itxaso, Larraul, Mutiloa, Ugarte, Usurbil. Beste ogetairuk ez dituzte.

Bizkaia'n: Aulestia, Axpe, Berriatua, Bolibar (illarriak daude: "laister kenduko dira bankuak jartzeko"), Gatika, Ibarrangelua, Meñaka, Gautegiz-Arteaga (94). Beste amar parrokiak ez dituzte, leenago izan arren (95).

## ZERGAITIK KENDU DITUZTEN SEPULTURAK.

1786'an Carlos IIFak elizatik at illobitegiak egiteko agindu zuan eta parrokien kontura egiñ ere. 1882'an, berriz, errietatik kilometro erdira egiteko agindua etorri zan Madrid'etik. Baiña, esan degunez, elizbarruko sepulturak an bertan gelditu ziran. Etxe bakoitzak zuan berea. Aizken urte auetan 72'tik 38 parrokiak kendu dituzte orduan gelditutako spultura edo yarlekuak (96).

38 oietatik 27'ek bamku berriak iartzeko kendu dituzte sepultu-

(93) BEHOBIA, "EZ orain eta ez leenago. Eliza berria da 1'938'koa eta 1968.egin dunte parroki. Anizeto Ugartemendia. Parroko, 1971". Ventas. Berria da. Antonio Armendariz. Parroko, 197?. Sta. Gemma: Berria Aita Barruetabena. Parroko, 1971-

(94) Gautegiz-Artcaga'n 1812'an utzi zioten elizan eortzeari.

(95) Naparroa'n: Bai, 5 = % 62'50; Ez, 3= 37'50%. Gipuzkoa'n: Bai, 16= % 3'(?, Ez, 23 = %54. Bizkaia'n: Bai, 9 = % 59; Ez, 10= % 47- Aldaketa-bidean Gipuzkoa dijoa Bizkaia eta Naparroa baiño bizkorrago.

(96) Sepulturak kendu dituzten parrokiak: Naparroa'n: Arizkun, Eli-Jiondo, Errazu. Gipuzkoan: Aduna, Aozarasa, Arrona, Astigarribia (1960), Asteasu Azkoitia (antxiñatik): "Parrokian, orain dala urte batzuek arte, ildakoari egindako illetaren urrengo goizean, Jesus'en Biotza'ren meza izan oi zan illaren sentiak aterata, eta aldare aurrean kandela aundi biren erdiari ipintzen zuten zapi beltzez estalitako maitxoari sepultura deitzen zioten, eta emen erresponsoa kantatzen zuen... galdu dan oitura au kaletarrei zegokion... Orain berrogeitamar urte: kaletar askok eta bai baserrietako sendi denak zituzten argizari oriak, batzuek oletan bilduak eta geienak olik gabeko bildumenak. Elizaren erditik atzeko zoroan, zapi beltzak zabalduaz, egun bereizietan argizari oiek erre oi zituzten...", Berastesi (1980), Deba (1965), Eibar, Elduaven, Errezil (1969), Gellano, Ezkioga (1969), Igeldo, Larrino, Lazkano (1964), Olaberria. Orio, Oyarzun, Tolosa ("Tolosa'ko Parroki onek solairu guztia zenbatuta zeukan- 1953'garrengo Urrillako ugoldean, solaitua elizari berritu zitzaionean galdu ziran sepultura ciek"), Tolosa (prantzizkotarrena: 1835'arte bai). jtdiazabaI,"Zestua, Zizurkil eta Zumaia. Bizkaia'n: Bedia, Bedarona, Etxebarria, Lekeitio, Morga, Fika, Mungia, Mundaka, Zalla, Zenarruza.

rak. Leenago, sepultura gaiñetan ez zan bankurik izaten; geienaz ere jarleku bakarrak edo sillak. Aizken urte auetan banku berriak jarri ditugu eliz askoetan. Banku oiek sepultura gaiñetan daudenez, sepulturak estali dituzte. Sepultura oietan egiten ziran zenbait elizkizun ere galdu dira bankuak edo liturji berriak dirala medio.

Ta orra, sepulturaren aizkena. Zenbait elizetan toki bereiziak aukeratu dituzte sepultura-ordezko, danen argiak eta argiazariolak jartzeko. Baiña, ez da berdiñ.

Bankuetik aparte beste arrazoirik? Ona emen batzuek:

Arizkun: "zola berria maiz beartzen zelakoz".

Bedia: "eleizea berriztatu egindalako".

Berastegi: "sendi berriak etzeukatelako".

Etxebarria: Bankuak: illarriak ditunentzako "itxi dira batzuek".

Errezil: "danak ontzat eman zuten".

Eibar: "elizan tokia geitzeko".

Ezkioga: "baldosazko zoru berriagaitik, baiña oraindik ere lengo lekuetan jartzen dira emakumezkoak elizan".

Fika: "gaurko dotriñagaz ez datoz ondo".

Igeldo: "Visitadore Generalak aginduta kendu ziran arlosak 1753'gn. urtean lurra ezberdiña zegolako".

Lekeitio: "eliza loitu eta lekua gitxitu".

Mungia: "elizan jabetasun larregi artzen ebelako".

Morga: "elizazikinduegitenzalako".

Tolosa: " "1953 urteko ugoldeak".

Zumaia: "elizaren garbitasunagatik".

Deba'ko elizan, beste askoetan bezela, leku bereiziak aukeratu giñuzten argizariolak jartzeko sei maitxo zurezkoak. Ona 1972-IX-4' an elizan irakurri genduan oarra:

—Joan zan ostegunean, arratsaldeko zazpiretan sua izan zan eliza onetan. Bateren batek bildumenak piztu eta itzaldu gabe, kalera joan zan. Illabete ez da beste orrenbeste gertatu zala. Bildumena oien maitxoak lau edo bost aldiz erre zaizkigu denbora gutxi barru eta beti sua sortu dau era berean. Orregaitik, emendik aurrera, bildumenak piztu nai dutenak, etxetik ekarri bearko dituzte eta etxera eraman berriro, elizea erre baiño leen.

Sepulturak galdu ziran bankuak jartzeko garaian eta oraingo

pnetan argizariolak jartzeko leku bereiziak galduko dira eta, oiekin batera, leengo sepultura zaarren arrastoa.

Illarriak badiraute oraindik iru elizetan: Etxebarria eta Bolibarkoetan, Bizkaia'n; Bolibar-Ugazua'koan, Gipuzkoa'n. Gure Galderaeri emandako erantzunetatik, ala agertzen zaigu.

Rodney Gallop'ek dionez, euskaldunak arte-lanak gauza gutxieri aplikatzen omen die. Gutxi oietatik bat "illarria" eta bestea ate-gañeko arria, omen dira. Biak bait dira sarrera: bat illobiarena eta bestea etxearena; biak garrantzi aundikoak eta biak beti alkarrekin bear dutenak; orregaitik etxea saltzeten bada, illarria ere bai berarekin batera.

## SEPULTURA-GAIÑETAN ZER EGITEN DAN.

Eskeintzak eta otoitzak egiten dira sepultura gaiñetan, elizetako yarlekuetan, alegia.

Eskeintzak: ogia, argizaria eta dirua eskeintzen dira. Leenago idiak, ariak, aragia, bakallaua eta abar eskeintzen ziran; baiña, oiek aspalditik galdu ziran.

Ogia, argizaria eta dirua eleiz guztietako eskeintzak ziran. Gaurko egunez, ordea, guk aztertutako eleizeetatik % 85 ogia eskeintzeari utzi diore, aizken urte auetan. 1971'an euzten zioten oraindik oitura orreri Arama, Arriaran, Asteasu, Bolibar-Ugazua, Ernialde, Ezkioga eta Goiaz'ek; beste guztiak galduta zeukaten.

### OGIA.

Ona ogiari buruz berri bereizi batzuek Galdera-Erantzunetatik bilduak:

Bolibar-Ugazua: "Banakak dira oraindik jai-egun eta igandeetan "olata" opilla ekartzen dutenak illerrira. Domu-Santu ta Animen-Egunetan opill oiek azko geiago ekartzen dituzte".

Larraul: "Bi libra ogi urtebetean eta bat bigarrenean. Ogia kendu omen zan gerra (1936-39) ondorengo gosetean".

Mungia: "Lenago... ogi txikiak opillak eroaten (?) igandeko

(97) R. **GALLOP, op. cit.,** 182 **orr. Etxea saltzen bada, ilarria ere bai berarekin batera.**

Meza Naguzietan altara aurrera Eleiz-gizonen bedeinkazioñoa artutzen estoliari muñ egin da".

Igeldo: "Illeta-urrengo igandekoari "ogi-bedeinkatzeko-meza" deitzen diogu gaur oraindik".

Lazkano: Urte betean eramaten ziran ogia, argizaria eta dirua... Meza Nagusian... Anima Egunean eta urteko beste egun **ba**tean (Erriko Animen Egunean)... ofrendakoan, Mezatan, ogiakin **ba**tera... Bi egun oietan, ofrendako ogiak, erriko umeen artean banatzen ziran. "Opilleta" zuan orrek izena... Illeta egunean ogia eskeintzen zan... Segizio aurretik ofrenda eramaten zan lau librako lau ogi (ildakoa umea ez bazan; eta umea bezan, bi bi librako...) Bederatziurrenean... bi librako ogi bat... Onretan... entierro egunean bezela...".

Tolosa: "Aspaldi, Tolosa'n, urte bete osoan, etxeko edo sendiko bat Meza Nagusira, joan bear izaten zuan, ogi bat "erroska" ofrendakoan apaizari eskeintzera; batzuek ofrenda ortan erresponso dirua ere ematen zuten. Urte beteko Eleizkizuna egiten zutenean geiago etziran Meza Nagusira joaten. Urte betean Meza Nagusira ez joateagatik, aurreratu egiten zuten urtebetetzeko Eleizkizun ori. Eleizkizun aurreratu orri, deitzen diote orain ere "Deja vela". Esan nai du kandela zapi beltz baten gaiñean, eta eskeintzako erroskarik, andik aurrera ez dutela emango Meza Nagusira".

"Libro de Hermandad de Sacerdotes" deritzan liburua dago Deba'ko elizan. Bere barnean bada ere "Documento de la Constitucion de la Hermandad y su Reglamento" Jph. de Urain "escribano real y numeral de Deva"k 1731'an izenpetua. Araudi onek agintzen du, bazkideren bat iltzen danean, Bezperak eta Nokturno bat etxean bertan kanta bear dirala (98). Kabildo osoa, gurutzea aurretik, joan bear

(98) "La Hermandad es para los diez y seis... Beneficiados que constituyen dho. Cavildo... Beneficiado entero, medio o quarto y sin distinci6n de Presbitero o Clerigo de menores ordenes... y fuere o fueren administrados con el Beattico desde aquel punto aya o ayan de ser asistidos de dos a dos horas por uno o dos de dhos. Beneficiados constituientes asta que se restituia o restituian a su salud o fallezca, assi de dia como denoche... Que quando uno que otro... falleciere... todos los dhos. constituientes de dho. Cavildo que se allaren en esta Villa con Cruz alta y en forma de Cavildo y con dhas. sus velas

dute eleizkizun oiek ildakoaren etxean egitera, etxea bera eleiza balitz bezela. Leen etxean egiten zirala illetak ez daukate era bat aaztuta nunbait.

Oblatak (illetako ogia-oparia) Hermandadeko Mayordomoaren gaiñ daude; baiña, "jai-egunetako ogi eta aragi eskeintzeak" ("ofrecimiento del pan dominical... ofrecimiento de las carnes...") oiek oiñordekoen gaiñ gelditzen dira. Gañera, onek, Kabildoko anaidieri bazkari-lege bat ("una refaccion moderada") emango die.

1731'ko araudia 1754'an aldatu zuten berri bat egiteko eta araudi onen laugarren folioan onela dio:

Iru eguneko onratan (iru egunez egiñ bear ziran onrak) ogiak eskeintzea Kabildoak berak egingo du eta benefiziadu ildakoaren oiñordekoak jarri dezatela berak igandetako ofrenda-ogia... Eta, urtebetetzean, jai-egunero ofrenda-ogia amaitzen dan egunean, esan dezatela Meza Nagusi bat bere Nokturnoakin. Oarra: 40 ogi 5'na librakoak jartzen dira: 10 organistarentzat, 10 serorentzat, eta beste ogiak Benefiziaduen artean banatzen dira, guztientzat neurri berdiñean...

en las manos, aian de yr y yran ala cassa y abitacion del tal constituiente difunto y tendran... obligacion de cantar en ella las Visperas de difuntos... y cantar cn ella el Nocturno de difuntos consuynvitatorio... levantar el cuerpo entre quatro... llevar a dha. Iglesia y cantar en ella los dos Nocturnos subcequentes de difuntos con sus Laudes...". Au 1731'ekoa da. Baiña, 1754'an aldaketa izan zan eta araudi berri bat sortu. Ona aldaketa araudi berrian: "Yten que el dia de el fallecimiento de qualquier hermano despues de cantado el placevo con visperas correspondientes en esta Matriz pase el Cavildo a Casa de el difundo y cante un responso solemne y al otro dia pase dicho Cavildo a su cassa a levantar el cuerpo entre quatro... y conducir a esta Iglesia y se canten los tres Nocturnos con laude en esta misma Iglessia... Yten que ha demas de los responsos de mañana y tarde del Noveno (que se deberan cantar en la misma Iglessia y su Portico y de ningun modo a las puertas de la Cassa del difunto)... Yten que acabado el Noveno el Domingo siguiente... se ayan de publicar los funerales... y celebrar aquellas en los tres dias siguientes en la misma conformidad que se acostumbra en esta Villa... y se deveran cantar visperas de difuntos... en las tres tardes de dhas. honrras... y por la mafiana cada un Nocturno despues de la Misa Capitular...". Etxean edo etxe-atarian egiten ziran eleizkizunak, era bat ez bada ere, erresponso nagusi bat uzten dute etxerako) eliza-barrura eramaten dituzte. Jentillen kutsua era bat kentzeagaitik ote zan... ?.

Ogi-eskeintze au Euskalerri osoan zabalduta zegoala esana daukagu eta orixe berbera esaten ziguten 1923'an. (99).

Irupuntako opillak sepultura gaiñetan eukitzen dira Meza Nagusian ofrendarate eta Animen Egunean famili bakoitzak senidekoen sepultura bakoitzean ogia, argizaria eta dirua erresponsotarako uzten dituzte (100).

Vera-Bidasoa'n "Oladak" (ofrenda-ogiak) eskeintzen zituan, illeta egunean, mindunen arteko batek (senide-arteko urrutienak) lenen, gero ondoren beste mindunek, bakoitzak lau librako ogi-erroska bana eta argizaria. Aizkenekoak "Azken-opilla". Aien arteko nagusienak arrautza bat ere eramaten zuen eskuetan. Entierro agunean, segizioan, neskatxa bat (serorea) aurretik joaten da eta saskitxo batean aari-iztarra eraman oi du. Ori ezin bada, bakallua edo arrautza bat. Lenengo-maillako elizkizunak badira, bederatziurrean ogi-erroska, argizaria eta erresponsoetako dirua eraman bear dira egunero. Lesaka'n, berriz, ildakoa alduna bada, arkume oso bat ekartzen dute eliza-erdira illeta denboran (101).

Murelaga' n ildako bakoitzagaitik kandela bat eta ogi bat ("Olata") eskeintzen dituzte sepultura gaiñean, gero "difunteriek" ofertorioan Mezatan eskeintzeko (102). Sepultura da illeta guzien zilla, dio William A. Douglass'ek bere liburuan Murelaga'ri buruz. Bertan batzen dira ildakoa eta bere etxekoak, kandela eta olata dira alkarren arteko lokarri. Eta elizkizun auen apaiza etxeoandrea berbera degu.

Kandela eta ogia eskeintzen dituzte "artu-emona" daukatenak eta Argia egunean, Ogistie egunean eta onretan eskeiñiko dituzte. Argia eguna ill-ondorengo igandea da; eta Ogistie urtea betetzen dan

(**99**) *Anuario de Eusko-Folklore.* Vitoria, **1923.** Ala egiten zan erri auetan: Soskaño (Araba) **4** orr.; Bedia, **15** orr.; Zenarruza, **28** orr.; Meñaka, **34** orr.; Salzedo (Araba) **50** orr.; Otazu, **68** orr.; Aduna, **75** orr.; Oyarzun, **81** orr.; Alza, **96** orr.; Andoain, **102** orr.; Zegama, **110** orr.; Ziga-Baztan, **121** orr.; Otxagabia, **137** orr.

(**100**) FELIX ZAMALLOA, *Anuario de Eusko-Folklore.* Vitoria, **II, 1922,** 98 orr.

(**101**) JULIO CARO BAROJA, op. cit., **171-173** orr.

(**102**) WILLIAM A. DOUGLASS, *University Of Washington Press,* **1969,** 55orr.

eguna. Urte osoan iganderoko Meza Nagusian eskeintzen dira argiak eta ogiak, ildakoen etxekoen eskutik.

Artu-emonaren ardura etxekoandreak izango du. Berak utziko ditu sepultura bakoitzean (artu-emona daukaten etxekoen sepulturetan, alegia) erresponsoetako diruak igandeero eta kandela-ogiak esandako egunetan.

Argia eta Ogistie egunetako elizkizunak auek izaten dira: Meza Nagusia, erresponsoak sepultura gaiñean eta eliz-atarian, elizatik kanpora, etxean bazela, eta ondoren bazkaltzera.

Ogiaren arazo au bukatzeko esan bear degu 1779'an il zala Jose de Aldazabal Murguia, Deba'ko erretorea, Iziar'ko Amaren Edestia erderaz eta Bederatziurren bat euskeraz egin zituana eta bere illetarako Hermandadeak iru fanega t'erdi gari erosi zitula (103).

Azkoitia'n, XVIII'gn. eunkian eta aberatsen illetetan, urte guzian 548 libra ogi eramaten zituzten eskeintzarako era onetan:

Lenengo onretan 9 ogi lau-librako Benefiziaduentzat.

Bigarren onrretan, berdin.

Entierro egunean eta zortzi egun ondorekoetan 6 libra ogi egunero.

Bigarren onrretako ondorengo astelenean, 12 libra.

"Quatro Quintos" deritzan egunetan, 6 libra egunero, 24 libra danera.

Ama Birgiñaren zazpi festeetan; egunero sei libra, 42 dira.

Larogeta amabi igandeetan, seina libra, 312 libra dira.

Lenengo onretan eta bigarrenetan berdin, lau-librako ogia sakristauentzat.

Lenengo eta bigarren onretan emakumeentzat lau- librako iru ogi aldi bakoitzeko.

1762'an ogiak garitan aldatu ziran Maria Nicolasa de Zavala'ren illetan. Antonio Maria de Zabala jaunak ematen dizkigu berri auek 1781'an (103).

(103) RIEV, XIV, San Sebastian, 1923, 572-587. ("Libro de curiosidades de la Casa Solar de Churrucaechea, y sus agregadas: Compuesto por D. Antonio Maria de Zabala, y Aguirre su poseedor: Año de 1781"). Dokumenta onen zati bereiziak libru onen eranskin bezela jarri dizkitugu.

(103 a) Hermandad del Cabildo. Archivo Parroquial de Deva. 31 orrial-

ARGIZARIA.

Ogiakin batera, sepultura gaiñetan argizaria ere eskeintzen da ildakoeri argi egiteko, argia bear bait dute auek ere bizidiranak bezela.

Argi oien arrastoak triku-arrietan ikusi giñuzten.

Udakoeri argi bana jarri bear zaiete eta etxeko sua beti piztuta bear du iraun, gauez ildakoen animak beardutelako su ori (104).

Ildakoak argia bear dutela siniskeri oso zabaldua zan Euskalerrietan. Ona zer dion J. M. Barandiaran'ek gai oneri buruz (Julio Caro Baroja'k ori berori dakar geroago idatzitako bere liburuan):

—Beiñ, 1928'an esan zidatenez, mea-toki edo mina batean preso gelditu omen zan. Ilda zegolakoan, illetak egin zizkioten senideak. Aste batzuen ondoren, zuloa iriki aal izan zutenean, gizona arkitu zuten bizirik eta onik. Ez omen zitzaion ez argirik ez zer janik palta izan an barru artan egondako egunetan, bi egunetan izan ezik. Egun aien gora-berak ondo aztertu ondoren, auxe gogoratu zuten: argigabeko bi egun aietan ez zala etxetik iñor joan elizara sepultura gaiñean argia piztera... (105).

Argiak argi egiten dien bezela, ogiak ere janaritu egiten ditu.

dea eta ondorengotik: "Cuentas que da Dn. Ignacio Emasabel de su mayordomfa del año mil setecientos setenta y nueve con su cargo y data. Cargo de la Hermandad. ...Ytt. De cien r. pagados por el dho. Emasabel por el ingreso o ascenso al Beneficio medio por muerte de Dn. Pedro Jose de Aldazabal... Data... Ytt. Treinta r. a la dha. Juana y su compañera, a quince por cada una por el cuidado y trabajo que han tenido en las funerarias del dho. hermano Dn. Pedro Jose de Aldazabal... Itt. Ciento veintinueve r. y diez y siete m., importe de tres y media fanegas de trigo que se compro a razon de treinta y siete r. fanega para las honras del dho. Aldazabal... Ytt. Seis r. por amasar los panes de dhas. honras... Ytt. Nueve r. y cuatro m. importe de azumbre y media de vino de Tudela de precio de treinta y un cuartos el azumbre para oblaci6n en los tres dias de honras...".

(104) JULIO CARO BAROJA, op. cit., 174 orr.

(105) J. M. DE BARANDIARAN, *Anuario Eusko-Foklore.* Vitoria, III, 1923, 40-41 orr. (J. CARO BAROJA, op. cit., 177 orr.).

Orregaitik edo, sepulturetara eramaten diran jatekoak sustantzi gabe gelditzen omen dira, an egon ondoren (106).

Eta ildakoak argia bear dutelako, besterik ez bada lastoakin egiñ bear zaie; baiña, obea da argizaria lastoa baiño (107). Eta argia bearrezkoa badute, ildako bakoitzari jarri beai zaio berea. Bakoitzak bana.

Ikus dezagun orain guk egindako azterketak zer berrii dakarkigun:

Erantzuna emandakoetatik % 61 utzi diote argizaria eskeintzeari. Argizaria era askoetan eskeintzen da, naiz oletan bilduta (argizariola edo argizari-kajea) edo olik gabe (bildumena edo pillumena) bildua, edo kandela luzeak bildumenik gabe.

Ona zenbait berri bereizi:

Alkiza: "Bi kandela argi, atxak, illaren bi urtera arte Meza garaian piztuta eukitzen dira. Etxekoandrea antxe jartzen da igandero mezetan".

Bolibar-Ugazua: "Zapi txuri gaiñean dago "kandelero" bat beti lau urte osoan etxeko bat iltzen danean, eta *bi* bigarren urterarte guzian. Geroztik bat bakarra".

Ugarte: "Elizkizun onen bitartean (Onrrak) ildakoaren sepultura guztie argi piztuz inguratuta egoten zan, 60-80-100 argi piztu edo geiago igual. Famili guztik eta kanpotik zetozten senartar guztik argi bana ekartzen bai zuten eta piztu sepulturan Eleizkizuna bitarten...".

Azkoitia: "Kanpusantuko sepulturetan argizaria erretzen da egun berezietan...".

Igeldo: "Illeta-urrengo igandeari "ogi bedeinkatzeko meza" deitzen diogu gaur oraindik, kandela ofrenda egiñaz...".

Lazkano: "Urte betean, jaietako Meza Naguzian, familiko emakume bat joan bear zuan sepulturan argia piztutzeko... Anima Egunean eta beste egun batean (Erriko Animen Egunean) trapu beltza zeukaten guztiai (ill ondoren, urte betean, sepultura gaiñean zapi beltza jartzen zan) Ematen zitzaien erresponsoak eta argiak pistu. Trapu

(106) J. M. DE BARANDIARAN, *El Hombre Primiiivo...,* 1,934. Donostia, 95 orr. *Mkologia Vasca.* Ed. Taurus. Madrid, 19*60,59 orr.

(107) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, *El mundo en la mente...,* 1960,198 orr.

beltza urte betean euki bear zan sepultura gaiñean, ill-ondoren Urtebeterzeko Meza eman arte. Argizariolak piztu bearrezkoak ziran Jaietako Meza Nagusi denboran...".

Tolosa: "Urte betean Meza nagusira ez joateagatik aurretu egiten zuten urtebetetzeko elizkizun ori. Elizkizun aurreratu oni, deiten diote, orain ere: "Deja-vela" Esan nai du, kandela zapi beltz baten gaiñean, eta eskeintzeko erroskarik, andik aurrera ez dutela emango Meza naguzira".

Idiazabal'en bederatziurrenean etxeko andre bat joaten zan sepultura gaiñean ogi eta argizari-ofrendak egiteko (108).

Sara'n illeta egunean yarlekua zapi beltzez dago eta bertan jartzen dira bi kandela ("tortxak") eta bildumena bat etxekoak ekarrita ("ezko" edo "ezoxigor" dute argizari bildu oiek bere izena). Gero auzoko andreak ekartzen dituzte geiago. Illen aldeko argizari-bildumena egunero piztu bear da mezaren batean; lan au etxekoandreari dagokio edo etxeko beste edozin andrerei; beuren faltaz "andreserorak" egingo du lan ori (109).

Deba'n 1754'an Apaizen hermandadeko liburuak dionez sepultura gaiñean argizaria jarri bear zan (110).

Azkoitia'n, 1781 urte aurretik, argizari auek jartzen ziran aberatsen entierroetan sepultura gaiñean:

Hatxak: amabi argizari orizkoak, bostna librakoak.

Kandelak: sei, oriak, librerdikoak.

Bildumena: bat, amar libra ingurukoa eta pizten da entierroegunean, Honrretan, Bederatziurrenean, "Quintos" deritzan egunetan, Amabirjiñaren zazpi festa nagusietan, igandeetako Meza Nagusi eta Bezperetan, baita egun oietako Albako Mezan ere, eguneroko Meza Naguzietan eta besteen entierrotan ere. Orrela egin bear zan £11- ondorengo bi urte osoetan (111).

(108) IGNACIO IPARRAGUIRRE, *Idiazabd.* Ed. Auñamendi. Col. Azkue, 1971,110 orr.

(109) J- M. DE BARANDIARAN, *Anuario Eusko-Folklore,* XXIII, 1969-1970, San Sebastian, 121,124 orr.

(110) Hermandad de Sacerdotes de Deva. II, fol. (4, Deba'ko Artxiboan).

(111) RIEV, XIV, 1923, 572-87 orr.

Ikusten danez argiak urte betean edo bi urte osoetan bear ziran piztu sepultura gaiñetan: ildako bakoitzak berea. Bat gutxienez. Bat ori etxekoak jarriko diote eta egunero piztu, beuren eskuz edo seroreen eskuz. Gero, argi geiago auzokoak, esagunak, artu-emanak dituztenak jarriko diote illeta egunean eta beste elizkizun bereizietan.

Edozeiñ argi da ona ildakoari argi egiteko, lastoarena ere bai; baiña, obea da argizari-argia. Ez da ba arritzeko, iñor iltzen danean, etxeko erleeri berri ori ematea itz auen, edo antzekoen bidez:

Erletxuak, erletxuak,
nagusia il da ta
egizute argizaria
bear da elizan argia (112).

**ARGIZARI-BILDUA :**

Leenago ere esanda daukagu argizaria bildu egiten zala: oletan edo olik gabe.

Oletan bildutako argizariari gure galderari erantzundako ogeita amabi parrokietan "Argizariola" deitzen diote. "Bildumena" ere esaten diote, edo bildumenetik sortutako "pillumena" (Deba'n), "pildumena" (Igeldo'n), "pilomena" (Zestua'n)... Baiña. Alkiza'n "argizaria biltzen dan olari deitzen zaio 'argizariola' eta 'bildumena' argizariari berari..."

Eta, berez, ala bear du izan.

Deba'n gaurko egunez argizarilari "pillumena" esaten bazaio ere, elenago 'bildumena' esaten zitzaion. Aitatutako Apaizen Hermandadeko bigarren liburuak onela dio: "que la cerilla que se pone en los bildumenes sobre la sepultura...".

Bada beste izenik ere:

Elduayen'en, "eskubildua".

Labayen'n "sepultura" du izen argizariolak.

Ataun'en "argizari-kajea".

(112) WILLIAM A. DOUGLAS, op. cit. 79-80 orr. "Dehat in murelaga".

Otxagabia'n, 1823'an, "arzagi andian zura" (113).

Sara'n, aurrerago esan degun bezela, bildumenari "ezko" edo "ezkoxigor" esan oi diote.

Huarte-Arakil'en kandelak zutik jartzeko olari "obiola" esaten zaio.

Ill-arria elizeetatik kendu ziranean, aien ordez argizariolak jarri omen zituzten: aiek eta auek, biak, giza-itxurakoak (antropomorfas) Bonifazio Etxegarai'k dionez (114).

Pyrenee-Aundietan argizariola eta bildumenak erabilli oi dira. (115). Bildumenari 'candelou' deitzen omen diote. Margalide Le Bondidier'ek, bere idazkian agertzen digu argizari oiek nola egiten diran argazkien bidez; eta gure aurtzaroan, 1923'an, ikusi izan oi genduan Beasain'go denda batean, argizari oria egiten idazle onek esaten digun era berean. Argizari auen truke kandelak jartzen asiak omen ziran zenbait Pyrinee-Aundi eta Txikietako errietan. Ger errian, ildakoari burugaiñean bildumena piztuta jartzen omen zioten, txanponen bat argizariak erdian zuela. Argizari oriakin egindako gizon-itxurako bat ere aitatzen du, gurutze batetik zintzilik eramaten zutena ildakoaren billa apaizarekin batera. Margalide'k dionez, Yugoeslabia'n ere, illetara dijoaztenak, bildumenak daramazkite esku-artean. Suiza'n ere, Luzerna'ko uri-inguruan XX'en eunkirarte illobi-gaiñetan pizten omen zituzten orrelako argizariak. Otto Mauri zan 1963'an Davos'eko eliza-katolian apaiz eta berak orduan esan zidanez Ticino eta Romancho aldeetan (italiano eta romantxoz itz egiten dan errietan, alegia), Suiza partean, gure argizarien antzekoak erabiltzen omen zituzten elizeetan. Aleman-izkuntzako errietan ere bai, baiña gutxiago.

Argizariak eta bildumenak gure elizeetatik alde egin dute. Zergaitik? Sepulturak kentzeko izan ziran arrazoi aiek datoz emen ere, geienetan beintzat. Bankuak jartzea izan zan onduko arrazoia eta orixe da pildumenak kentzako ugarien erabiltzen dan aitzakia.

Bada besterik ere, ordea:

(113) *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. 65, 71, 75, 81, 123 eta 136 orrialdeetan.

(114) BONIFACIO DE ECHEGARAY, op. cit., 34 orr.

(115) *Les Cires de douil aux Pyrinees.* Pau, 1959, 8-23 orr.

'Sillak jartzeko', Huarte-Arakil.

Garbitasun eta osasunagaitik, Ituren.

'Zare-tikia errezago zalako', Arizkun.

'Kendu berriak ditugu: erria ugaldu ala, ainbeste argizariol ta hatxeruz keaz betetzen zitzaigulako eliza eta etzan giro arnasa artzen', Anoeta.

'Argizariolak galdu ziran kandelak ipintzeagaitik... suaren arrisku gutxiago izateagatik; argizaria baño samurrago kandelak arkitzen ziralako eta...', Bolibar-Ugazua.

'Bankuak ipiñi aurretik kenduta egoazan', Aulestia.

'Kandela luzeak kandelerotan...', Ea.

'Manchaban con la cera el pavimento', Gatika.

'Orain berrogeta amar urte, kaletar askok eta baserrietako... denak zituzten argizari oriak, batzuek oletan bilduak eta geienak olik gabeko bildumena. Elizaren erditik atzeko zoroan zapi beltzak zabalduaz egun berezietan argizari oiek erre oi zituzten, eta baita kanpusantuko illobiaren arri gañetan ere...', Azkoitia. Zergaitik kendu zituztenik ez digu esaten, aspalditik kenduta daudela baizik. Eleizeetako sepulturak kentzean, bertako argizariolak kanpusantuko sepultura gañetara daramazkite. Beste errietatik ez dut orrelako berririk jaso. 1781'an danen oitura zan bildumenak jartzea: "En las sepulturas se pone ademas (ademas orrek esan nai du, hatxak eta kandelak jartzen zirala gañera) un Rollo de cera tirada amarilla como de diez Libras y arde en ella en todas las sobredichas funciones..." (116).

Bankuak eta "askotan piztuta utzi eta solairuak su artu dualako eta sepulturak erre ere bai...", Berastegi.

'Argizaria bilduta dakarte egur batean, edo egurrik gabe argizaria soilki". Sepulturak kentzeak, bankuagaitik, kendu ziran sepulturetatik; baiña, leku bereizietan, jartzen dira egurrezko maitxo batzuetan. Aizkeneko bi urte auetan sei aldiz erre dira maitxoak, eta bietan solairua ere bai; arrisku orrek galdu araziko ditu denak. Deva.

'Elizan lekue egiteagatik", Eibar.

'Baldosazko zoru berria jartzeagatik. Eleiztarrak berak erabaki zuten ori, auzoko parrokietan etzalako orrelakorik ikusten eta apai-

(116) RIEV. XIV, Año 1923- Paris-San Sebastian, 572-587 orr.

zak etzien ezezkorik esan, berak ala nai zuten ezkero", Ezkioga.

'Argizari orizko bildumenak oraintxe galdu dira era illen kaja gañean bekarrik ikusi oi dira", Igeldo.

'Garbitasunagaitik', Zumaia.

'Oraiñ banku-atzean ipintzen da sepulturea ta bildumena', Bedarona.

Zenbait elizetan ez ziran bildumenak oro bat kendu; aldamenetako baztarretan edo beste toki bereizietan alkartu zituzten; baiña, apurka-apurka galtzera dijoaz era bat.

**DIRUA.**

Dirua ere eskeintzen da sepultura gaiñetan ogi eta argizariarekin batera, erresponsoak aterarzeko ildakoen alde.

Erresponsoa zer dan? Gure Aita otoitza esatea da erresponsoa, aurretik eta atzetik beste otoi laburrak erantsita.

Oraindik-orain eun parrokietatik 25'ek kendu dituzte erresponsoak bere oitureetatik. Geienetan erresponso-kentze au sepultura-kentzearekin batera dijoa. Batzuek, ordea, era bat ez kentzearren, toki bereiziak aukeratu dituzte artarako: aldare-aurrean, eleiz-erdian edo aparteko maitxo batean.

Liturji berriagaitik ere kendu izan dituzte eta illeta egunerako bakarrik utzi. (Gellano-Eskoriatza).

'Responsoak kendu nituen sentidurik ez nuelako billatzen... Ordez, illean. beiñ, Meza Nagusia ofrendarekin...' (Oikia-Zumaia).

'Amar urte dira kendu zirala-gorpue eleiz barruan sartzetik". (Zalla).

Erresponsoak nun egiten dira?

Geienak sepultura gaiñean.

Baiña, bada besterik ere. Ona nun:

'Eleiz-atarian'. (Ezkurra).

'Eleizaren erdian'. (Tolosa: ez dago sepulturarik aspalditik).

'Maitxo bat gurutzeagaz" da erresponsoak esateko lekua. (Bedia).

Noiz esaten dira erresponsoak?

Illeta egunean, onretan, bederatziurrenean, iganderoko Meza Nagusi eta Bezperetan, Ama Birgiñaren zazpi jaietan, Bost-festa deritzan jaietan... Baiña, oiturak aaztutzen edo kentzen joan diran neurrian, urritu dira erresponso-egunak eta aukerak.

Ona ale batzuk:

'Jai-egunetan eta illeñ obiratzean'. (Leiza).

'Jai ta obiratzean 1390'tik ona gutxienez'. (Arizkun: Animaren Kofradiko Liburuak ala dakar eta bigarrena izanik liburu au (aurrekoa ere bazan, noski) 1390 gn. urtean asita dago eta dirau oraindik 1970'añ).

'Bost-fiesta deritzan jaietan, Santu Guztietan eta Animen Egunean'. (Goiaz)

Tlleta-egunean eta (ill-ondorengo) lenengo urteko jaietan". (Mutiloa).

Tlleta egunean erri osoak: gero urte barruan etxekoak eta lagunak' eskeintzen dituzte erresponsoak. (Ea).

'Onra egunetan'. (Azkoitia).

'Anima-egunean bakarrik'. (Deba). Ala zan 1970'an; gaur 1973' an kenduta daude era bat.

Tlleta egunean bakarrik'. (Ezkioga).

'Urte barruan ill ondoren Meza Nagusian'. (Igeldo).

Tldakoen alde ematen diran Mezeetan'. (Tolosa).

'Animaren egunean bakarrik'. (Zumaia).

'Domeketan Meza Nagusian urte bian' ill ondoren. (Etxebarria).

'Bat ildako guztientzat'. (Morga).

'Domeka eta urteurrenetan'. (Mundaka).

'Bakarrik illeta eta urteurrenean'. (Zenarruza).

'Bederatzi urrenetan, urtebetean, bi urtean, Santu guzienetan'. (Alkiza).

'Sepultura, argi ta erresponsokin, illa urtebarruan daukatenak bakarrik. Igandetan duro bat edo beste'. (Aduna).

'Meza nagusian, astelenetan, illetan, bederatziurren eta urte-mugan'. (Amezketa).

'Bederatziurrenean ta Santu Guzi ta Anima-egunetan'. (Anoeta).

'Apaiza bere laguntzallea ondoan duala juaten da illerri inguruetara; lenengo *Kpaiz-etxeko* illerrira. Apaizak hixopoa eta laguntzalleak kurutze bat eta atabaka limosna jasotzeko. Illerri guztietan egiten dira erresponsoak jai-egun guztietan Meza Nagusi ondorean.

—-Pater Nosrter... edo Gure Aita.

—Requiescat in pace. Amen.

Beti ere etxe batekoak edo bestekoak ateratzen dituzte "Anibersarioak", au da: —Meza aurrean apaizari ekartzen die Meza-dirua eta

euren etxeko ildako norbaiten alde (bat edo geiago" "ateratzen da Anibersarioa" ofertorioan Apaizak esango du: — X. X. animaren alde animaren alde anibersarioa. Gure Aita..." Eta gero Meza azkenean anibersarioko illarrira beste illarri guztietatik joango dira emakumeren bana " erresponsoa" (peseta bat edo bi) eramatera. Domu Santu eta Animen egunean errespon'so asko izaten dira. Eta astegunian ere Meza ondoren, Meza izan duten etxekoen illerrian ateratzen dira erresponso batzuek". (Bolibar-Ugazua. Eliza onetan illarriak daude).

'Urtean bost egun jakiñetan. Erena. Bederatziurrenean eta abar'. (Larraul).

'Ofizio edo onrrak izeneko Elizkizuna. Oraindiken ya oraindaño iraundu du Elizkizun onek eta zan obiratzeko egunekoa baño askoz ere nagusiagoa. Egiten zan obiratzetiken bederatzigarrena inguruan. Egiten ziran bi Nocturno eta bi Meza kantatuk bata bestean segidan etengabe. Nocturnoa bitarten ematen ziran "A tiempoko" deitzen zitzaien Mezak; batzuk Nocturno bitarte baten eta bestek besten. Ildakoaren ume edo sentde bakoitzek enkargatzen: zun apaiz bat. Batzuek Mezak eman eta Nocturnoak egiten zituzten bitarten, beste denak Erresponsok ateratzen zituzten ildakoaren sepulturan lendabizi eta Elizan sepulturak zeuzkaten guztik pasatzen ziran ildakoaren sepulturetik efresponsok ateratzea, banan banaan illaran eta emen bukatu ondoren, gero denak bakoitzak been sepultureran ateratzen zituzten eta etzan Elizkizunik bukatzen errespontso denak ateratzea bukatu arte. Errespontsok ateratze lan onek irauten zun askotan bi Nocturno eta bi Meza Naguzi kantatuen denbora apaiz talde bateñtzat, eta denbora aldi ontan bukatzen etziranen, beste apaiz guztik inguratzen ziran sepulturetara errespontsok ateratea txapela esku batean eta ixopoa bestean zutela, Mezak eta sepultureko ofizio deña bukatu ondoren. Emakumek sepulturetan erresponso denak atera arten iñor etzan atratzen Elizetik...' (Ugarte-Amazketa). Beraz, esan genezakegu elizkizunak ildakoaren sepultura gaiñean amaitzen zirala, emakumeen aurrean, beurak izaten bait zuten sepultuako ardura.

Sepultura bat danentzat. "Bandejatxoa kandelekin jartzen da. Limosna emakumeak botatzen dute bandejatxoan. Sepultura onetan erresponsoak enezatzen dira'. (Arrona).

'1963'an kendu ziran... Diruzalekeria kendu eta Meza gatik...

Toki batean egiten dira ofrenda eta Erresponsoak. Ogi ta argizaririk ez. Meza ondoren". (Berastegi).

'Urte bete osoan, igandeetako Meza Nagusietan, eraman bear izaten zan ogi bat, argizaria eta diirua erresponsetako. Sepultura gañean, urte bete orretan, Igandeetako eta jaietako Meza Nagusietan, familiko emakume bat egon bear izaten zuan, argia pizteko, ogia ofrendara eramateko eta erresponsoak ateratzeko. Urte bete orretan sepultura gañean zapi beltza jartzen zan, garutze zuri bat erdian zuela. Anima-egunean eta beste egun batean (Erriko Animen Egunean) zapi beltza zuten sepultura guztiai erresponsoak eta argizaria ematen zitzaien. Zapi beltza urte betean eduki bear zan, ill ondoren, Anibersarioko Meza bete arte...' (Lazkano).

Ona erresponso-arazo onero buruz zer dion liburu zaar batek: 'Obispo batek debakatzen dau, etxekoandrak sepulturetan erresponsoak isteko aitxekiaz, ez daitezela ibilli Eleizean zear kontuak kontari'. (Etxebarria)

• • •

Ger errixkan (Basses Pyrenees) illetara bakoitzak argizari-bilduma bat diru batekin eramaten dutela ikasita gendukan. Gaurko egunez, dirua ildakoen ondoan jartzeko oiturarik ez dago Euskalerrian; baiña, leenago izatea baliteke. Ataun-San Martin'go elizan, 1923'an, elizako zorua berritu zutenean, sepultura zaarretan txanpon-diruak ugari arkitu zituzten, XVII eta XVIII'gn. gizaldikoak. Beste orrenbeste gertaru zan 1924'an: eliza-ondoko sepultura batzuek argiratzean XVI'garren mendeko txanponak arkitu zituzten. Aietatik bat ibero-erromatar diruen antzekoa, ala ere. Ill-kaja gaiñean diru batzuek jartzeko oitura ere bazan Orozko'n 1924'an (117).

(117) J. M. DE BARANDIARAN Y COLABORADORES, *Anuario de Eusko-Folklore,* 1960. Colecci6n Auñamendi, 197 orr.

## ILLETA EGUNEKO ESKEINTZAK

Oraiñ arte esandakoak sepultura gaiñetan egiten diranak dituzu. Goazen Illeta-egunean egiten diranak, bereiziki aztertzera, 1970'-an egin giñuzten galdera erantzunetatik.

Ogia, argizaria eta dirua, orra iru gauza sepultura-gaiñetan eskeintzen diranak. Berriro agertzen zaizkigu Illeta-egunetako eskeintzetan.

1970'an, 72'tik 33 parrokiak Illeta-eguneko ofrendak eskeintzeari jarraitzen zioten oraindik ere. 26'ek utzi zioten eskeintzeari, leendik oituak bazeuden ere:

Ogia 31 parrokietan dirau.

Argizaria, 32'etan.

Dirua, 38'etan.

Bolibar-Ugazua'n, esate baterako, leen ogi asko askeintzen zan "ofrenda" izenarekin; baiña, orain ofrenda-ogiak iru muturrekoak dira ("olatia" izenez) eta apaizak ofertorioan artzen ditu Meza denboran...

Zenbait parrokitan ogiaren ordez dirua eskeintzen dute. (Mutiloa).

Dirua geienetan erresponsoetako izan oi da; baiña, bada besterik ere:

Alkiza'n : "Bederatziurrenean (dirua) ta gero bi urtera segi bear dute".

Errezil: "Biltzen dana familiaren alde.

Igeldo: "illeta-gastuak ordaintzen dira diru orrekin".

Zizurkil: "Ofrenda? Argizaria eta dirua. Illeta ondorengo igandean izan oi da eta argin ogiak deitzen zaie orain ere".

### ESKEINTZA BEREZIAK

Ogiaren ordez "zaku garia ondorengo igandean" (Zestua).

Ona gai oneri buruz (garia ogiaren truke) zer dion Azkoiti'ko 1781'garrengo dokumentuak: "...se propuso al Cavildo admitiese

las ofrendas de Pan en Trigo y el Cavildo entro gustoso en ello, y se repartieron desde luego a los Beneficiados todas las ofrendas en Trigo; y desde entonces se ha hecho lo mismo no solo en los funerales de Casa, sino aun en todos los demas del Pueblo... A las partes tiene quenta esta disposicion, porque no se cansan de tanto amasar, y ademas se evitan los disgustos, que con las criadas de los beneficiados solia aver sobre la calidad de los panes... Desde el año de 1762 en que murio dicha mi hermana, y se sigue en dar Trigo..."(118).

"Ofrendak Argizaria eta dirua. Besterik? Eleizeako erregalia" esaten digu Larraul'go apaizak.

Aaria eta zapiak: "Emakumea zanean aldare-zapia eta dirua, aurra zanean eskuk legortzeko zapia..." (Eta bertako liburu zaarretan danez, aaria ere ekartzen zuten leenago). (Elduayen).

"Bakallua ere bai... Len illetan ariya (carnerb) ekartzen zuten ta illeta garaian eliz atarian zugaitzin lotuta euki. Illetarako ofrendak bi emakumek eramaten zuten, bat serora; batek otarrea (xestua) buruan ogia bost iruko bigarren mallan puntillazko zapi zuria, onen gañin bakallua, beste emakumeak ziriyo gorriak (bi) ol baten gañean, denan aurretik, elizara iristean ziriyuk pixtu beren lekutan jarrita, eskeintz (ofertorioan ofrenda egin, aide ta ezagunak len mantilukin etortzen ziran bakoitzak ogi zatia ofrendan kandel gorriak ere bai..." (Oyarzun).

Beste idaztietatik aurrerago ikusita daukagu, Bidasoa'ko Vera'n ogiakin batera arrautza bat eskeintzen zutela-egunean eta segizioan aari-iztarra ere bai.

Arkume osoa, berriz, Lesaka'n.

Bayona'n XVI'gn. eunkian, Juan Thalamas'ek digunez, (119) dirua, igaliak eta abereak eskeintzen omen ziran ("dinero, frutas y animales"), baita ogia, aragia, arraiñak eta arkumeak ere ("ofrendas de pan, carne, pescado y corderos"). Baiña ofrendarik bereiziena ill eta larrututako arkume bat ("un cordero degollado y ensangrenta-

(11.8) Gure liburu onen eraskinean: *LOJ Funerales en Azcoitia* (Siglo XVIII).

(119) JUAN THALAMAS, *Anuario de Eusko-Folklore,* XI, 1931. Vitoria, 53-54 orr.

do'O omen zan, eta bi piztutako kandela illara artean jartzen omen zuten, eleizkizunak irauten zuan arteko guztian.

Ogia, aragia, dirua, urdaia, oillua... aitatzen dira, ofrendarako gai, Zenarruza'ko liburu zaar batean (1726) (120).

Oyartzun'en, 1923'an, argizaria, ogia, aragia, arrautza, amar xentimoko dirua, bakallua edo aria (121).

Arano'n 1875'an aaria joaten zan segizio aurretik (122).

Aizarnazabal'en, 1787'an, bertako Erretorearen illetetan, bei bat eraman zuten eleiz-atarira ofrendarako, lau librako ogia adar banan sartuta, Larramendi'k zionez eta Bonifazio Etxegaray'k dakarrenez (123) Beronek dakar beste berri au ere:

Bazan Lazkao'ko parrokian liburua (1526-1648) dokumentu onekin: "...Ademas en funciones de los Señores de dicho Casa (Lazkao'ko Jauntxoena, alegia) en los dias de sus honras ofrecen por cada dia un Buey...".

XlX'gn. gizaldiaren aizkeneko urteetan ere Oikia'n, bertako Erretorearen aitaren illeteetan ere idia eskeiñi omen zuten, Domingo de Aguirre idazle ospetsuak erakutzi zigun bezela. Baiña, irakurri itzatzu berak idatzitakoa:

*"Idia Elizan.* Aztu eztedin, beren oroitza osoro joan eztakigun, jakintzaleak geiagorako ikasbidea izan dezaten, ongi deritzot Euskalerriko oitura zar bat albistatzea.

Oiezbezelakoa da, ipuia dirudi, ta siñisgogorra izandu naiz, baño gaur ordea neronek baieztu nai det, neronek nai nuke siñisterazi.

Ogeitak urteak badira... Arako jai arratsalde baten, apeta betetzeko era banualata, Oikia deritzon gure auzotegira pozarren joan nintzan. Ta ona emen nere begietan aukeztu zitzaidan ikuskizuna.

Elizarako sarreran, ate ondoan burua jarrik, txintxarriz ondo jantzia apaiz jaunaren soñeko beltzez eztalia, paparrean bera purpuxetaz apaindua, adar bakoitzean ogi aundi bana zitula, idi gizen bat zegoan geldi ta mentsu, eliz barruko eresiketak entzuten bezela.

Zer dan idi ura?

(120) *Anuario de Eusko-Folklore.* **III, 1923,** Vitoria, **28** orr.
(121) *Anuario de Eusko-Folklore.* **III, 1923.** Vitoria, **81-88** orr.
(122) *Anuario de Eusko-Folklore.* III, 1923- Vitoria, 127-128 orr.
(123) BONIFACIO DE ECHEGARAY, op. cit., 7 orr.

Ildakoen alde egiten zan oparia, une artako elizkizunaren sari ta ordaña.

—Noztikoa da ekandu au? —galdetu nuan arriturik.

—Antziñetakoa noski-erantzun zidate-asabietatik aspaldi luzean datorrena.

—Nondik ote dator? Okerreko siñistien kutsurik ez ote dauka?

—Baliteke, baño ezetzean gaude. Jatorri bakunagoa duala uzte degu.

—Ager zadazute.

—Ezta orren gaitza. Nola eskuartean lenago gaur beste diru etzebillen, lurraren ematzaz, ale ta aragiz batez ere saritu oigenduan apaizen nekea. Iru malletako illeta ziran: lenbizikoan idie eskeiñi oi zan; bigarrenean, zikirio bat, eta irugarrenean laka batzuek arto edo gari. Gaurko idiak illetarik andiena oroitzen digu.

Ori aditu nuan, ta beste asterketa gabe, itxurazko mintzoa zalata, atsegiñez gelditu nintzan. Gañera berriz, esate orren ziurgarritzat, oraindik or dago, Aizarnazabalgo *pulpito-pean,* zikirio esekitzeko burni-kako sendoa, ta, Arruako eliz-obietan, sarri egondu naiz gari zorro ederrak ikusten.

Abere opariak aztu zaizkigu ia, baño gure egun auetan ere azaldu izan dituzte noizean bein, andikeriz ta norbere jatorri ona erritarrai jakin erazteko. Oikiako apaiz jaunak, aitaren elizkizunean, oitura zarren gomutarako edo goitarra zala erakuztegatik, ipiñi zuan beintzat idi galanta eliz atarian.

Azkenengoa ote zan? Eztet arrezkero inguruetan besterik somatu. Zumayan 1917-ko Agorraren 16-an" (124).

## ITZ GUTXIETAN

Illeta-eskeintza arazo oneri Agirre'k susmoa artu zion nunbait, oitura zarra kristau-mugaetatik aruntzkoa ote zan, alegia. Gero berari eman zioten erantzunakin (diru-ezak eraman gaituala bestelako eskeintzeetara), orrekin ez gaude konforme.

(1,24) RIEV- IX, 1918. Paris-San Sebastidn, 69 orr.

Arkeoloji bidetik ikasita daukagu Arri-aroko illeta-eskeintzak edo illen aldeko ofrenda nolakoak ziran eta gaurkoen antza aundia zeukatela ere bistan dago. Arkumea gizonarekin batera eortzita Biskai'ko koba batean ikusi genduan eta Lesaka'n, 1923'an, oraindik euskaldunak arkumea eramaten zuten eleizara illeta egunean, orain millaka urte bezela... Zikiroak eta idiak ere tartekoak ziran illeta-eleizkizunetan. Baiña batez ere, neri Vera'ko ari-izterra dakorkit gogora, segizioan eramaten zuten ari-izterra. Zenbat iztar-ezur ez ote daude Arri--aroko illobietan...! Asko ,benetan.

Orduko eskeintzak auek ziran: argia, aragia (abere-aragia), lanabesak, armak, kutunak...

Gaur eguneko kristau-aroan zeintzuk izan diran badakigu: argia, aragia (abereak, egaztiak, arraiñak...), ogia eta dirua...

Bien arteko bizkitasuna edo paralelismoa ez da gauza utsatan bakarrik bada beste zeredozertan ere: barrutik gizonari eragiten dion zer ortan ere bai...

Aiek mundu ontatik aparteko beste bizitza batean sinisten zuten. Ildakoak beste bizitza orretan argia, janaria, armak eta kutunak bear zituztela uzte zuten gure aurreko arbaso zaarrak. Kristau euskaldunak ere beste orrenbeste sinistu izan oi dute: ildakoak argia bear dutela, illetetan eskeintzen diran janariak sustantzia galtzen dutela eta abar.

Gero, orrezaz gaiñera, arrokeria sartzen dala tartean...? Zer esanik ez.

Gero, oitura zaarrari euzteagatik egiten ditugula gauza asko...? Orretan iaioak gaituk euskaldunok. Naiz eta zergaitik gure aurrekoak egiten zuten arrazoia era bat aaztu, eutsi geureai!

Baiña, toleste guztien azpitik, ildakoai laguntzeko asmoa agertzen zaigu Arri-aroko oituretan bezela, Kristau-arokoetan.

### OFRENDA-ZAPIA

Ofrendarako erabiltzen zan zapiari euskeraz "zamau" deritza. Orrelako zapi bat, gorri-urdiñezko neurristi-marrazkiez ornitua, bazan 1966' an, (Olazaguti'tik ekarria) Donosti'ko San Telomo--museoan.

Ona guk artutako erantzunetatik zer garbitasun atera genezaken:

Sei parrokiak erantzuten dute: edozeiñek.

Batek esaten du: andre batek.

Lauk esaten dute: etxekoak, familikoak, senideak.

Batek (Zenartuza): izendatutako batek.

Lauk esaten dute: seroreak.

Amairu parrokiak aitatzen dute: Auzoko andrea. Ona zeintzuk diran era zer dioten:

Anoeta: 'auzoko emakumeak... (berak eramaten ditu) eleizara eta eskeintzan aldarera ogi ta kandelak...'.

Bolibar-Ugazua: 'ildakoen etxetik gertuen dagon baserriko emakume batek'...

Ernialde: 'auzokoak'.

Idiazabal: 'aldekoak'.

Larraul: 'Auzoak. Batzuetan aideak. Etxekoandreak'.

Asteasu: 'Auzuak'.

Berastegi: 'Auzoko etxekoandreak edo ordezkoak'.

Elduayen: 'Auzoak'.

Gellano (Eskoriatza): 'Auzo urruneko emakume batek',

Lazkao: 'Auzoko andre batek entierro egunean eta etxekoak beste elizkizunetan'

Zizurkin: 'Auzoak'.

Lekeitio: 'Auzuak'.

Aduna: 'Etxe ondokoak''.

Bi gauza auek aitatzen dira emen geien: auzoa eta emakumea (auzoko emakumea, naiz serora, naiz emakume bereizi bat artarako aukeratua...). Noiz beinka etxeoandrea naasten da tartean.

L azaku'n, berriz, etxekoak eta auzoa bereizten dituzte euren artean: illeta-egunean, auzoa; onra edo bestelako eleizkizunetan, etxekoa. Entierro eguneko illetan badirudi etxekoak ez daudela bertan, auzokoak egiten bait du ofrenda-eskeintza, etxearen izenean, etxekoak bertan ezbaleude bezela. Zergaitik?

Bereiztasun ori beste zenbait gauzetan ere nabari da ildakoeri buruz. Esate baterako, onra-eleizkizunak nagusiagoak izaten ziran entierro eguneko illetak baiño. Entierro-eguneko illetak garrantzi gutxiako dute elizan. Zergatik?

Ugarte'n ikusten genduan illeta-eleizkizun guztiak sepultura gaiñean amaitzen zirala, eta sepultura da eliza-barruan etxearen zati bat, etxeakin batera salduko dana. Zergaitik?

Erri geienetan, illetak bukatu ondoren, eleiz-atarira irten bear zan aizken erresponsoa ateratzera, eleizatik kanpora. Eta ori asko ez dala, etxera bertara joan ere bai apaiza. Eta batez ere, apaizik gabe, segizioan, prozesioan, etxera biurtzen dira bertan otoitz egitera bazkari-aurretik... Zergaitik?

Gaur eguneko pentsakera moduan ez daukagu galdera oientzako erantzunik; baiña, aurrerago abiatzen bagera, argia billa genezake. Ona argitxo bat: entierro egunean auzoak egiten du eskeintza ildakoaren etxearen ordez. Ori, ordea, ez da egun orretan bakarrik gertatzen: auzoak artzen ditu beregaiñ gaixoak berekin dakarzkin gora--bera guztiak etxean, medikuari edo apaizari ots egitea eta abar. Etxekoak etxean gelditzendira eta auzoak irtetezen dute kalera... Entierro egunean berdin gertatuko zan egunen batean, etxea berbera bait zan eliza, etxean eortzen bait ziran ildakoen gorpuak, etxean egiten bait ziran eleizkizunak... Kristautasunak eraman zitun illobiak etxetik kanpora, eleizara; baiña, eortzi-lekua, sepultura, etxearen zati bat besteri ez da gaurko egunez ere; eta etxetik sepultura orretara ez da bide bakar bat besterik izan bear: 'gorputz-bidea'... Etxetik eleizara eraman ziran, gorputzakin batera, illetak; baiña, leengo oitura zaarren kutsua ez da era bat galdu; irauten du gure oituretan, lapak aitzari elduta bezela...

## NUN EGITEN DUTEN ESKEINTZA-OFRENDA ORI

Sei parrokiak 'sepulturan' erantzuten dute.

Besteak ez dute erantzunik amaten.

Sepultura etxearen luzagarri bada, etxean egitea beste da sepulturan egitea...

## SEPULTURA-BIDEAK

Bizi-lekua izan zan antxiña-antxiñan sepultura eta illobi.

Kristautasunak etxetik eleizetara eraman zitun illobiak; baiña etxeak eta eleizetako illobiak, biak lotuta gelditu ziran, ama eta aurra zillaren bitartez bezela. Biak, etxea eta illobia, alkarrekin batera erosi eta saltzen dira. Orretan oraindik ere biak bat egiten dute.

Beste gauza bat ere bada bien artean, alkarren arteko zilla eta auxe da: etxe bakoitzak bide bakar bat dut eleizako illobirarte eta bide ortati kaparte ezin leike gorputzik eraman. Erromatarren 'iter ad sepulchrum': illobira-bidea, alegia. Illeta egunean, gorpua beti bide berdiñetik eraman bear da eleizara: antxiñatik baserri bakoitzak duen bide artatik.

Bide orrek bere izenak ditu Euskalerrietan.

Guri erantzuna emandakoetatik ona 1970'an zer izen zituan bide orrek:

'Gorputz-bidea" (Alkiza, Aduna, Anoeta: korputz-bidea, Idiazabal, Gatika, Usurbil, Azkoitia, Deba, Errezil, Igeldo, Lazkau, Oyartzun, Zumaia).

'Gurutz-bidea edo Kurtze-bidea': Bolibar-Ugazua, Larraul, Azkoitia, Deba, Gellano, Ezkioga, Mundaka.

'Eliz-bidea edo Eliza-bidea': Mutiloa- Zizurkil.

'Anda-bidea': Aulestia, Berriatua, Ibarrangelua, Fika, Etxebarria, Lekeitio.

'Andari-bidea': Meñaka.

Tll-birea': Asteasu.

'Aingeru-bidea': Mundaka.

'Erreka-bidea': Arama.

'Otoitxua': Labayen.

'Camino de cadaver': Zalla (125).

(125) Ona 1923'an bide orren izenak: *Andabidea* (Orozko, Dima, Zeberio, Bedia, Zenarruza, Berriz, Arbazegi, Aulestia, Amoroto, Mendeja, Lekeitio, Bedarona, Ea, Natxitua, Ereño, Gautegiz-Arteaga, Forua, Kortezubi,

Baña bide bereizi auen oitura galtzen ari zaigu. Ona zer dion Bolibar-Ugazua'ko erretoreak:

—'Oraindik izendatzen dira oiek, bañan asko galtzen dijoaz bide-zabal berriak etxe geienetara eltzen diralako, eta gorputzak ekartzen dira baserritik elizara bide zabaletik "automobil" aparteko batean; gero ill-obitegira eramaten dira gorputzak kurtze-bidetik eta bide erdi inguru ontan arri-burnizko kurutze aurrean erresponsoa esaten da ildakoaren alde ta ildako guztien alde, eleiz aldera biurtzerakoan ill-obitegitik".

Ona Azkoiti'ko berriak ere:

—'Urte gutxi onuztik iriki berri dira bidezabalak Erri onetatik Auzo danetara Kamiñu oiek egiñ aurretik, basarri danak zuten beren gorputzbidea, eta au ezergatik itxi eta begirunez betea eta oso sagaratua. Gaur basetxetako il-gorputzak berebilletan ekartzen dituzte bidezabal berri oietan zear'.

Eta Mutiloak:

—'Dirau arren, orain, erosonetik ibilli oi dira, batez ere kamiño bide berrietatik'.

Mundaka:

—'Orain familiak nai dun bidetik etortzen da, edo eramaten da'.

Ugarte:

—'Oraindik denbora gutxirarte ondo begiratzen zitzaion oni, baño, gaur galduda oitura ori, bide berriak egindielako eta iritziak oso aldatu direlako. Txorakeri jotzen dute gaur oitura ori".

Arrazua, Mujika, Morga, Amorebieta, Elgoibar). *Korputz- bidea:* (Bidania, Goyaz, Albistur, Andoain, Hernani, Astigarraga, Alza, Elgoibar, Deba, Iziar, Arrona, Zestua, Aizarna, Aizarnazabal, Oikia, Artadi, Zumaya, Getaria, Zarauz, Aya, Aginaga, Usurbil, Asteasu, Zizurkil, Aduna, Amasa, Irure, Amezketa, Ataun, Igeldo eta Oyarzun). *Kurtzeko bidea, Kurtze-bidea, Gurutz-**bis**-dea, Kurutz-bidea:* (Meñaka, Salinas de Leniz, Ezkoriatza, Zegama, Elduayen, Ikaztegieta, Orendain, Idiazabal, Motriko, Alegia-Oria, Legorreta, Albalzizketa, Gainza, Lazkao, Zerain, Segura, Mutiloa eta Anzuola). *Eliz-bidea:* (Zeberio, Bergara, Anzuola, Oñate, Araoz, Legazpia, Bera, Lesaka, Aranaz, Yanzi, Etxalar). *Erri-bidea:* (Ondarrabi, Andoain, Sorabilla, Alza, Lezo, Zubieta). *Auzotegiko bidea:* (Zeberio). *Difuntuen bidea:* (Etxalar, Bera, Yanzi, Lesaka, Aranaz). BONIFACIO DE ECHEGARAY, op. cit., 51 orr. *Anuario Eusko-Folklore,* III, 1923- Vitoria.

Zumaia:

—'Aztuxamarrak daude. Etxeko bat joaten zan gorputzaren aurretik, eskuan urbedeinkatu ontzia zuela'.

Deba:

1955'an, negu-biotzean elurra zalarik, "Lasao" baserriko etxekoandre zaarra il zan. Ibai-beste-aldetik dago Lasao baserria, Mutriku partean, baiña eleizarako Deba'ra datoz beti eta gorputza ekartzeko, bide errezak utzita, Buztiñaga baserriraiño igo bear izan genduan eta andik Urasandi baserrira jetxi basa eta edurartean, bidekutzetan "Pater Noster" bat errezatuz... 1970'an, berriz, bidezabalera datoz zuzen-zuzenean, ibaia pasata, gorputz-bidea utzita.

Ona beste gertakizun bat: 1970-XII-23'an Manuela, Artamendi baserriko etxekoandrearen lur-ematea eta eleizkizunak izan ziran. Artamendi baserriko gorputz-bidea Sanroke ermitatik dator. Bide luzea eta oiñezkoa. Etxetik gertu, ordea, bide berri zabala egiña dute. Aideak kamiño berritik nai izan dute gorpua ekarri eleizara:

—Ori ez da sekulan gertatu Artamendi baserrian-zion etxekojaun gazteak.

—Oiek tontokeriak dituk-erantzun zioten besteak.

—Ba, etxe ontatik denak gorputz-bidetik joanak dira, eta ortik, bide berritik joan bear badu onek, lenengo bidea bedeinkatu, jauna--zion apaizari gizon gazteak. Apaiza Enrike Larrañaga zan, Deba'ko koajutorea.

• * «

Gorputz-bideko kurutze batean erre oi da ildakoaren lastaira Benabarreko zenbait errietan (126).

Lastairak arto-malutakin egindako oeetan jartzeko etzagarriak dituzu. Erretzen errezak eta berritzen ere bai, arto-maluta etxean biltzen bait zuten udazkenero.

Lastaira erretzeko oitura oso zabaldua zegoan Euskalerrietan; batez ere kurutze-bideetan.

• • •

(126) **BONIFACIO DE ECHEGAKAY,** op. **Clt.**

Beste oitura bat ere bada kurutze-bideetakoa: erresponsoak errezatzea, alegia, gorputzarekin eleizara joaterakoan.

72 parrokitik 26'ek badute oraindik ere oitura ori, 1970'an.

Arizkun'en gogoratzen dira, egiten ez badute ere, leenago gurutze-bideetan Gure Aita esaten zala gorputza eleizara eramatekoan.

Geienetan erresponso oiek kurtze-bideetan (encrucijada) esaten ziran apaizaren aotik. Baiña besterik ere bada: Labayen'en eliza-barrenean esaten dute otoitz ori. Alkiza'n 'leku izendatuak' dauzkate orretarako.

Eta Gatika'n ez ditu apaizak esaten, sakristauak baizik.

# # #

Etxetik eleizarako bidea ez aldatzeko bada beste arrazoi bereizi bat ere eta auxe da:

—"Leenago, esaten dutenez, korputza pasatzean bidea zor zan'. Ala dio Amezketa'ko erantzunak. Guri emandako erantzunetatik emezortzi baieztendute ori. Gorputza, gorputz-bidetik alde pasa ezkero, pasatako bide berri ori zorpean gelditzen zan, eta bertatik pasatzeko eskubideak sortu edozeiñentzat. Bertatik pasabearra baldinbazan, orduan, lur aien nagusia aurretik joan bear zan, lurrak zorpean, geldituko ez oaziran.

Orren kezka bada oraindik Zumaia'n, gauza garbi ikusten ezbada ere:

—'etxeko bat joaten zan gorputzaren aurretik, eskuan urbedeinkatu ontzia zuela... Leengo zarrak ez omen zuten nai gorputz-bidetik ateratzerik...'

Eta Deba'n-

Iparragirre baserriko jaun gazteak esan zuana ere orren antzekoa da. Berak ez zuan nai gorputz-bidetik ateratzerik (1970-XII-23'-an) eta senideartekoak beartuta egiten duanean, onela dio apaizari:

—'bide berritik joan bear badu onek, lenengo bidea bedeinkatu, jauna'

Gai oneri buruz onela esaten digu Bonifazio Etxegaray jaunak:

—'Sin pecar de hiperb61ico, puedo asegurar que en todo el Pais Vasco enclavado en la vertiente cantabrica se participa mas o menos de la creencia que afirma que alla por donde vayan la Cruz o el feretro en un entierro se abre una senda publica..." (126).

## TELLATUPEKO EORTZEAK

Leen illobiak etxean zeudela esana daukagu eta etxetik illobiak atera zituztenean bien arteko loturarik ez zan eten eta or agertu degu lekuko eta testigu gorputz-bidea; bera bait da etxea eta sepulturen arteko lokarria.

Illerria etxetik atera bazuten ere, oraindik ez da galdu oitura orren arrastoa. Bizi da bataio gabe iltzen diran umeen lur- ematean.

Deba'n bizi dan itziartar Lorenza Oñederra' esaten dunez:

•—'aur-launak eta aur-galduak istilla-barruan lurperatu bear dira'.

Ona Arrona'n gertatua, gure azterketatik jasoa:

—'Tellatupean lurperatu zuten oraindik orain (zion 1970'an bertako apaiz Arostegi jaunak) garaia baiño len jaiotako bat. Abortu zala ta etzela bai istillu gorriak jarri ere guardia cibillak'.

Ituren'en:

Orain ez baiña leenago, bai 'etxeren batean'.

Arama, Gellano, Ibarrangelua, Meñaka, Mungia'tik etorri diran erantzunak diotenez, orain tellatupean iñor eortzen ez bada ere, leenago bai egiten zan ori.

Arri-aroko oitura zaarra ez da era bat aldendu gaur-eguneko euskalnen burutik eta oituretatik.

# SEGIZIOA

Etxea bera sepultura izan da Alkarren ondotik banatu zituztenean, bidea gelditu zan bien arteko lokarri eta lotura.

Goazen orain bide orretatik dabiltzan kristauak egitendutena ikustera. Berrogei urte baiño geiago da, Lekeitio'n entierrotan, danen aurretik beltzezko andre bat, zapi zuriz estalitako saski edo otartxo bat buruan, ikusten gendula. Bere ondoren zijoazen apaizak, gorputza eta segiioa (onra-buru edo mindunak) eta ondoren erri guztia.

Begira 1923'an Oyartzun'en zer-nola gertatzen ziran gauzok:

Lenen zijoazen ofrendak ondoren gorputza, irugarrenez gizonen segizioa mindunak buru zirala, eta gizon-sailla; oien atzetik emakumeak mindunak buru zirala...

Apaizak bide-erdira etorrita, ofrenda eta gorputzaren tartean sartzen ziran...

Urte-urrun guztian senideko bat eleizkizunetara, ofrendak egitera, etortzeari deitzen zaio 'segizio'...

Mindunen jantzia beltza bear du izan; gizonak kapa luze beltza eta iru muturreko txapela... Andreak, berriz, burutik beerako manto beltza oiñetaraiño eta aurre-mantel txuri txikia...

Bederatziurrenean, eleizara joateko, onela egiten dute segizioa artarako biltzen diran emakumezkoak:

Oyartzun'en beste erri askotan bezela, baserriak ugari diranez eta etxeak urrutikoak, etxetik bertatik ez dute bederatziurrena egiten; orretarako kalean etxe bat aukeratzen dute beuren etxearen ordez. Etxe orren bebarruan aldatzen dira bertatik segizioan eleizara joateko diran emakumezkoak: ildakoaren senideak (mindunak). aideak, auzoak eta besteak. Ordenan jartzen dira, mindunak atzetik dirala. Eleizan bertan andre bakoitza bere etxeko sepulturara joaten da eta sepultura-gaiñean argizaria piztu eta ofrendarako daramaten kandela ere bai, gero Mezatan apaizari eskeintzekoa. Eleizkizunak bukatuta berriro segizioan orain mindunak aurretik, lengo etxera eta an lau edo sei "Pater Noster" errezatzen zituzten. Eleizan ez ziran eleizki-

zunak bukaten, 'etxean' baizik' (kalean aukeratu dan etxean baserrien ordez)... (127).

Ikus dezagun oraiñ gure 1970'go azterketak zer dion gauz oneri buruz. Segizioa da gorputz-ondoren dijoan onra-burua (senidearteko eta auzoak osatzen dutena) eta jende artetik bereiziki aparte.

72 erantzunetik, batek ez du ezer esaten, beste lauek ukatzen dute eta ondorengo guztiak baieztendute segizioaren izatea, oariñ ez bada, leenago beintzat bazala:

Gautegiz-Arteagak ez du erantzunik.

Arrona'k ez daki. Tzena bakarrik dago. Ardoa ta galletak artzeari deritzaio 'Segizia'.

Igeldo, Labayen, Etxebarria eta Bedia'k ezezkoa erantzun dute.

Baiezkoa (oraiñ edo leen) beste guztiak.

Zer ordenatan dijoaz gizon-andreak?

Lenengo gizonak beren segizioakin eta gizon taldea ondoren. Auen atzetik emakumeen segizioa eta emakume-taldea. Orrela dijoaz: Ezkurra, Huarte-arakil (nola nai ere bai), Ituren, Leiza, Elizondo, Errazu, Alkiza, Aduna, Alzaga, Amezketa, Anoeta, Arama, Aya (Ataun), Aya (Zarauz), Bolizar-Ugazua, Ernialde, Goiaz, Itxaso, Idiazabal, Larraul, Mutiloa, Ugarte, Usurbii, Aulestia, Aspe, Berriatua, Bolibar, Ea, Gatika, Ibarrangelua, Meñaka, Mungia, Astigarribia, Asteasu, Azkoitia, Deba, Elduayen, Ezkioga, Gellano, Igeldo, Larrino ta Aozaraza, Lazkao, Oikia, Olaberria, Orio, Zizurkil, Fika, Lekeitio, Morga, Mundaka, Zenarruza.

Nola nai: Huarte-Arakil."

Batera gizon eta emakumezkoak: Bedarona.

Alkatea segizioaren aurretik: Leiza, Berastegi.

Gizonak bakarrik, emakumezkorik gabe: Tolosa, Zestua.

Emakume utsa, gizonezkorik gabe segizioan: Oyartzun.

Zumaia'n (Arrona'n bezela) 'segizioa deitzen zaio illeta-elizkizunen ondoren, elizatik ogi-ardoak artzeko lekuta juteari". Badirudi, berriz ere, illetak ez dirala eleizan bukatzen, segizioa irauten bait du gero ere ogi-ardoak jateko lekurarte...

Gizonak zer ordenatan?

(127) *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 7-83 orr.

'Auzoa aurrena, etxekoak urrena, gero besteak': Alkiza.

'Auzoa lendabizi eta urrena zarrenetik gaztena etxekoak, urrena aidea...': Anoeta.

'Auzokoa. aurretik familikoakin': Idiazabal.

'Aurrena senideak': Ernialde.

'Etxekoak aurrena': Mutiloa.

'Senide urienak aurrenengo': Aulestia, Berriatua.

'Primero familiares hombres': Gatika.

'Etxekoak azita': Asteasu.

'Senide aurrelenak': Azkoitia.

'Senidetik asita': Larrino ta Aozaraza.

'Gertuenekotik azita': Olaberria.

'Etxekoak azita, ondraburukoak filan': Lekeitio.

'Alkatea, senideak, erria': Berastegi.

* # #

Bereiziki Azkoiti'ko erantzuna agertu nai nuke. Ona zer dion erantzun orrek:

'Zer ordenatan joaten dira? —Lendabizi gorputzaren atzetik illeran batera, ildakoaren seniderik arrekoenak, beste gizonek danak pillan jarraitzen diotela. Oien atzetik emakumeak, eta tarte batekin, beltzez jantzitako illaren sendiko im emaume, zapi belt zabalakin burua ta bizkarra estalirik dutela.

Leenago ba zan?

—Orain berro^embat urte arte SEGTZIO au gizonezkoen artean, beste era onetara joan oi zan: Gorputzaren atzetik lenbizi, illaren seniderik urrekoena, leenago apaizak erabilli oi zuten manteo beltz zabalakin bildurik, eta ondoren, banaka auek ere, beste senideak mallan zegokietenez, eta gero osteuntzeko gizakume danak taldean. Emakumeak, gaur bezela, baña azkena joaten diran iru emakumeen atzetik, zerorea joan oi zan zapi beltzez estalitako otarran illaren etxeko argizariak eramanaz. Illetak bukatu ondoren, era onetan erten oi zuan jendeak eleizatik: Aurrena, etxetik eleizara gorputzaren atzetik manteo beltza jantzita etorri zan illaren seniderik urreena eta onekin batera apaiz bat sobrepelliz gabe, eta ondoren banaka ta biñaka, sendiko, aide ta gizonezko geienak. Gizon auek, kale ertzeko espa-

loian zear joanaz, Ondraetxera zuzentzen ziran, eta bertara irixtean, berakin etorri zan apaizak errespontzoa ta estazioa errezatzen zituan, "dueloari" bukaera emanaz. Gero, bazkaitarako ziranak bertan geratuaz, besteak bakoitza beren etxeetara sakabanatzen ziran'.

Emen ere garbi ikusten da illetak ez zirala eleizean bukatzen "onratxean" baizik: orretarako baserriak aukeratuta zeukaten etxean, beurena urrutian zegoalako danekin bertara joateko.

Azkoitiko 1781'eko erderazko dokumenturik bukaera emango diogu erri ortako berriai. Ona zer dion segizioari buruz idazti orrek:

'Acompañamiento a la Iglesia. En el entierro concurren a la Casa todos los Cavalleros y personas visibles del Pueblo seculares y acompañan a una con los Inquilinos al cadaver y al que hace el Duelo... En las Honras acompañan a la Iglesia los mas de los eclesiasticos con mameos, y todos los seculares de negro, y muchos de estos acompañan a la buelta a Casa ...en el entierro y Honras asiste todas las' Señoras y otras muchas mugeres clel Pueblo y las Inquilinas a la Casa y acompañan ala que hace el Duelo a la Iglesia, y despues a Casa. En todos los dias del Seguicio y rnientras duran los Oficios de Misas y Visperas siempre la acompañan tambien algunas... aunque no con el teson de entierro y ITonras... (Antonio M/ de Zavala y Aguirre)'.

# # #

Lazkau'ko erantzuna ere interesgarria da. Ona zer dion:

*'Segkioa*: Auzoko emakume batek saskitxo batean eramaten zituan lau ogi lau librako ildakoa umea ez bazan, zapi beltzez estalifa; eta umea bazan, orduan, bi bi-librakoak trapu zuriz. Jende guztien ondoren joaten zan emakume au.

Andre ori egoten zan sepulturan argiziai kontu artzen, ofrendan lautik ogi bat eman, eta erresponsoak atera Meza ondoren. Beste irurak sepultura gañean gelditzen ziran.

Uleta ondoren (gorputza eliz-klaustron bait zegon bitartean) irteten zuten seeizior„n: etxeko gizonak aurretik, familikoak ondoren, auzokoak urrena eta erriko beste lagunak. Gero emakumezkoak ordena berean. Eliz-atarian gizonak ezkerretara eta emakumezkoak eskubira ta erdian apaiza erresponso bat ateratzeko: Gure Aita bat.

(Erresponso au berdin-berdin ateratzen zan Deba'n ere, gorputzik gabeko illeta-eleizkizunetan, oraintsu arte).

Gero irtetzen zuten denok, apaiza eta akolituakin, kanposantu aldera ta gurutz-bide batean gelditzen ziran "Gure Aita" bat errezatzeko... Andik aurrera *illoizalek* bakarrik joaten ziran. Beste *segizio* guzia joaten zan ordenan bazkaria zeukaten etxera ta an sartu ta "Pater Noster" bat errezatzen zuten.

Lazkau'ko illerria berria da, Migel Elosegi jaunak egiña, ta erritik aparte dago muiño baten gaiñean, Lazkau-mendi bidean; 1918 aurretik kanpusantua, zaarra alegia, erriko plaza ondoan zegoan eta segizioa ara zijoala, bazkaria zuten tabernan sartzen ziran gorputza aurretik bera bakarrik bialduta (segiziorik gabe), "Gure Aita" bat errezatzeko, ta bertan bazkaltzeko.

Bederatziurrena: Mezak, bi librako ogi bat egunero, argizaia piztu ta erresponsoak atera... ta Meza ondoren segizioan eliz-atarira irten an erresponsoa ateratzeko. Andik tabernara joaten ziran ogia ta ardoa artzera gizonak, eta gailleta gozoak ardo gozoakin emakumeak. Etxekoak, familikoak eta auzokoak ziran bederatzi egunetan joaten ziranak Meza eta amarretakoa egitera. Etxekojauna, etxekoandre ta seme-alabekin, famili ta auzoekin.

Tabernan bi gela zeuden bata bestearen ondoan. Gizonak batera eta emakumeak bestera. Elizatik ara segizioan seriotasun aundiakin.

Tabernara eldutakoan ogia jan ta ardoa edan. Orren ondoren emakumezkoak biltzen ziran gizonen gelara ta *an danak* alkarrekin, *orduan* errezatzen zuten "Gure Aita" bat.

Otoitza *emakume* batek (auzoko batek) zuzentzen zuan

Honrak: Bederatziurrena amaitzean honrak ziran: entierro egunean bezela; bañan orain *etxeko guziak* etortzen ziran illetara, entierro egunean egiñ ez zutena...

Tabernara (aukeratutako jateko-rokira) joan eta andik segizioan elizara, danen atzetik auzoko emakumea saskitxoan ogiak (lau-librakoak) zitula...

Eleizkizunak entierroan bezela. Ofrendarako ogia, erresponsoak sepulturetan ondoren, argiak piztuta...

Dana amaitzean, segizioa eliz-atarira, apaizak bere erresponsoa, eta ondoren segizioan jan-tokira... Jan (entierroan bezala) emakumeak alde batean, gizonezkoak bestean... Aizkenean "Gure Aita" bat, au-

zoko emakume bat zuzendari dala... Mantoi-beltzekin joaten ziran emakumekoak, gerritik-berakoak...'.

Ez zuten llletarik amaitzen "etxera" joan gabe.

Eta aukeratutako etxe orretan jan eta otoitz egiten zuten: biak batera.

Ori egiteko segizioa bear, seriotasun guztiekin, eleizako illetak era bat amaitzeke geldidu balira bezela. Eta kanposantua bertan zegoalarik (1918'arte), gorputza apaizakin eta eramaillekin utzi, eta segiziokoak jan-tokira otoitz egiñ eta jatera; arazo au garrantziagoa balitz bezela, gorputzari lur-ematea baiño...

Eleizizun guztiak, illen aldekoak etxean bukatzen zirala, alegia. Eta oitura ori oso ondo dator etxea bera eliza zaneko oitura aiekin. Gure buru-moldeetan orduko oituren urratsak irauten dutela...

### OFRENDAK SEGIZIOAN.

72 parrokietatik 22'k leenago eramaten zituzten.

25'ek oramaten dituzten oraindik ere.

Ogia eta argizaria eramaten dituzte. Leku batzuetan otarra edo saskitxo bat utzik. Dirua ere bai, ogi eta argizariakin batera.

### ZEÑEK ERAMATEN DITU?

Ontan erantzuna berdiña guztientzat: emakume batek.

Illen aldeko ofrendak emakumeen eskuetatik datoz.

Emakume ori nor dan galdetzen badegu, erantzuna ez dira berdiñak:

"Andre batek", emakumeak, "zerorak,", "auzoko neskatxa bate", "auzoak...".

Erantzun onek agertzen digu berriro, ofrendak emakumezkoak egiten dituztela, alde batetik eta bestetik berriz, gorputza etxetik ateratzen dan orduan, etxetik kanpora balitz bezela jokatzen dutela ildakoaren senitartekoak, eleizara gorputza eraman arren, eta, une orretan, auzokoeñ gaiñ gelditzen dirala, lan oiek. Etxean bai etxekoak dituzu eskeintzaille baiña etxetik at, sepultura gañean ez bada, auzoko edo izendaturako beste andra bat izango dezu arduradun. Sepultura

edo yarleku gañetan egiten diranak etxean egiñak bezela dira, etxearen luzagarri bat besterik ez baitda elizeetako sepultura.

Orregaitik emakume berria baserrira datorrenean sepultura-artzea'egiñ oi du, ez du naiko 'etxea-artzea'. Ona Amezketa'n zer gerta oi zan, bertako apaizak digunez:

—"Etxekoandre berria Meza Nagusi barruan sepulturaz jabetzen zan erresponsoak bestei zabalduaz eta bestienak jasoaz. Oitura au galdu da..."

Ona Lazkau'ko erantzuna:

—"Etxeko maiorazgoa ezkontzen zanean (seiñalea sepulturea etxearena zala), andre gazteak sepultura-artzea izaten zan Meza Nagusian. Aurretik Bikario jaunak aitzera ematen zuan sermoaiean: Alako etxeko sepultura-artzea izango da datorren jaien'".

1923'an beste orrenbeste egiten zuten Ataun'en ere: andre berriak erresponsoak eskeintzea, alegia, sepultura gañean ezkondu-ondorengo igandean... (128).

Frantzialdeko euskalerrietan ezkontza ondoren etxeko denak tonbara joaten dira ildakoen alde otoitz egitera (129).

Caro-Baroja'k dio ezkontza ondoren andre berria eta amagiarreba joaten zirala sepulturara eta an onek arreri argizari-bildumena, ogia eta kandela bat ematen ziola sepultura artzean, eta Azkue'k diola, etxekoandre zaarrak berriari, etxeko-gobernua emateko, burruntzia eskeintzen ziola sutegian bertan. Au gertatzen zan Bera-Bidasoan (130).

Etxeko-sua eta etxeko-sepultura, orra biak batera eskeiñi kanpotik etorri dan andre berriari, etxearen jabe egiteko. Sutegia eta sepultura biak alkarrekin eta sutegia da etxearen biotza. Etxea eta sepultura alkartuta. Eta etxekoandrea bien jabe.

\# * *

Segizioan emakumezkoa dala ofrenda-eramallea esana daukagu,

(128) J. M. DE BARANDIARAN, *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 122 orr.

(129) JUAN THALAMAS, *Anuario Eusko-Folklore.* XI, 1931. Vitoria, 49-52 orr.

baiña, aitatu dezagun berriro arazo au eta ikus Bedia'n, 1923'an gerta oi zana:

Segizioan aurretik emakume bat joaten zan eta bere izena zan "aur-ogie"; ondoren gurutzea eta apaiza, andariak gorputzarekin, gizonak onra-buruan, ildakoaren aideak lenengo; gizonen ondoren, emakumezkoak, eta azken-azkena beste amakume bat iau-librako bi ogirekin saskitxo batean eta buru-gañean (131).

Baiña, mundu au txikia da eta emen gertatzen diranak gerta oi dira Euskalerritik kanpora ere: Freibergen'en (Suiza) segizioa etxetik irtetzerakoan, danen aurretik, andre bat joaten da zapi zuri balean librako edo bi-librako ogia eskuetan dula (132).

Lan geiago ere badu amakumeak ildakoeri buruzkoak. Ona batzuek:

Ziga'n (Baztan) difuntuaren gelan "olzako-oila" ipintzen zan, "egunezkoa". Oial ori zan andre berriak, bere arreoan, ezkontzarako ekarri bearrezkoa (133). Ildakoen gorputzak ere emakumezkoak jazten dituzte (134).

Euskal-baserrietan etxeko-eleizkizunak emakumezkoak egiten ditu-dio Barandiaran'ek. Berak argia eta janarkk etxeko ildakoen alde eskeintzen ditu; Berak beiñ, eetxekoak bedeinkatzen ditu, berak erakuzten die etxekoeri ildakoenganako bearkizunak betetzen, baita zaarrenganako begirunea eta azuzokoekin kunplitzen. Gizona artzantzan eta bera etxe-ondoko lurrak laboratzen, ildakoenganako bearkizunak betetzen eta etxeko sua zaintzen... Orrek zekarkion emakumeari errespetoa eta aalmena... (135).

Etxea beti izan da leku sagaratua Euskalerrietan.

Lege-zaarrak ondo asko argitzen du ori Bizkaiko Fueroan (ley 3.ª Titulo XVI) dionean, ez dagoala eskubiderik bizkaitarrak preso

(130) CARO-BAROJA, op. cit., 151 orr.

(131) TIBURCIO IZPIZUA, *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 15 orr.

(132) MARGALIDE LE BONDIDIER, op. cit., 24-25 orr.

(133) *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 130 orr.

(134) CARO-BAROJA, op. cit., 168 orr. Eta *Anuario Eusko-Folklore,* 1923, 23 orr.

(135) J. M. DE BARANDIARAN, *Mitologia Vasca.* Ed. Taurus, 1960, 64-66 orr.

zartzeko zorragaitik, ezta bere etxetik botatzeko ere... Legeak berak debekatzen du merinoa eta alguazilla bizkaitarren etxeetan sartzerik nausiaren borondatearen kontra... eta abar.

Errespetoa zor zaio etxeari.

Leengo oitura zarrak aaztu badira ere (etxea eta illerria alkarrekin zeuden garaiko oiturak) beuren kutsua eta urratsak ez dira era bat galdu oraindik. Leenago eleizkizunak ildakoen alde etxean bertan egiten ziran eta etxean bertan zegoan apaiza. Orregaitik edo, oraindik ere, baserrietan maiorazgoak artzen ditu beregaiñ etxekoen aldeko eleizkizunak eta illetak, bear dan eran eta kategorian, egiteko bearkizuna. Testamentuetan eta ezkontza-kontratuetan argi ta garbi agertzen dira bearkizun oiek. Sendi bakoitzak du bere etxea: gurasoen eta arbasoen jatorria, bizi-lekua eta illerria (eleizako sepulturetan besterik ez bada)... Etxea eta sepultura biak batean bear dute beti eta ez dira sakabanatuko alkarrendik, ez etxerik zatituko ere anaien artean. Etxea eta etxearen izate guztiak esku bakar batera joan bear dute beti; bere izatean iraun dezan. Orregaitik, denak, maiorazgoentzako izango dira etxe eta sepulturak. Baiña, ordaiñetan, bera izango da illeta guztien arduradun nagusia, naiz eta gero emaztea ibilli eleizkizunetan (136).

(136) **BONIFACIO DE ECHEGARAY, Op. cit.,** 17-18 **OH.**

## ILDAKOARI OIÑAK LOTZEA

Ildakoari oiñak lotzea oitura oso zaarra da gure arrean; Arriarotik dakorkigun oitura. Gaurkoz era bat galdu dala esan genezake. 1970'an egindako galderakizunetan, gutxi aitatzen dute oitura ori eta iñortxok ez daki zertarako egiten zanik. Ona erantzunetatik exenplu batzuek:

Haurte-Arakil: 'Eskuak lotzen ziran gurutzetxo bat atxikitzeko'.

Ituren: 'zinta beltz batekin elkarri txorkatilletatik ankak zabaldu ez ditezen'.

Amezketa: "galartsu beltzakin, biltzeko'.

Zumaia: 'batzuek... txorkatilletatik. Aingeruak beatz aundietatik zinta batekin. Zergaitik? Gorputza itxura egokian gelditu dediñ'.

Ibarrangelua: 'Oñak zuzen egon daitezen'.

Orra 72 parrokien erantzunetatik atera aal izan deguna.

Zeratarako eta zergaitik zan oitura ori iñork ez daki 1970'an...

\# # *

Guk, ordea, triku-arriak aztertu ginduzen (oraiñ millaka urtekoak) eta beoietan espirituen-leioak bazirala ikusi ere bai. Txikuarritik irten eta trikuarrira sartu zezateen espiritu oiek.

Espirituak badute mogimendua eta ibilli-dabiltz. Baiña, espirituekin topo egiteaak ozkiria sortzen digu bizkar-ezurrean goitik beeraiño. Eta, oiñak lotzen badizkiegu...?

Arri-aroko gizona maiz obiratzen zuten belaunak bilduta eta lotuta. Eskuak eta oiñak lotzeko oituraren urratsak gureraiño eldu dirala ikusi berri degu. 1923'an oitura zabalduago zegoan III Anuario Eusko-Folklorekoak agertzen digunez Bedia'n, Zenarruaza'n, Kortezubi'n, Berriz'en, Otazu'n, Salzedo eta Otxagabia'n.

Ikus Kortezubi'n zer egiten zuten:

—Lenengo eskuak lotu, gero oiñetako galtzerdiak alkarri josi;

baiña, oiñetako eta guzti ba zijoan gorpua, orduan txorkatilletatik lotu (137).

Ildakoen agertzeak bildurra dakar berekin eta ori dala ta Zegama'n ildakoak ankaz-aurretik eramaten dituzte, atzera etorri ez dediñ (138). 1923'ko berriak dituzu auek. Gañera, sinisten zuten ildakoaren arima leioan egoten zala gorputza etxean zegoan arte; gero joatzen zala Jainkoaren aurrera. Arri-aroko gizonaren bildurra oraintxu arte iraundu da euskalerrietan.

Ataun'en zaarrak uzten zutenez Domu-Santu arratsaldetik asi eta Anima-Egunaren eguerdiraiño animak Purgatoriotik alde egiten zuten, laguntza billa (139). Ildako egunean zituzten jantziekin agertzen dira eta Garbitokian badaude oraindik, eskuan argi bana ekarriko dute. Aize-bolara antza artzen dute noizbeinka.

Itzal edo erraiñuaren itxuran ere agertze dira ildakoak; geienetan, gauez eta bide-kurutzeetan.

Badute izena ere: anima-erratu eta izugarri.

Orrelako anima-erratu bat agertzen zala ta izugarrizko iskanbilla sortu zan Lazkao'n 1930'an. Ez zan beiii bakarrik agertu, eta gazteok gebiitzan nundik atzemango anima-erratu ori; baiña, garbitasunik ez genduan sekula atera zer izan zanik.

Siniskeri oiek oso zabalduak zeuden Euskalerrian eta orrelako gertaerak edonun izaten ziran. Ikus 1923'an III Eusko-Folklorean Larrabezua'n, Berriz'n, Galarreta'n, Oyartzun'en, Andoain'en, Zegama'n eta Ziga'n gertatuak (140).

Agertzendiranekin itano izkera erabilli bear da, eta ez zuka. Gañera, esan bear zaio au: zazpi eztatuz ez ari alde eta aurretik. Ori egiten ez badezute lepora salto egingo dizute.

Irakurri ezazu Aita Anjel Madariaga'k 1921'an egindako idatzia:

—"Bermio'n uste ixeten dabe iñor promes bat bete barik il ez-

(137) *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 14, 24, 38, 44, 54, 48,135 orr.

(138) *Anuario Eusko-Folklore.* III..., 109 orr.

(139) *Anuario Eusko-Folklore.* IIII..., 122-24 orr.

(140) *Anuario Eusko-Folklore.* III, 1923. Vitoria, 4, 9-12, 17-21, 30, 35-36, 42,46, 59-60, 83-84, 89-90, 103,111,132 orr.

kero, purgatoriyuen egoten dala arik eta beste batek bere ordez bete artien. Askotan agertuten die olan il eikuen arimak. Eta agertuten yakonari esaten eideutsoe:

—Pañelorik bakozu?

—Bai.

—Ekasu, ba, mesedez.

Ta peñelue, arimiek ukututen deutsonien, erre eitten eida. Oduen arimiek esaten eidotzo:

—Lagun eidazu mesedez San Juanera (Gaztelugatxera) neure biziyen egin eiko promes bat kunpliduten.

Iueten ei die, ba, ta Burgo (Bermeo eta Bakio'en arteko mendi bat) ingerutik Arene,Agarre, San Migel da beste ausuetako etxe batzuk argi-argi egoten ei die, beste batzuk illun. Da arimiek esaten ei dotzo laguneri:

—(jlkusten dozuz an etxe batzuk argi-argi?

—Bai.

—<[Ta beste batzuk illun-illun?

—Bai.

—Ba, argi dagozen etxietan errosariyue erresa dabe geur, illun dagozenetan ez.

San Jan'en, geue ixen arren, atiek be zabalik egoten ei die. Ta promesa kunplidute gero arimie ta lagune etorten ei die lengo lekure, ta orduen arimiek esaten ei dotzo:

'—Ekasu eskue.

Ta eskue ez ei da bero egoten. Ta arimiek esaten ei dotzo:

—Oin banue zerue, ta eskerrik asko zeuri" (141).

Senpere'n, Ifaraldeko Euskalerrian, etxekoandre zarra ill omen zan baserri batean. Arrezkero gauez ez zegon pakerik etxean: arrazoigabe ikuluko abereak marruaz asten ziran edozein ordutan. Zergaitik sortzen ziran gau-zarata aiek ez zuten iñundik ere asmatzen eta erabaki au artu omen zuten: imia (gitzirua) artu eta kandela piztua barruan sartu ondoren aoz-bera jarri, ori bait da xistemarik onena ildakoak geldi-arazteko. Alaz ere gau artan asi ziran berriro ikuilluko otsak eta nausi gaztea jetxi zan kortara, eta antxen zegoan ama ze-

(141) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, *El mundo en la inente...*, 1960, 7,2 orr.

zenaren gañean. Apaizari ots egiñ eta bere otoitzekin aldendu zuan betiko amaren anima (142).

Zergaitik agertzen diran anima-erratuak?

Agindutakoa bete ez dutelako, edo zorretan ildiralako.

Marariaga'k esandako siniskerian animak ez zuan agindurik bete eta orregaitik agertu zan. Era ortako beste gertaera bat ere bada Bermeo'n, 1920'an F. Elantxobe'k agertzen duena:

"1883 garren urtian gertau zan mariñeru bi belaku barku baten yun zirala biejan, ta denborale aundi bat atrapau ebela, da lagun biak eibela promes bat San Juan Gaztelugatxe'ra. Da eldu zirianean errira, aztu ziriela euren promesaz. Gero onetatik bat il zan, da, gero bestia bere etzera yun zanian gau baten agertu yakan il zana, esateutzela:

—,;Etxatzu akordaten ittasuan arako denboralien ein gendun promesa?

Da orduan erantzun eutsan:

—Bai.

Au erantzun ebanak ez eban pentzaten a izango zala bere lagun illa, beste bat baiño. Gero yaki eban, berak bidian esanda, bera zala ittasuan beragaz promesa egiñ ebana. Eldu zirien San Juan'era, eta bete eben euren promesa. Ulek lagundutzan ostabere beran etzera artien, da eskarrak emon da agur egiñ eutzan esateutzela:

—Ni oiñ ondo nau, baña esan biar deutzut agertuko yatzue nire lez beste bat, da kontu areri lagunduterik, ez da parte onekue ta.

Baya, ostebere egunek juen eta egunek etorri, agertu yakan bere lagunek esan eutzan parte txarrekue; baya gizon orreri etxakon akorda beren lagun onak esan eutzan gauzie, da lagundu eutzon, da gero, San Juan en irugarren oñera eldu zanien, ikusi eban beragaz yoianak beste arpegi bat agertute ebala, ta akordau zan bere lagunen berbiaz, ta onetara ezetu eban ezala parte onekua, ta bildurturik ezekien nora jun. Ta oneitako baten ikusi ban bei batsu dajiola etorrela, ta jaurti zan bei orregana bere eskuezaz adar biyetatik oratute eutzala. Beje asi zan saltuka ta iges egiñ eban menditik Bermio'rantz yusturije lez, gure gizona bere adarretan eroijela. Eldu zan erri ba-

(142) JUAN THALAMAS, op. cit., 32-33 orr. Caroline Lasaga'k esana.

rrura, ta erri guztiye ikaratu zan, ta abadiek ez euken beste erremediorik konjuru edo trikimalluek botatie baño. Orregaz batera iges egiñ eban bejek, ta gizona jun zan bere etzera gaixoturik, ta andi denpora gitxi barru il zan ango bildurragaz" (143).

Ildako baten agertzea beti izanen da bildurgarri; baiña, gertaera onetan ikusi degunez, espirituak ez dira guztiak berdinak: euren artean badira onak eta txarrak ere, bizi diranen artean bezela. Parte onekoak eta parte txarrekoak, alegia. Arri-aroan ere berdiñ xamar izango zala uste degu.

Bermeoko arima auek agindutakoa ez zuten bete bizi ziran artean. Bada beste gertaera bat ere Ataun'en, zorretan ildakoaren arimarena. Ona emen:

"Beiñ napar batek Irumugata'ko mugarrie toki batetik bestera aldau ementzon. Iltzanen Irumugata alderraiñ ementzebillen deadarka esanaz:

—Irumugatako mugarria.

Nere animaen galgarria.

Nun sarrr. Nun sar!

Da alako baten:

—Atean tokian zar zak-erantzun emen zion beste napar batek. Urduti aurrea ez ementzan gaiao ezen otsik aittu" (1919'an Felipe Apalategi'k kontatua) (144).

* # *

Bildur izanda ere ildakoeri, etxekoak ziran beintzat. Ona siniskeri oneri buruzko beste esaera bat:

Etxe batean guraso pobre-arloteak bost seme-alabekin bizi ziran, Auzoko aberatsek ez zuten bat ere. Semea nai eta joan ziran txiroen baserrira seme baten eske, baiña aiek, ezetz.

—Ildako semerik ba al dezute?

(143) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, *El mundo en la mente...,* 73 orr.

(144) J. M. DE BARANDIARAN y COLABORADORES, *El mundo en la mente...,* 75 orr.

—Bai, bat badegu.

—Uraxe ba nai genduke semekotzat.

—Ura bai.

Ordaiñetan'artu zituzten diruok. Baiñan, egun batez, ama sukaldean ari nala, orran nun ildako semea:

—Ama! Ama! —Oska.

—Zer dek, seme?

—Ara, ama. Zuentzako zeruan aulkiak aukeratuta neuzkan; oraiñ, ordea, besteentzat bearko dute...

Eta odol-tanta batzuek tximiñitik bota ondoren, alde egiñ omen zuan... (145).

Aurrerago esan degun bezela, beste munduko agerkizunak beti dira bildurgarri eta gure aurrekoak, ortan ere ez ziran besteak ezbezelakoak izango... Alaz ere, etxekoak etxeko zituzten. Senidetartekotasuna ez zan eriotzakin eten.

(145) *Anuario de Eusko-Folklore.* **III.** 1923... 90 **orr.**

## TEILLAK KENTZEA ETA LEIOAK IRIKITZEA

Bateren bat iltzen danean teillatuko teillak kendu izan oi dira (batzuek, alegia) edo eta gelako leioak zabaldu. Oitura auen aztarnak ez dira eta bat galdu oraindik, laister galduko badira ere betiko.

Guk 1970 an egin genduan azterketatik darionez 72 parrokietatik irurek bakarrik aitatzen dute teilla-kentzea. Auek dira: Ezkurra, Ituren eta Igeldo. Ezkurra'k ez digu zergaitik egiten duten esaten. Igeldo'k, ez dakilla, dio zergaitik egiten duten. Ituren'e, berriz:

—"Animari gora-bidea errezteko" —dio.

Juan Thalamas'ek 1931'an siniskeri ori oso zabaldua zegoela Ifarraldeko Euskalerrietan, idazten du eta gertaera batekin agertzen digu siniskeri ori. Ona berak erderaz esaten diguna:

Ostabat (Benabarre) erriko "Goitchea" baserriko andrea oso gaizki zegoen, egunetan, ill-eziñik. Beiñ oetik jeiki eta sukaldera, danen aurrera, etorri zan. Gizona entenditu zion esan-naia eta oean gaxioa sartu ondoren, teillatura igo eta teilla batzuek kendu zituan. Gaxoaren gelara zanerakoz ilda zegoan andrea (146).

Asiera-asierako etxe, borda edo txabolak ez zuten leiorik eta oregaitik animari bidea errezteko" (Ituren'ek zion bezela) goitik egin bear zuloa, gaur eguneko teillatutik teillak kentzea, alegia. Gerorago iriki ziran leioak etxeetan edo bizi-lekuetan eta tximiñi-zuloak. Aueri buruz Dominika Enparaundi baserriko etxekoandre zaarrak, 1935'an, esaten zuan animak tximiñiko zulotik ibiltzen zirela.

Gaurko egunez ez dago, artzaien txabolak kendu ezkero, leio gabeko etxerik. Ori dala ta, bateren bat iltzen danean, leioak zabaltzea errezagoa da teillatutik teillak kentzea baiño. Ez da arritzekoa bada, gure erantzunetan iru bakarrik aitatzen badute teillak kentzeko oitura, ogei izatea leioak irikitzen dituztenak etxekoren bat iltzen danean.

Ogei oietatik iruek ez dute eranfzuten zergaitik edo zertarako

(146) **JUAN THALAMAS**, op. cit., **43 orr.**

irikitzen dan leioa. Beste iruek erantzuten dute ez dakitela zergaitik. Ona besteen erantzunak:

"Usaiakentzeko" (Labayen).

"Usaiagaitik edo" (Mutiloa).

"Kuartoa oreatzeko" (Amezketa).

"Oreatzeagatik edo" (Azkoitia).

"Nik uste det oreatzeko" (Olaberria).

"Aizea garbitzeko" (Aya-Ataun).

"Bear bada aizea garbitzeagatik" (Bolibar-Ugazua).

" Aidatzeko " (Idiazabal).

"Aideagatik" (Aduna).

"Nere ustean gaitz kutsakorra bada ere, ez kutsatzeagatik" (Ezkurra).

. "Higiene" (Ernialde).

"Sanidad" (Fika).

"Gaixo fxarren bategaz il ezero, bai" (Bedarona).

Erantzun guzti auek tankera berdiñekoak dituzu: osasuna darabilte arrazoi bezela eta ez dute geinak ori ziur baiezten. Dana dala baditugu beste bi arrazoi ere. Ona:

"Batek esan dit auzokoari aditzera emateko" (Zumaia).

"Animari irteera erreztearren" (Ituren).

Argia berriro Ituren'dik datorkigu: animari irteera erreztearren irikitzen dira leioak, edo obeto esateko, gelako leioa.

Oitura au zabaldua zegoan 1923'o Anuario Eusko-Folklore'k digunez Bedia'n, Zenarruza'n, Meñaka'n, Morga'n, Kortezubi'n, Berriz'-en, Deba,n Zegama'n. Zegama'n esaten zuten anima leioan gelditzen zala, gorputza etxetik atera arte eta siniskeri onek Zumarraga eta Urretxua'ko gertakizun bat dakarkit burura. 1945'en urte-inguruan zan. Bi erri oietako gazte-multsoak joaten zitan Anzuola'ko baserri batera, tren-bide ondoan zegoen etxe batera. Zertara joaten ziran? Leio bateko kristalean omen zegon ildako baten animearen irudia eta uraxe ikustera. Leioa iriki gabe gelditu, nunbait, an bertan bat ill zanean eta kristaletik anima pasatzean, bere arrastoa eta irudia bertan utzi omen zitun... Ez naiz ondo gogoratzen animaren irudia edo anima berbera ote zan kristalean zegoena.

Thalamas eta Caro-Baroja'k dietenez Bera-Bidasoa eta Lapurdi'n leioak irikitzeko oitura ori ere bazegoen (147).

• * •

Colombres'en (Asturiaas) billatutako giza-gorputzak zuloa zeukan kalabera-ezurrean egiña. Zulo borobilla, ildako orduan edo ill--ondoren egindaoa, Jesus Carvallo jaunak dionez. Beronek eta beste jakintsuek uste dutenez, zuloa egiten zuten anima sartu-irtenetan ibilli aal zediñ. Burua aldamenera dauka etzanda trepanazio-zuloa goitik gelditzeko eran eta ez lurrari erantsita (148). Orra buru-ezurrean anima-zuloa irikira irteera errezteko. Trikuarrietan ere bazan animen-leioa" irikita uzten zana animari irteera errezteko...

Ona berriz ere nun alkartzen diran Etnolojia (gaurko eguneko gizonen pentsakera eta oituretan) eta Arkeolojia (antziñako gizonek utzitako gauza eta erreusetan).

Arkeoloji bidetik jakintsuak ikasitakoak, oraindik ba diraute gure arteko siniskerietan eta oitureetan Euskalerrian. Izan ere gure Erri zaar au da biderik onena Europa zaarreko berriak ikasteko eta esagutzeko.

Oietako asko, bizirik oraindik.

(147) **JUAN THALAMAS**, op. cit., **40** eta **43** orr. **CARO-BAROJA**, op. cit., **169** orr.

(148) **JESUS CARVALLO**, op. cit, **40** eta **43** orr. **CARO-BAROJA**, op. cit., **169** orr.

## ABERE ETA ERLEERI ERIOTZAREN BERRI EMATEA

Erleak eta animaliak etxekoak ziran eta nagusia ildakoan bearrezkoa zan eriotzaren berri aieri ematea.

Erlea bazuten beste zer bereizi bat ere, beurak egiten bait zuten ildakoaren alde erre bear zan argizaria ere. Ildakoak argia bear; argi egiteko gairik onena, argizaria. Argizaria, erleak egiten...

Arazo oneri buruzko erantzun gutxi artu nituen 1970'an.

Erleeri berri ematen zitzaiola esaten dute Ituren, Leiza, Arizkun, Ezkioga, Bolibar-Ugazua, Idiazabal, Ea, Ibarrangelua eta Aulestia'k.

Baiña, itzeen berri ez dakite ezer askorik. Ona erantzun batzuek:

"II dok zuen jabia. II dok". Au esaten zuen oso zar ilzan emakume batek' (Bolibar-Ugazua).

—"Ugazaba il da". Beiñ bakarrik entzun dot: oraindik bizl da ori egiñ ebana... Erleari zinta beltza jarri' (Ea).

—"Egin zazu urteko argizaria (Idiazabal).

"Kurutze bat ipiñiagaz" ematen zizkien albistea. (Ibarrangelua).

Guztien erantzunetatik ikusten da zergaitik ematen zaion albistea: argizaria egiteagaitik, alegia: "Egiñ zazu urteko argizaria".

# # #

Liburuetan topa izan oi ditugu beste zenbait siniskeri gauza aueri buruzkoak:

1923'an Zenarruza, Meñaka, Kortezubi eta Berria'en erlauntzak zapi beltzez estaltzen ziran. Ori egiñ ezik erleak ilko ziran nagusiarekin batera (149).

Berriz'en gaiñera erlauntzaren estalkia jasorzen dute, baldin nagusiaren gorpua gertutik pasatzen bada. Beste erri batsuetan, erleeri berri ematean, ukabilkada bat ematen dute erlauntzaren tapakian,

(149) *Anuario de Eusko-Folklore.* III, 1923. 23, 32, 42 eta 43 **orr.**

"Gure Aita" bat esanaz. Orrela erleak bi aldiz argizari geiago ematen dute, urte guztian ildakoaren alde erretzeko argizaria. Bestela, berriz, ill egiten omen dira (150).

1931'an Ifarraldeko Euskalerrietan zer egiten zuten eurak edo euren aurrekoak:

Erleeri berri eman etxeko andrea edo nagusia iltzerakoan; baita ikulluko bei, idi, txerri, eta oilloeri; bordeetako artaldeeri ere bai (151).

Oiz'en orain irurogei urte gertatutakoa dakar Caro Baroja'k bere liburuan eta ona zer zan:

Domintxia'ko nagusia il zan eta bere emazte Franziska Andiarenak, erlauntzari kasketako bat emanaz, onela esan omen zion:

—"Erliak! Erlak! Gaur ildaetxekonagusiya" (152).

Gipuzoa'ko Goyerrian itz auek esaten zieten:

—"Emengo nagusia edo etxekoandrea il dala, ta aren arimarentzako lan egiteko" (153).

Ziga'n berriz;

—"Argitzarie eitzatzue, berei argitzeko" (154).

Oyartzun'en oiñordekoaren izena ere esaten zitzaien (155).

Zegama'n oiñordekoak berak ematen die eriotzaren berri:

—"Nagusia il da eta ni nagusitzat artu nazazute. Zuek aldezutena egiñ eta nik aldedana lagunduko dizutet" (156).

* # #

Arritzekoa da erriko esaera askoetan nola nagusia etxeko-andretik nola bereizten duten. Ez dute geienetan 'etxeko-nagusia' esaten 'nagusia' soilki baizik; andrea danean, berriz, beti 'etxeko-andrea' esan

(150) *An. Eusko-Folklore.* III. 1923. 115-115 eta 126 orr.
(151) **JUAN THALAMAS**. Op. Cit. 34 orr.
(152) **CARO-BAROJA**, op. cit-, 169 orr.
(153) *An. Eusko-Folklore,* III. 1923. 99 orr.
(154) *An. Eus.-Fol,* III... 129 orr.
(155) *An. Eus.-Fol,* III... 88 orr.
(156) *An. Eus.-Fol,* III... il08 orr.

oi dute. Bera ote zan etxeko-nagusia? Etxean bertan berak artzerl zuan burruntzalia (Bera'n) etxearen jabetasuna agertzeko eta berak egiten zuan 'sepultura-artzea'ere (sepultura etxearekin bat egiten du)... Gizona artzai zebillenean, etxetik kanpora mendian bere txabolan, andrak etxea zaindu, inguruko lurrak erabilli eta etxeko nagusitasuna berengana jo zuala dirudi... Gaiñera illen aldeko eleizkizunak bere ardurapean daude... Matriarkado baten arrastoak...? Orregaitik ote da gure errietan orrenbeste giza-alkarte emakumezkorik gabe...? Nik ala uste.

## ERIOTZAREN SEIÑALEAK

Asko dira eriotzaren seiñaleak.

Auen artean ugarien arkitzen dana, zakurren intziri tristea.

1970'an emandako erantzunetatik baietz esaten dute:

Huarte-Arakil, Arizkun, Aduna, Alkiza, Arama, Gellano, Igeldo, Olaberria, Oyartzun, Zumaia, Bolibar-Ugazua, Idiazabal, Larraul, Usurbil, Ea, Ibarrangelua, Meñaka, Mungia, Bedarona, Lekeitio eta Zalla.

1923'an auek ziran baietz esandakoak:

Orozko, Bedia, Zenarruza, Meñaka, Kortezubi, Galarreta, Deba, Otazu, Oyarzun, Alza, Zegama, eta Otxagabia (157).

1931'an Ifarraldeko Euskalerrietan ere ba zan siniskeri ori (158).

Beste seiñale bat oso zabaldua, oillarraren kukurrukua:

—"Oillarraren kukurruka" beste gabe erantzuten dute Idiazabal eta Mutiloa'k.

—"Oillarraren gabeko kukurrukuak" dio Ibarrangelua'k.

—"Ollarra amabitan jotzen badu": Lekeitio eta Lazkau'k.

—Ollarrak amabiak baiño lenago jotzen bazuen": Oikia eta Zumaia'k.

Oillarrak bere ordutik kanpora jotzen badu seiñale txarra dan siniskeria oso zabalduta zegoan:

1923'an ori sinisten zuten erriak:

Soskaño, Zenarruza, Meñaka, Kortezubi, Berriz, Salzedo, Galarreta, Oyarzun, Andoain, Zegama, Ziga eta Otxagabia (159)-

1944'an Bera-Bidasoa'n ere sinisten zuten ori (160).

Beste zertzu batzuek ere agertzen dira eriotzaren seiñaletzat guk egindako azterketatik:

(157) *An. Eusko-Folklore.* III... **6, 14, 23, 3137, 54, 62, 69, 77, 88 94, 107, 134** orr.

(158) **JUAN THALAMAS**, Op. Cit. **9** orr.

**134,** orr.

(159) *An. Eus.-Fol,* III... **1, 23, 31-35, 37,43, 47, 54, 88, 98, 107; 129;**

(160) **CARO-BAROJA**, Op. Cit. **78** orr.

"Meza-erdikoan txiliña jotzez batera erlojuak jotzea": Gellano eta Mutiloa.

Ori berbera sinisten zuten 1923'an erri auetan:

Orozko, Zenarruza, Berriz, Otazu eta Zegama'n (161).

—"Etxe-atarian ontzaren karraxia" : Usurbil.

Siniskeri au sinisten zuten 1923'an:

Kortezubi, Salzedo, Galarreta, Otxagabia eta Ilfaraldeko euskalerrietan ere bai (162).

—"Bei marrularien marrua" : Usurbil.

—Aize aundia " : Axpe.

Oillarraren kukurrukuari buruz ona Meñaka'ko siniskeri bat:

Illa agertzen dira, geienetan beintzat, gabaz eta oillarrak jo baiño len. Gau-erdia baiño leenago jotzen duan oillarrak, bateren bat ilkodala adierazten du; baiña, gauerdia ezkeroz, espiritu gaizkilleak eta ildakoen animak uxatzen ditu. Orretarako, ordea, ez dago Martiollarra bezelakorik. Marti-ollarra martzoan martzoko arrautza sortutako oillara da. Beiñ batean, Atxuri Mungia'ko auzaoan, martiollarra zeukaten baserri batean. Nagusia etxera berandu zetorren bakoitzean, jotzen zion kukurruku oillarrak. Gogaitu zitzaion nagusiari eta akabatu zuan oillar ori. Ez alperrik. Berandu zetorren batean, espiritu gaizkilleak (ez bait zegon martiollarrik eurak uxatzeko) arrapatu eta eraman zuten nagusi ori. Ez omen zan geiago gizonik agertu (163).

(161) *An. Eus.-Fol.,* III... 6,23,43, 54,107 orr.
(162) *An. Eus.-FoL,* III... 37,47, 54,134 orr.
(163) MANUEL MARKAIDA, *An. Eus.-Fol,* III... 35 orr.

## BESTE ESAERA BATZUEK ERIOTZARI BURUZ

—"Aize aundirik badago, abogadu bat edo il da": Lazkau.

—"Gorputz ona, euritsu" : Igeldo.

—"Euritsu, anima salbatua. Aizetsu eta ekaitz, anima galdua": 1960'an Arramendi'ko (Lazkau) Martina Arregi'k esan zidana.

Agoni larria maldizioak egiten du: Orozko eta Bedia (164).

Arpegi alaia gorpuan, anima salbatua: Orozko eta Zegama (165).

Izpilluak zapi beltzez estaltzen dira Euskalerri guzietan iñor ildakoan. Etxera datoztenak ez omen dute irudirik ez berenik ez besterenik ipilluetan ikusi bear (166).

Nere amama Felipa Aranburu, Donato Arrinda'ren alargunak Lekeitio'n esaten zuanez (bizi balitz gaur eun urtetik gora izango zituan), izpilluari gauez begiartu ezkero sorgiñak ikusten omen ziran. Izpilluan norbere edo iñoren irudia ikusteak badu majia eta aztikeriein zer ikusirik: adurra edo indar bereiza bat bait dago gauza eta bere irudiaren artean...

Zuberoa'n lurperarzek ez zuten ildakoa kaxan sartzen. Jantzi, berriz, liñuzko alkandora bordatua jazten zioten gorputzari. Alkandora ori beti egoten zan prest etxean (167).

Bedia'nere eortzeko, kaxarik eta zerraldorik gabe eortzen zituzten (168).

Deba'n 1955'an bizi zan arotz gazte bat, Mallabia'n (bera bertakoa zan) eortzi zuten kaxa eta beste ezer gabe.

Il aditza baiño geiago erabiltzen dira kristau euskaldunen artean beste auek: gastatu edo paltatu. Sekula ez dute esango akabatu. Akabatu itza animalientzako erabiltzen da. Gizonik ez da akabatzen; gizakia gastatu edo paltatu egiten da...

(164) *An. Eus.-Fol.,* III... 5 eta 13 orr.
(165) *An. Eus.-Fol.,* III... 5 eta 107 orr.
(166) **JUAN THALAMA**, Op. Cit. 38 orr.
(167) *An. Eusko-Folklore.* III. 1923. Vitoria. 14 orr.

## ERIOTZA-ONDORENGO BAZKARIAK

Azterketa egin genduanean, 1970'an, galdera oneri, 72 parrokietatik 63'k erantzun zuten baietz izan zirala bazkari oiek euren errietan.

Orain ez daudela, besterik gabe, erantzuten dute Arriaran, Orio, Mundaka eta Asteasu'k.

Gautegiz-Arteaga'k ez du erantzunik ematen.

Ez orain eta ez leen ez dirala izan, esaten digu Zalla'k.

Aldaketak egiten ari ziran Alkiza'n.

Bazkaria meriendara aldatu zuten Aya (Zarauz) eta Auslestia'n.

*72'tik 59'k* kendu dituzte aizken-urte auetan illeta ondorengo bazkariak.

*3'k* aldatu dituzte.

*4'ek* ez digute garbitasunik ematen.

*l'ek* ez du erantzunik.

*l'ek,* sekulan izan ez dirala.

Zergaitik kendu dituzten illeta-bazkariak?

*39'k* liturji berriagaitik.

Leenago ez bait zan Mezarik (illeta-Mezarik) arratsaldeetan. Gero asi dira arratsaldeko Mezak eta Illetak. Orregaitik Aya'n eta Aulestia'n eguerdiko bazkaria arratsaldeko merienda biurtu dute.

*Beste 2Vek* ez du arrazoirik jartzen, baiña ori izan dala bereiziki, ziurziur esan genezake.

Badakarzki zenbaitek beste arrazoirik:

Aduna: —"Kastuagatik batez ere. Gerra ondorengo goraberak".

Amezketa: —"Gastu aundia zalako".

Arrona: —"Itxusi zitzaidalako".

Aya (Ataun): —"Asko kostatzen zalako eta gero bearrik ez..." (eleizkizunak arratsaldean egiten ziralako.

Larraul: —"Beste tokietako oiturari jarraitzearren".

Mungia: "Kostosoa zalako" eta liturji berriak.

Ugarte: —"Gastuagatik: ondamendia zekarrelako segitzek".

Zestua: —"Alperrikako gastua zalako".

Eleizako oitura berriak aldatu dute bazkarietako oitura zaarra. Zarra bait zan oitura ori zaarrik bada gure artean. Liturji-arloan aldaketak izan ditugu: Meza latiñez eta bastarrera gebira egiten zana, orain aurrera begira, erriari begira, eta erriaren izkuntzan egiten degu... Barau luzeak bear baziran Meza eman eta Jaunartzeko oraiñ ordubeteko barau naikoa da... Leenago, baraugaitik, Mezak eta Illetak goizetik egiten ziran; baiña, orain guztia, edo geienak beintzat bai, arratsaldetik egiten dira, erosoago dalakoz.

Orain millaka urte sinismen-arazoiak zeuden tartean iileta-bazkariak egiteko: etxea bait zan illerri eta illetak etxean eghen ziran sutegiaren inguruan, eta illeta eguneko bazkaria sakratua zan eta illetaren zati bereizia izan ere,.. Gerora, oiturak jarraitzen zuan, zergaitik garbi jakin gabe, oitura-beraren indarrez eta illetak, goizetik egiten zirala, bazkaria oso egoki zetorren illeteen eleizkizuna bukatzeko.

Illetak arratsaldera pasa diranean, bazkariak bere giroa galdu du. Eta giroa galtzean oitura bera galdu da. Aya'n eta Aulestia'n bazkaria merienda egin dute, oiturari nolabait ere, jarraitzeko... Baiña, oitura zaar ori betirako galdu da. Asierako arrazoi zaarrak aspaldi galdu ziran etxetik eleizeetara illetak eraman ziranean; baiña, alaz ere, eta artan iaioak gaituk euskaldunok, oiturari eutsi genion, barneko mamia galduta bazeukan ere.

*Otoitzak illeta-bazkarian*

72 parokietatik 44'k erantzuten dute, baietz egiten zirala otoitzak otordua asteko eta zenbait tokietan amaitzeko ere bai.

21'ek ez dute erantzunik eman.

*Zef>*

Zer otoitz egiten dira illeta bazkarietan?

Geienetan "Gure Aita" bat edo geiago, erresponsoen antzera.

—"Otoi luze bat" : Gizaburuaga-Aulestia'n.

—"Otoi luzek: erderaz eta latiñez", sakristauak: Olaberria'n. Onek zera dakarkit gogora, aztikerietan ere azti euskaldunek erdera erabilli izan oi dutela geienetan: izkuntza misterioso batean, alegia...

*Zeiñek}*

Erantzunak desberdiñak dira gai oneri buruz.

28'k ez dute erantzunik eman. Ona besteak zer esan duten, zeiñek zuzentzen dituzten otoitak illeetan galderari:

4 erantzun: apaizak.

3: serorek.

2: etxekoandeak.

2: sakristauak.

1: kantoriak.

1: Maiordomuak.

2: senideak.

1: era askoetara.

3: edozeiñek.

7: artarako ibiltzen dan batek.

5: auzoak.

1: aideak (Oyartzun: "illetan aurrin mindun joaten zan len estalki luzeakin ta buruan zapel aundi luzea").

*37'tik 4'etan* bakarrik zuzentzen dituzte apaizak bazkarietako otoitz oiek Beste guztietan seularrak dituzu otoi-zuzentzaille. Gauza auxe ikusten da garbi: illeta bazkariko otoitzak ez dirala eleizeenak, eleizatik kanpokorakoak baizik. Eleizako illeta-otoitza apaizaren aotik datoz; eleiz-atarikoak ere bai. Noiz edo noizka segizioa apaiza buru dala, etxe-atarira ere eltzen, eta an, etxe-atarian, oraindik ere apaiza da zuzentzaille; baiña beiñ etxe-barrura ezkero, apaizik ez dago otoi--zuzendariketan. Bere eginkizuna ez da artaraiño luzatzen...

*Zeiñentzako dan bazkaria*

Galdera oneri ***41****'ek* (72'retik) senide, aide eta farnilkoentzat, erantzuten dute.

***10*** errietan auzoa ere sartzen dute tartean.

*14'etan* Meza-saria ematen dutenak. "Mezako" izaten dira (Gellano'n) ildakoaren aide diranak, lengusu edo bigarren lengusuraiño). Orra ba beste amalau errietan ere Mezako ziranak, aideak zirala alegia. Aurretik ikusi degu 41 parrokiek zer erantzun duten: senide, aide

eta familia dala bazkaritako... Orretzaz gaiñera, auzokoak aitatzen dira noiz edo noiz... Gero, apaiza, kantoriak, andariak, ere bai...

Baiña, garbien ikusten dana da bazkaria senide eta aideentzat zala. Alaxe zan asieran izan ere, bazkari oiek etxeko-illeteen osagarri bait ziran. Aurrekoak ziran etxeko jainko-txikiak eta etxe-barruan izan bear zuten gurtuak. Agurtza orren zati bereiza ziran illeta-bazkariak.

Gerora, bazkari oien esan-naia eta muiña galdu zanean, edozeiñeri deiten zioten bazkaltzera: batez ere urrutitik etorritakoeri, kantorieri, apaizeri (auetako asko kanpoti etortzen bait ziran "a tiempo"ko Mezak ematera)... Eleizak amar aldara bazituan, amarretan ematen zan Meza (al zunak beintzat), Noturnoak abezten ziran artean Erdiko Aldara Nagusian. Noturnoak Liburu Santuko salmo-kantak ziran. Meza oiek aldamenerako aldaretan ematen ziran eta "a tiempo"ko Mezak zeritzaien. Apaiz oiek ere bazkaltzera deituak izan oi ziran.

Bakaltzeko deia ere izaten zan. Ona exenplu bat:

Ugarte'n: "Zimitirioan auzoko edo senide batek "orain segi dezatela bazkaltzera " "...

Aduna'n-"Kastua eginda dago, ta segitu orrelako tokira...".

Asieran, kanpotarrentzako ez zan bazkaririk etxean.

Illeta-bazkaria etxea edo etxe bezela izendatutako jan toki batean izan oi zan.

## OGIA ETA ARDOA

Bazkarirako ez ziranetzat izan oi zan zer edo zer artzeko; geienetan ogia eta ardoa.

Oitura onek izen asko izan ditu, baiña oitura bat da.

72 parrokietatik 40'ek badakite oitura orren berri.

2' ez dagoela oitura ori, besterik ez dute esaten.

24'ek ez dute erantzunik ematen.

Zeiñentzako zan ogi-ardo ori?

—"Meza-saria ematen zutenai", dio Berastegi'k.

—"Meza joatenentzako", diote Goiaz'en.

—"Danentzako ogia ta ardoa": Leiza, Idiazabal, Larraul, Ibarrangelua.

—Meza-diru "artu-emona" ez daukenentzako ogia, ardca eta bakallaua: Aulestia (169)-

—"Ogia eta txokolatea emakumeai" : Huarte-Arakil

—"Ogia, ardoa ta pikuk": Oyartzun.

—"Ogia, ardoa, makallaua saltzan. Elespean dagoz arrizko Mayak arrizko eserlekuakin antxiña ogi-ardoa eta bai makallaoa saltzan ipiñia entierrora etorritakoai eleizkizun ostean emoteko": Meñaka.

—"Ogia ta ardoa errosarioa errezatzean ematen dira. Errosarioa gorputzaren aurrean errezatzen da, ta ez apaizak, baizik erriko beste batek zuzentzen du: "Alkiza. Ona emen etxean egiten diran eleizkizunak eta ez apaizak, erriko beste batek bazik.

—"Ematen dira oraindik (ogia ta ardoa) ildakoa obiratze bezperan, iñolarren, errosarioa errezatzera biltzen diran guztiri, au bukatu ondoren": Ugarte. Ogia ta ardoa etxean, elizatik at, otoitz-ondorenean...

*Xzenak*

Izen asko ditu ogi-ardo onek.

(169) WILLIAM DOUGLASS, op. cit., 47 orr.

—"Karidadea" : Alzaga, Arama, Ea, Astigarraga, eta Zumaia'n. Ea: —"Amaitutakoan, eleizpean, auzoko batek esan nun izango dan karidadea" (170).

"Ofrenda": Labayen.

"Arrantxoa": Mutiloa.

"Ogi-asetzea": Leiza.

"Xutitekoa": Arizkun.

"Eztare": Alkiza (errosario-ondoren amatendana).

"Segizia" : Arrona.

"Seizia" : Oikia eta Zumaia.

"Maiko ogi t'ardo" : Olaberria.

"Txosnia": Deba ("Gizonentzat ogi-ardoa; emakumeentzat galletak edo gozoki batzuk. Txosnia egin ondoren alkarrekin bildu-andra-gizonak (bakoitzak bere aldetik gela banan jartzen bait ziran) eta emakume edadetu batek, auzokoak, Pater Noster bat erre?a".

*Nun ematen da ogi-ardoa?*

—"Eliz ondoko tabernan" : Igeldo.

—"Mieleneko tabernan" : Lazkau.

—"Eleizpean": Ea, Meñaka.

—"Etxe-atarian" : Berganzo.

*Noiz illetatik kanpora?*

—" Bederatziurrenean " : Lazkau.

—"Bezperan, errosarioa esaterakoan etxean": Alkiza, Ugarte.

# # #

Apur auek izan dira gure galderai erantzundakoak. Baiña, goazen oraiñ aurrerago egin zituzten azterketeen billa.

(170) RAMON MURUA, *65'urteko apaizak auxe esan zigun,* "Berganzo'ra (Araba) joan nintzan batean illetara, lur eman da gero, apaiza aurretik, danok etxe-atarira joan giñan, eta an etxeko alabak ogia ta ardoa eman **2ien** guztieri. Caridad es esto, esan zien".

1923'an D. Jose Miel Barandiaran'en ardurapean egin ziran azterketa batzuek eta orduko dira jakingarri auek:

Oiartzun'en bazkaria izaten zan mindunentzako (onrabururoak ziran mindunak) eta kanpotarrentzat (171).

Berriz, Galarreta, Deba, Aduna, Alza, Andoain, Ziga eta Otxagabia'n bazkaria aideentzako izaten zan. Besteentzako ere izaten zan zer edo zer (172).

Onra-burukoak edo mindunak senide eta aideenartean osatzen dira, ondotxo bereizi ere karidadekoekin: aiek, onrakoak, etxean bazkaltzen dute; auek, berriz, etxetik kanpora artzen dituzte artzekoak.

Otazu'n (Araba) 1921'an gertatzen zanak agertzen digu garbi asko oitura au eta bereitasun au. Bosteun biztanle izango zituan garai artan errixka onek eta Aizkorri'ren oinpean dago, egoaldettk

Aideak "onrakoak" dituzu izenez, beste guztiak "karidadekoak". Illeta elizan ari diran artean, andariak etxean ogia eta ardoa antolatzen dituzte karidadekoeri, illeta ondoren, emateko. Eleizako illetak bukatzean, karidadekoak kanpora irtzen dute, eta onrakoak (aideak) barruan gelditzen. Apaiza, ixopoa eskuetan eta akolitoa aldamenean, sakristitik ateratzen da eleizara; emen, ildakoaren bi seniderik gertuenak apaizaren alboetan jartzen dirala, irtetzen dute onraburukoakin batera, gizona aurretik eta emakumeak ondoren. Guztiak etxera dijoaz, onrakoak eta kanpoan zai zeuden karidadekoak ondoren. Etxera diranean, onrakoak etxe-barruan sartzen dira, apaiza atarian eta karidadekoak kalean. Erresponso bat atera ondoren, apaiza bere etxera dijoa. Onrakoak bi gelatan sartzen dira, gizonezkoak batean, emakumezkoak bestean. Une batean danak ixil-ixilik daude.

Bitartean gazte batek traguxka bat ardo ematen dio bakoitzari. Andik denbora-pixka batera, beste ardo-tragoa. Ondoren ogia eta gazna. Alde egitean, berriz, mats-pasak, amalau edo ogei bakoitzari. Oietatik etxera eramango dituzte, senideartekoetan banatzeko. Artzen dituztenak ildakoaren alde otoitz egitera beartzen dituzte beuren buruak.

Berdiñ egiten dute emakumezkoen gelan.

Ardoa banatu duten gazteak bi Gure Aita, Kredoa eta Salbea

(171) **MANUEL LEKUONA,** *An. Eusko-Folklore,* **III,** 1923- Vitoria. 79-83 orr.

(172) *An. Eus.-Fol.,* III... 43, 57, 72, 79, 96, 103, **111,** 128, 132, 137 **orr.**

esaten ditu bi gelatan, bata bestearen ondoren gizonezkoetatik asita emakumezkoekin amaitu. Azkenik, bukatzeko, "requiescat in pace" esan oi du berak.

Gela bakoitzean saskitxo bana, dirua jasotzeko.

Bitartean, beste gazte batzuek karidadezko ogi-ardoak banatzen dituzte jende artean. Karidadezko diranak zelai eta inguruko bordeetan zabaltzen dira, lareun lagun. Erri osoa. Errenkadan edaten dute batak bestearen ondoren. Laugarren-txanda-ondoren, zaar batr-n inguruan biltzen dira guztiak eta onek Gure Aita, Kredoa eta Salbea esan ondoren "que en el cielo nos veamos todos" esaten du. Orduan gazte batek zaarrari ardoa eskeintzen dio. Burutik txapela kenduca edango du ardoa. Gero zaarraren ondoren, besteak.

Illeta ondorengo igandean egiten ziran "onrak". Ildakoaren senidarteko gertuenak (guraso, seme-alaba, anai-arreba...) Meza Nagusira joan oi ziran, bakoitzak ogi ("otana")-erdi bat ofrendarako eta kandela bat sepulturarako eramanaz. Eurak agintarien bankuetan jartzen ziran. Meza ondoren, erresponsoak atera. Onrako Meza Nagusiaren ondoren jende gutzia etxera dijoa otoitz egitera eta, illeta-egunean bezela, ogi-ardoak banatzen zaizkie... (173).

Otazu orren oitura onetan, beste errietako oituretan ikusi degunez bezela, gauza auek nabarmentzen dira:

Eleizkizuna ez da eleizan bukatzen, etxean baizik; ez du apaizak aizkeneko otoita esaten, au ez bait da etxean sartzen, etxe-atarian gelditu baizik. Aizken otoitzak, berriz, etxe-barruan egiten dira eta apaiza ez danak zuzentzen ditu.

Bigarren: illetak jatordu batekin amaitzen dira. Familikoak etxean, etxea bait zan familiaren eliza, eta etxekoak ez diranak, kalean...

Irugarren: erriarentzako ogi-ardoak karidadea dute lzena. Ba zan oitura euskalerri etan limosnak eta beartzuei laguntza banatzekoa, ildako-animaren alde. Esate baterako Azkoitia'ko "ixil-ogia", 1781'an ofrendakoan eskeintzen zan ogia, beartsu-ixillen aldekoa... Deba'ko Apaizen Hermandadean ere limosnak ematen ziran anaien illttan.

Baiña, segi dezagun aurrera.

(173) *An. Eusko-Folklore.* III... 64-68 orr.

Salzedo'n ere (Araba'ko errixka) Otazun gertatzen zana gerta oi zan:

Illeta ondoren guztiak ildakoaren etxe-aurrera dijoaz, anaiza **au**rretik, iru erresponso esatera, "onrakoak" etxe-barrutik, besteak kanpotik.

—"Onrakoak" (aideak) etxean bazkaltzen dute.

Besteak bakoitzak lau-librako ("otana") ogiaren laurdena artzen dute eta ardoa beiñ edo bi aldiz. Zaar batek, denak zutik, lau aldiz Gure Aita eta beiñ Salbea esaten ditu. Eseri, eta berriro bestc bi alditan artzen dute ardoa. Ondoren, otoitzak.

Ogi-ardoa emateari "karidadea" deitzen zaio.

Onrakoak ere bazkari aurretik eta ondoren egiten dute otoitza. Zuzentzaille seniderik gazteena edo bestela, kategori geienekoa (174).

• # •

Lur-emateko illetak eta onrak ez ziran danak batera egiten, asieran beintzat. Entierroko illetetan etxekoak etxean gelditzen ziran geienez, eta onraburuan auzokoak joan oi ziran. Onrak egiten ziran gerorago, beste egunen batean, eta orduan bai, eleizara onraburuan senidartekoak joan oi ziran...

Bazkaria illeta,egunean, bazkaria onra-egunean, oiek bazkari **as**ko ziran eta gastu asko zekarzkiten beurekin. Orregaitik edo, entierroko illetak eta onrak alakarrekin batera egiten asi ziran eta geuk geure begiz ikusi giñuzten Zaldibia'ko elizan 1936'gen. urtean... Biak batera eta bakoitza iru. Nocturnoekin. Orretara, bazkari bakar batekin betetzen zuten legea. Gure egun auetan ere orrelako zerbait egiten ikusi degu geure azterketa orretan: bazkariak kendu dituzte 'asko kostatzen zalako' 'gastuagatik: ondamendia zekarrelako segitzek', 'kostosoa zalako'...

Leenago ez zan orrela. Ataun'en, esate bateko, 1914' an illeta ondoren Meza-bederatziurrena izan oi zan eta aizkeneko bi egunetan onrak egiten ziran, egun bakoitzeko bat. Bederatziurren auek oso zabalduak zeuden euskalerrietan eta onra-buruko mindunek, egunero,

**(174) FELIPE ARREDONDO,** *An. Eusk.-Fol,* III. **1923... 51-52** orr.

segizioan joan oi ziran eleizara eta eleizatik etxera edo tabernara zerbait artzera. 1923'an Ataungo bederatziurrena melartu zan ondo eta Mezareen ordez erresponso utsak sepultura gaiñetan. Aizkeneko bi egunetako onrak, berriz, egun batean egiñ bi Meza Nagusiekin (175)

1936'an Zaldibiako elizan ikusitako illetak eta onrak egun berean egiñak ziran, baiña bata bestearengandik bereizita.

Naaste auetatik "onra" izena entierroko illeteetara pasa oi da: "onra-burua" esan oi degu; "onrakoak eta karidadekoak", ere bai. Berez, ordea, "onra-burua" onra-eleizkizunetakoa da. Entierro egunean ez zan izango "onra-bururik" onrak beste egunen batean egiten ziralako. Naiko garbi adieraztendula esango nuke, aurrerago esana daukaguna eta au da: entierrora senitatekoak ez zirala joaten, onrretara baizik. Entierro-eguna eleizkizunak etxean egiteko eguna izaki, nunbait...

1951'an Deba'ko errian, neu naiz testigu eta lekuko, ez zan illetarik egiten berealdiko bazkaririk gabe. Iziar'en berriz bazkaria illeta--egunean eta onra-egunean, bietan, egiten zan. Gerora, arratsaldeko Mezak asiziranean, (oletako langillediari erreztasunak amate arren) bazkariak bertan bera galdu ziran.

# # #

Luis Garate'ren emazte Dolores Urain'ek esaten zidanez, 1920'-an Domu-Santu eta Anima-Egunean iru muturreko opillak eskeintzen omen ziran ugari Deba'ko eleizean, gero beartsuen alde banatzeko eta eleizara joan ez ziraneri eramateko. Beiñ, apaizaren amak, opillak dendariari saldu omen zizkion eta arrezkeroz ez omen zuan iñork eleiara opillik ekarri geiago.

Suiza'ko zenbait errietan ere (Valais balillaran) illeta ondoren ogia banatzen zitzaien beartsueri (176).

Azkoiti'ko paper zaarretan, 1781'an, "ixilogia" aitatzen da, ixilbeartsuentzako eskeintzen zan ogia. Deba parrokiko Apaizen "Hermandadean" ere anaien illeteetan beartsueri limosna egitea eginduta

(175) *Anuario de Eusko-Folklore.* **III. 1923- 119** ori.
(176) **MARGALIDE LE BONDIDIER**, Op. Cit. **24** orr.

zegoan. Ez da ori arritzekoa ere, kristau-pentsakeran beartsueri laguntzea, ildakoeri laguntzea bait da.

Obiratze ondorengo bazkariak aitatzean "karidadearen" berri eman genduan: bazkaitara ez dijoanari ematen zaio zer-edo-zer illeta ondoren. Eta emate orrek, aiñ xuxen ere, "karidadea" du izena leku askoetan.

Illeta-egunetik alde "karidadeak" irauten du Deba-ibairen baillaran: Soraluze (Placencia de las Armas) eta Osintxu errietaa. alegia.

Osintxu: Abustuko azken igandean. Bei bat iltzen dute eta pertz aundietan ipiñi egosten. Gero Kofradikoeri, erriko guztieri eta kanpotik datorrenari, edozeiñeri eskeintzen diote ogi eta aragia. Ogi-aragiari "karidadea" esan oi diote. "Karidadea" artu egiñ bear da eta jan. Emakumezko batek erritik kanpora bota omen zuan "karidadea" jan jabe; gaixo jarri omen zan eta ez zan sendatu ogi-aragiak jan zituen arte.

1922'an Soraluze'n ere beste orrenbeste egiten zuten San Marzial egunean Santu orren ermita inguruan (177).

(177) *Anuario de Eusko-Folklore,* II. 1922. Vitoria. 127-128 orr.

Illeta eguneko bazkarietatik begiratuta, gauza auek ikusten dira garbi:

1/ Onrakoen eta karidadekoen arteko bereiztasuna: segizioan bereiziki dijoaz, eleizetan leku bereiziak dituzte, ildakoaren etxean ere bereiziki banatzen dira.

**2/** Illetak ez dirala eleizean amaitzen; apaizak berak eramaten bait ditu guztiak, illeta-ondoren eta segiziorik galtzeke, etxeraiño. Bere eginkizuna apaizak etxearen atarian bukatzen du. Ez da etxean sartzen. Ez eta karidadekorik ere. Etxe-barrua onrakoentzako da: senitartekoentzako, alegia. Beran jarraituko dituzte otoitzak.

3/ Illeta-bazkarietan edateko modua bera ere badirudi elizkizuna ote zan. Emen esandakoetatik ala agertzen dala usten degu. Baiña, bazan bereiziki otoitz egiteko oitura ere illeta-bazkarietan. Otoitz oiek ez zituan apaizak egiten; beste batek baizik. Olaberria'ko sakristauak egiten zitunak "luzek eta latiñez" izaten ziran.

4/ "Eleizkizun" bereizi auek, kariadokoetan zaar batek zuzentzen zituan; onrakoetan, ordea, senide gertuenak. Ori ondo dator istoria-aurreko oitura zaarrekin: etxeko-eleizkizunak nagusiak edo etxeko-andreak zuzentzen bait zituan.

Ona bazkari aueri buruz zer zion B. de Echegaray'k 50 urte dirala:

—"Berdin gertatzen da Alaiza'n (Araba) eta inguruetako errietan; ildakoak seme-alabak diranean, aita jarriko da gizonezkoen gelan maiburu eta ama, emakumezkoen gelan; baiña, ez batak eta ez besteak ez dute mokaurik probako" (178).

Bistan dago bazkari oiek ez zirala jateko bakarrik egiten. Beste misterio izkutu bat gordetzen zuten bere barnean. Illuntasur ori argitzeko asmoetan ari gera. Beste errien oituretatik ere egin genezake argia: onra eta karidadekoen arteko bereiztasunak badu, bere funsetan, ario-erri-oituretan bere oiñarria, etxea bait zan ildako aurrekoeri

(178) BONIFACIO DE ECHEGARAY, op. cit., 8,12,13 orr.

eskeiñitako eleiza, eta auen omenezko eleizkizun bereizietan ("sacrificia oculta" Ciceron'en aotan) etxekoak bakarrik bear zuten izan. Etxe bakoitza, eleiz bereizi bat, alegia; etxekoak bakarrik dituzu eleiz bereizi orren eleiztar bereiziak eta bakarrak. Semeak edo oiñordekoak (ezean, seniderik gertuenak) zuzentzen zituan illetak eta ondorengo bazkariak ere. Senitarterako bakarrik ziran bazkari auek (179)-

Siniskera onetatik sortzen da-dio Echegaray'k-euskalerritako beste oitura au ere: etxeak beti iraun bear du oso-osorik, erdibitzeke; dan-dana oiñordekoak (mayorazgoak) jaso bear du, aurreko arbaso guzien eliza dan etxea... Orregaitik edo, Euskalerrietako Lege Zaarrak (Fueroak) etxea zaintzen du begirunez eta ez dezaiola iñori zorren ordez etxerik kenduko, agintzen du... Ez eta tellatupe batean bi su edo bi etxe-bizitza izango, sutegi eta tellatu bakoitzari eleiza bakar bat dagokiolako. Gauza beregaitik, gaurko egunez, noiz edo noiz bi bizitzako baserriak ikusi oi ditugu (leenago ezin zeikean bi bizitzako baserririk pentsa ere) teillatua orma lodikote batekin erdibibituta. Ez suaren arrixkuagaitik (esan oi dan bezela), bi etxeak bereizteko baizik.

Bi sutegiak eta bi eleizak ondo bata bestegaindik bereizteko. Sua, etxea (eleiza) eta sepultura alkarrekin bear dute: sendi bakoitzeko, bat. Ikusi izan degu etxea eta sepultura alkarrekin, bat eginda gizaldietan zear. Etxea alde batetik eta sepultura bestetik, ikaragarrizko sakrilejioa izanen litzake: sepulturako illak etxean bait zuten eleiza euren aldeko eleizkizunak egiteko...

Ori orduan ala bazan, uste orrek iraun du gureraiño euskaldunen buru-tolesteetan.

(179) **ISEO,** *De Ciceronis Herditate,* 15, 18 orr. (B. **DE** E.), op. cit., 11 orr.

## SUA ETA ETXEKO-ELEIZKIZUNAK

Sutegia da etxearen irudi bizia. Sutegiak leizeetan ataritik gertu zeuden eta erdian. Bordeetan, berdintsu. Zenbait besarri zaarretan sukaldearan erdian, etxearen erdi-erdian.

Etxea eta sutegia, biak, bat dira; orregaitik soro eta luraldeetako mugarri-oiñ-azpietan sutegiko ikatza jarri oi da, etxea araiño zabaltzen dala adierazteko.

Oilloa edo katua etxekoa izateko, kanpotik ekarria danean, sutegiari iru buelta eman arazi bear zaio, ala egiten bada, ez du etxetik alde egingo ordutik aurrera (180).

Sua eta etxea biak dita bat eta biak dira bizien eta illen arteko lokarri bereizia. "Enparaundi" Lazkoa'ko baserria da. Dominika zan etxekoandre gu ara joaten giñanean: 1930'an. Talo-jaten gelditu giñan arratsalde batean eta apari-legea bete ondoren, Dominika andreak sua bildu eta sutautsez estali zuan lur-gaiñeko sukalde zaarrean.

—Zergaitik egiten dezu ori? (Galdetu nion).

—Ildakoak gauez sua bear dutelako, guk egunez bezela.

Dominika'k ziur-ziur sinisten zuan bere aurrekoak sutondo artara etortzen zirala gauero-gauero.

Larrabezua'ko errian zenbaitek sinisten zuten Gabon-Gauean ildakoak etortzen zirala sutondora eta sutautsetan beuren aztarnak uzten zituztela (181).

Euskalerri guztiateko oitura zan sua biltzea eta ortik dator suari buruzko esaera au:

"Arratsean besti eta goizean billusten..." (182).

Sua-biltze onek baditu bere esaerak baztarretan. Ona oierako bat, Meñaka'koa:

(180) **J. M. DE BARANDIARAN,** *El hombre primitivo...,* 90 orr. **CARO-BAROJA**, op. cit., 78 orr.

(181) *Anuario Eusko-Folklore,* III. 1923- 42-43 orr.

(182) **JUAN THALAMAS**, op. cit., 35 orr.

"Gure etzian
sue batzia danian,
mille aingeruak satzian.
Gure Aingeru-guardia,
gorde nire animia.
Oiñ gorde eta gero presenteu
glorijeko etzian.
San Migel, Gabriel, Errefel
ora noa lo etten.
Lo etten dotela iltzen ba'naz,
Zuk iretargi eingo dostesu.
Matrimonio Alejandro enkomendeisu
Oraiñ eta eriotzeko orduen. Amen" (183).

Ifarraldeko euskalerrietan iñor iltzen danean etxeko sua lurperatu egiñ oi da, edo eta lau-aizeetara zabaldu (184).

Etxeko suak jainko txiki baten antzera jokatzen du tarteka: ofrendak artzen ditu eta gu gaitzeetatik gorde. Ona siniskeri batzuek:

Ontza etxeko teillatuan oiuka badago, seiñale txarra da; suari gatza bota bear zaio gaitzetik libratzeko (185).

"Aide gaiztuen seiñalia" da ollarrak ordutik kanpora (arratsaldetik gau-erdira, alegia) kukurruku jotzea. Berriz oillarrak jo ez dezan, gatza bota bear zaio suari (186). "Aide gaiztua" espiritu txarrari deitzeak ere zer edo zer esan naiko du: ildiranen artean bere bizitzan on edo gaizto ziranak, gero ere on eta gaizto ote?

Beste gauza geiagoetarako ere eskeintze zaio gatza suari.

Gatza ezezik, ortzak ere eskeintzen zaizkio suari. Umeari ortza orortzen zaionean sutara bota bear du onela esanaz:

"Tori zarra / eta ekarri / berriya" (188).

Ala esan oi zuten Bera-Bidasoa'n; baiña Ataun'en beste era onetara (suari ortza boteaz).

(183) **MANUEL MARCAIDA,** *Anuario Eusko-Folklore.* IV. **1924.** Vitoria. **113** orr.

(184) **RODNEY GALLOP**, op. cit., **209** orr.

(185) **JUAN THALAMAS**, op. cit., **34** orr.

(186) **FLORENCIO PORTU,** *Anuario Eusko-Folklore.* III. **1923. 88** orr. Thalamas: op. cit., **63** orr.

(188) **J. CARO BAROJA**, op. cit., **134** orr.

—"Andre Marie / otzon ortz zarra / t'ekatzan berrie" (189)-

Ataun'go esaera onetan suak badu bere izen bereizia, Mari izena. Mari da Euskalerrietako sorgiñ guztien buru eta jainko-txiki guztien nagusi. Suan ere bizi da, nunbait. Obeto esateko, berbera, sua da. Larrabezua'ko esaera batean Mari teillatuan bizi da; baiña, esanda daukagunez sua eta teillatua biak etxebakar batenak ira, etxe-eleiza bakar batenak, alegia. Ona Larrabezua'ko deia:

—Mari tellatuko / gona-gorri dune / otzi agiñ zarra / ekatzu berrie" (190).

Suak baditu indarrak jan-edana garbitzeko:

Iurrera erori dan ogia ez da jan bear suari erakutsi gabe, ez eta gauez ekarritako urik eran (gaueko urak espiritu gaistoz kutsutuak izaten bait dira) (191)-

• # *.

Erakustaldi oneri bukaera emateko ona B. de Etxegaray'ren itzak:

—Etxeko espirituak etxean bizi ziran sutegiaren azpin (leizeetako gizonak bere ildakoak su-azpian eortzen zituala, gogoratu) eta etxeingurako lurreetan ("baratzak" ere or daude etxe ondoan eta "baratzak" jentillen-illobi lekuak dituzu) eta etxekoekin alkar lotuta zeuden sekulako, ildakoen goralmena extean bizi ziranen eskuetan bait zegoan. Siniskeri oiek Kristautasunak zuzendu zituan. Alaz ere, milla urtean kristau izanda gero, Kristautasun orren tolesteetan, orduko zenbait oitura (bataiatuak, bear bada) dirau oraindik. Euskaldunen buruan beiñ sartzen dana, ez du andik errez irteten (192).

(189) J. M. **DE BARANDIARAN** y **COLABORADORES,** *El mundo en la mente...* 182 orr.

(190) J. M. **DE BARANDIARAN** y **COLABORADORES**, op. cit., 182 orr.

(191) J. M. **DE BARANDIARAN,** *El Hombre Primitivo...* 90 orr.

(192) **BONIFACIO DE ECHEGARAY**, op. cit., 55 orr.

Gure azterketara gatoz berriro.

Azken galdera zan Parrokiko Liburuak ezer ote zekarzkiten gai aueri buruz eta bakoitzak beren oarrak agertzeko agertzekorik bazuten. Ona erantzunak:

Ituren:—"Erantzundakoak eta bost gertau dire. Baiña, Takingarririk iasotzeko modurik aski ez dut atzeman. Uitziarra naiz. Uitzin ikusitakoak emen ere gertatutako emango nituzke".

Beraz, emen bildu ditugun erantzunak zabaidu ditezke beste erri batzuetara ere.

Leiza:—"Erriko zarrai geldetu ezkeroz bear bada zerbait geiago atera liteke".

Erantzunak ez dute gairik agortu, alegia.

Arizkun:—"Animen kofradie erriko gizonek eramaten dute. Orain duten "kontu liburua" (Oraindik erditaran dagona) 1390 urtean asia da, eta *bigarrena* da. Urtean beiñ egiten dira, egun bereizian, elizkizunak Baztan Goiz'eko illen onretan: meza bere ofrenda ta erresponsoekin; beartzuentzat limosna apartekoa; eta itzaldi berexa... Noiztik oitura ori? Jainkoak daki".

Limosna eta beartsuekin "karidadea", orra illen onerako egiten ez ditugunak gaur, artarako balio arren.

Elizondo: —" Leenago edozeiñ iltzen zala etxeko atari-gañeko ikurriña edo "eskudua" zapi beltz batekin eztaltzen zan. Leenago ildakoa auzoak eramaten zuten. Orain, beti gizon berak".

Auzoa zeregiñ asko zitula gure artean, batez ere orrelako ordue tan.

Amezketa: —"Etxekoandre berria, Meza Nagusi barruan, sepulturaz jabetzen zan erresponsoak bestei zabalduaz eta bestienak jasoaz. Oitura au galdu da. Lenago, bataio ondorenean, ogia ta ardoa ematen zan: ogierdia apaizantzat eta bestea jenteantzat".

Anoeta: —" Anoeta'n etxe bakoitzak dauka auzoa deitzen duten sendi bat (famili bat) ta auzo oni aditzera ematen diote etxekoak baten bat il edo il-zorian dagola -ta auzoa artzen dute beregain, bai

apaiz ta bai senide ta gañetikoak aditzera ematea ta elizako lan guziak: ofrenda, segizioko buru-izatea, maitikoak esatea bazkaltzeko garayan ta abar ta abar".

Badirudi, etxeoak etxean gelditzeko moduan eratu dituztela gauza guztiak: etxekoak etxean bait zuten egitekoa norbait iltzen zitzainean. Egitura zaar orren sustraia emen agertzen zaigu berriro bizirik.

Arama:—'Tgande ta jai-egunetan famili bakoitzak illero ofrendako ogia ekartzen du". Illen aldeko eginkizunak diraute eten-gabean.

Larrino eta Aozaraza (auzoak dira bi erritxo auek):—"Lastaira erretzen zuten entierro-denboran".

Olaberria:—"Garbi ikusten dana da lenagoko garaietan oitura zala oso zabaldua nagusi-etxekoandrak, ill aurretik, Elizari zerbait uztea testamentu bezela beren animaren alderako: edo aniversario bat, edo etxe bat, edo soro bat, oien korrituakin sufragioak ateratzeko".

Zumaia:—"Bide gurutze batetik gauez igarotzean animak agertu oi omen dira, eta ez omen zaie eman bear eskurik, baizik sudur-zapia edo beste zeozer; bada eskua eman ezkero erre egiten omen dute".

Zestua:—"Galderak Manuel Arregi Lizaso'ri egiñak, 81 urtekoa eta Zestua'n jaioa".

Larraul: —"Gorputz-bideak orain galdu berriak dira. Ogiaren eskeintzak orain 30 urte, ogi-eskasi aundi aik kendu omen zuan. Bederatziurrenetan eta abar ekartzen zuten artoa, garia... Orain dirutan ordaintzen dute".

Ibarrangelua:—"Ispilluak oial baltzakin eztaltzen dabez gorpua dagoan tokian. Ondo jantzi nai izaten dabe ildakoa; idez entzun neutzen gorpua jazten egozanai: ondo jantzi dagigun, Josepetako zelaian erropa orrexekin agertu bear dau ta... Baserriren baten iñor txarto ba dago ta kortako asto edo aberen bat iltzen ba'da gaixoagaz, ezaugarri ona da: gaixoaren ordez aberea ildalako".

Etxebarria: " Gauza bat auxe (dago Liburuetan): Obispo batek debekatzen dau etxekoandreak sepulturatan erresponsoak isteko aitxekiaz, ez daitezela ibilli Eleizean zear kontuak-kontari".

Lekeitio:—"Ispillua eztali zapi baltzagaz".

Mundaka:—"Erri ontan oitura zer gutxi benetan dagoz".

Zalla:—"Euskalerriko oiturak aintziña galdu ziran erri onetan".

Parrokiko Liburuetan gai oneri buruzko gauzik ez dagoela erantzundutenak auek dira:

Anoeta, Arizkun, Asteasu, Aya (Ataun), Ea, Eibar, Ezkioga, Gellano, Goiaz, Larrino, Leiza, Morga, Mundaka, Mungia, Orio, Zizurkil, Zumaia.

Ez dakite: Alkiza, Labayen.

Geroago ikusiko: Huarte-Arakil.

Beste guztiak ez dute erantzunik.

# VII

# AZKENA

## VII

## AZKENA

Ez dut eriotzari buruzko filosofia bat egin nai izan, ez bait dut artarako ez gogo, ez aal. Nere elburua beste au izan da:

Arkeolojiak illen bidetik dakarrena, Etnolojiak gaurko egunez bizien bidetik dakarrena argitu.

Alderantziz ere bai:

Gaurko Etnolojiaren gaiak, atzoko Arkeolojiaren aldetik agertu.

Beste aldetik, berriz, oitura zaarrak, era bat galdu aurretik, jasotzea ere asmoan izan dut. Lan xeea izan da eta ez garantzi aundienetakoa; baiña bakoitzak alduena egin dezala aJduan arloan eta alduan eran.

Euskalduna, guk bestera uste arren, berri-zale agertu zaigu beti. Artu-eman zabalak izan ditu beti bere inguruko kultura guztiekin. Konbenizitzaionak onartu ditu, nundik datorrenik asko begiratu gabe. Ori bai, beiñ zerbait onartu ezkeroz, bere odol-mami biurtu izan ditu; era orretara, "euskaldunak" gaur jotzen ditugun gauza asko (txapela, pelota, fedea...) ez dira beti euskaldun izan. Beste kulturetatik artuak dituzu, baiña geure erara moldatuak eta gaur euskaldun dira; geroak zer ekarriko duan jaiñ ez. Bear bada gaurko egunez amerikano edo txino diran zenbait molde, "euskaldun" biurtu litezke biarko egunez...

Beiñ gure mami egindegunari euzten, mutillak gera.

•ff ‹ff

Lurpeko jaiko txikiak, majiak, animismoak, erromatarren siniskerak, kristautasunak eta abarrek utzi digute sinisterik asko eta oiturarik ere. Askotan bata bestearen gaiñean tolestuta, alkarrekin naastu-

ta; baiña, gureraiño eldu dira. Nere lan onetan ori naiko garbi agertzen dala uzten dut. Or dituzu begien aurrean xeetasun guztiak. Ez ditut ur guztiak agortu, ezta bideak oro amaitu. Zerorrek, nik esandakoetatik, ondoren geiago atera.

Lana neketsua izan da. Bear bada neke geiegi aiñ frutu eskasentzako.

Bear bada, bai.

Baiña, gerokoari begira egin dut lan au. Gerokoek gaurkoen berri geixeago izan dezaten egunen batean; gauza asko sekulako galtzeko arrixkuan bait gaude.

Bakoitzak zertxo bat salbatzen badegu, orra danon artean asko salbatzera eldu. Jaso ezazu zeuk ere, zeure ingurutik, galtzeko arrixkuan dagoen zerbait eta zure jokabidea onurakorra izanen da ondorengoentzat. Ala bedi.

Deba'n. Ekainak 30. Urtea, 1973.

# VIII

# GURE AZTERKETARI ERRI BAKOITZAK ERANTZUNDAKOA

VIII

# GURE AZTERKETARI ERRI BAKOITZAK ERATZUNDAKOA

ADUNA (Gip.) *Asuncidn, parrokia.*

**SEPULTURAK**. Elizan ba al dira? Ez. Leenago? Bai. Etxearenak? Bai. Familiarenak? Bai.

Zergaitik kendu? Banku berriak jartzeagaitik? Bai.

Beste arrazoirik? Ea Eliz osoa artzen zutelako; gizon guztiak korura joan bearra.

Elizkizunetako (abesti, erantzute...) kaltegarri.

**SEPULTURATAN EZER EGITEN AL DA?**

Ofrendak: argizaria? Bai. Erresponsoak? Bai. Sepultura, argi ta erresponsekin, illa urtebarruan daukatenak bakarrik. Igandetan duro bat edo beste.

Erresponsoak noiz kendu ziran? Geienak aulkiak jartzean. Orain 4 urte.

**GORPUTZ-BIDEA**. Ba al da eliz orretan? Bai.

Izena? Gorputz-Bideak

Kurutze-bideetan erresponsoak errezatu? Bai.

Gorputz-bidetik kanpora pasa ezkero, sortzen al da andik aurrera bcrtatik pasatzeko eskubiderik? Bai.

**ETXEKO SEPULTURAK.**

Bataio gabe iltzen diran umean sepulturak? Kanposantu ondoan.

Etxe ondoko baratzan? Ez. Etxeko tellatupean? Ez. Leenago? Ez dakit.

**SEPULTURAKO ARGIZARIA.**

Zergaitik kendu zituzten argizarioalak? Bankuak jartzeagaitik? Bai.

**OBIRATZE ONDORENGO BAZKARIAK.**

Ba al dira? Ez. Leenago? Bai.

Zeifientzao? Aide eta auzokoentzat.

Zergaitik kendu zuten oitura? Kastuagatik, batez ere. Gerra ondorengo gora- berak.

Ogia ardoakin ematen al zuten? Bai. Karidade al zun oitura onek izena? Ez dakit.

Otoitzik egiten al zan jatorduan? Bai. Zeiñek? Edozeiñek. Mezak biltzeko aitzakia emen.

Esaten zutena:—Kastua eginda dago ta segitu onelako lekura... Edo: ogi ta ardoa artzera...

**ILLETA EGUNEKO OFRENDAK**

Orain? Ez. Leenago? Bai.

Zer ofrenda? Ogia, argizaria, dirua-erresponsoak.

Zeiñek egiten zuan ofrenda ori? Etxekoandreak.

**SEGIZIOA.**

Orain? Ez. Leenago? Bai. Gizonak aurretik eta emakumeak ondoren

Ofrendarik ba al zan? Ez dakit.

**BESTE OITURA BATZUEK.**

Gorputzen oifiak lotu? Ez det uste. Leenago? Ez dakit.

Tellatuko tellak kentzen al dira...? Ez. Leenago? Ez dakit.

Kuartoko leiorik irikitzen al da iñor ildaoan? Bai. Zergaitik? Aideagatik.

Eriotza gertu dagoen seiñalea, zakurren intziri tristea? Batzuen iritziz, bai.

Parrokiko liburuetan ezer al dakar...? Ez.

**JESUS AMUNDARAIN**. Izenpetuta. Aduna 2-IV-73. Seilloa: Parroquia de Sta. Maria de la Asuncidn. **ADUNA,**

ALKIZA *(Guip.) San Martin, parrokia,*

**SEPULTURAKH** Bai, badaude.
Etxiarenak dira. Batzuetan familiarenak ere bai.
Etxearekin batera saltzen dira? Batzuetan bai, baiño beti, ez.

**SEPULTURETAN EZER EGITEN ALDA**? Argizaria: bi kandela-argi, atxak, illaren bi urtera arte meza garaian piztuta eukitzen dira. Etxekoandrea antxe jartzen da igandero mezetan.

Dirua eskeiñi eta erresponsoak, bederatzi-urrenetan, urtebetean, bi-urtean, santuguzienetan.

Leenago, ogia eta argizaria.

Liburu zaarrak ezer badakarte? Ez dakit.

**GURUTZE-BIDEAK EDO GORPUTZ-BIDEAK**. Etxetik elizarako gorputzak eramateko bideak: Bada eliz orretan? Bai.

Zer izen du? Gorputz-bidea.

Ezer egiten da...? Leku izendatuak daude gelditu ta erresponsoa errezatzeko.

Zeiñek? Apaizak.

Gorputz-bidetik kanpora pasa ezkero, sortzen al da andik aurrera bertatik pasatzeko eskubiderik? Ez dakit.

**ETXEKO SEPULTURAK**. Bataio gabe ildako umien sepultura:

